



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**2023KO MARTXOAREN 30EKO OSOKO
BILKURAREN ERABAKIAK**

1. Kultura, Euskara eta Kirol Batzordearen irizpena, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren lege-proiektuaren gainean egindakoa. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [12\09\01\00\00017]

Onetsi egin da 2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolarena.

**ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL
DÍA 30 DE MARZO DE 2023**

1. Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión de Cultura, Euskera y Deporte, en relación con el proyecto de ley de la actividad física y del deporte del País Vasco. [12\09\01\00\00017]

Aprobada la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la Actividad Física y del Deporte del País Vasco.





EUSKO LEGEBILTZARRA PARLAMENTO VASCO

2/2023 LEGEA, MARTXOAREN 30EKOA,
EUSKADIKO JARDUERA FISIKOAREN ETA
KIROLARENA

ZIOEN AZALPENA

Euskal Autonomia Erkidegoak, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Autonomia Estatutuaren 10.36 artikulua arabera, kirolaren arloko eskumen eskusiboa du. Lege hau, lehenetsuneko eskumen-titulu horren babesean ez ezik, beste eskumen-titulu batzuen babesean ere egituratu da, hala nola, hirigintzari, garraioari, hezkuntzari, kulturari, gizarte-zerbitzuei, lanbideei eta osasunari lotutako eskumen-tituluen babesean. Izan ere, jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapena, lege honen funtsezko helburuetako bat dena, zeharkako eginkizuna da, eta botere publikoen hainbat jarduketa-esparru hartzen ditu eraginpean.

Kirol-arloko eskumen horren babesean, Legebiltzar honek Soin-Kulturaren eta Kirolaren otsailaren 19ko 5/1988 Legea onartu zuen hasiera batean, eta lege horrek lehiaketako kirol federatua zuen ardatz nagusi. Geroago, lege hori Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak ordeztu zuen, zeinaren bidez, erregulazioaren ardatza kirol antolatua edo lehiaketako kirolaz bestelako kirol-adierazpen batzuetara zabaltzea nahi izan zen, bai eta jarduera fisikoa eta kirola aisialdirako sustatu ere.

Euskal kirol-sistemako agente publiko eta pribatuak orain arte indarrean zegoen kirolaren esparru juridikoa berrikusteko prozesuan sistema horrekiko gogobetetze-maila handia agertu badute ere, 14/1998 Legea indarrean jarri zenetik bi hamarkada joan direnean bidezkoztat jo da kirolean izandako eraldaketak islatuko dituen esparru juridiko berri bat sortzea, kontuan hartuta gure gizartearen bilakaera, ebidentzia zientifikoan oinarrituriko esku-hartzeen ezagutza izandako garapena, kirolaren fenomenoak bizi izan dituen eraldaketak eta jarduera fisikoaren eta kirolaren kontzeptuaren bilakaera. Egungo kirol-errealitatea 1998koarekiko desberdina da, arazo eta behar berriak ditu, eta horrek botere publikoak bultzatzen ditu lege-esparru hura eguneratzera, nazioarteko erakundeek aipatzen dituzten kirolaren dimentsio desberdinak kontuan hartuta. Adierazgarria da, adibidez, 2030 Agenda, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015eko irailaren 25eko Ebazpenaren bidez onartua, zeinak kirola garapen jasangarria errazteko tresna garrantzitsutzat jotzen baitu, bai eta garapena eta bakea gauzatzen gero eta gehiago laguntzen duen elementutzat ere, tolerantzia eta errespetua sustatuz. Halaber, kirolak emakumeen, gazteen eta

LEY 2/2023, DE 30 DE MARZO, DE LA ACTIVIDAD
FÍSICA Y DEL DEPORTE DEL PAÍS VASCO

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Comunidad Autónoma del País Vasco ostenta, a tenor del artículo 10.36 del Estatuto de Autonomía, aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, la competencia exclusiva en materia deportiva. Además de tal título competencial prevalente, la presente ley se articula al amparo de otros títulos competenciales, como los de urbanismo, transporte, educación, cultura, servicios sociales, profesiones o sanidad. Ello encuentra su explicación en que la promoción de la actividad física y del deporte, uno de los objetivos fundamentales de esta ley, constituye una misión transversal que incumbe a diversos ámbitos de actuación de los poderes públicos.

Al amparo de dicha competencia en materia deportiva, este Parlamento aprobó inicialmente la Ley 5/1988, de 19 de febrero, de la Cultura Física y del Deporte, más focalizada en el ámbito del deporte federado de competición, que fue sustituida posteriormente por la Ley 14/1998, de 11 de junio, del deporte del País Vasco, que trató de ampliar el foco de la regulación a otras manifestaciones deportivas, más allá del deporte organizado o de competición, y de fomentar la actividad física y del deporte con carácter recreativo.

Aunque los diferentes agentes, públicos y privados, del sistema deportivo vasco han manifestado, con ocasión del proceso de revisión del marco jurídico del deporte hasta ahora vigente, un elevado grado de satisfacción con él, lo cierto es que tras dos décadas desde que entró en vigor la Ley 14/1998 y teniendo en cuenta la evolución de nuestra sociedad, el desarrollo en el conocimiento de las intervenciones basadas en la evidencia científica, las transformaciones experimentadas por el fenómeno deportivo y la evolución del concepto de la actividad física y el deporte, se ha considerado oportuno otorgar un nuevo marco jurídico que refleje las transformaciones que ha experimentado el fenómeno deportivo. La realidad deportiva actual es diferente a la de 1998, presenta una problemática y necesidades nuevas, lo que impele a los poderes públicos a actualizar aquel marco legislativo, teniendo en cuenta las diferentes dimensiones del deporte a las que se refieren los organismos internacionales. Resulta significativa, por ejemplo, la Agenda 2030, aprobada por la Asamblea General de Naciones Unidas mediante la Resolución de 25 de septiembre de 2015, y que configura el deporte como instrumento importante facilitador del desarrollo





komunitateen ahalduntzea ere bideratzen du, eta tresna eraginkorra da osasunaren, hezkuntzaren eta gizarteratzearen arloko helburuak lortzeko.

Euskal jarduera fisiko eta kirolerako araubide juridiko berri honetan, protagonismo berezia dute jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapenak, kirol inklusiboagoa lortzeko helburuak, gobernantza oneko ereduak txertatzeak, desberdinkeriak desagerrarazteak, eskola-adinean jarduera fisikoa eta kirola bultzatzeak, emakumeen kirolaren sustapenak, kirol-erakundeetan organo paritarioak osatzeko betebeharrak, administrazio publikoek obesitateari eta sedentarismoari aurre egiteko lanean betetzen duten zeregina argitzeak eta kirol federatuaren egiturak birdimentsionatu eta arrazionalizatzeak.

Osasunari, aisiari edo ongizateari lotutako arazoak direla-eta herritarrek kirol-erakundeetatik kanpo egiten duten jarduera fisikoa garrantzia hartu du eta lehiaketako kirol federatuak, ordea, indarra galdu du kirol-jarduera orokorrean. Horrek agerian utzi du orain arte bi errealitate horiei eskainitako legegintza-arreta asimetricoa dela. Horiek horrela, lege hau bat dator Osasunaren Mundu Erakundeak adierazitako kezkarekin, izan ere, egiaztatu da jarduera fisikoaren falta hilkortasunaren laugarren arrisku-faktore garrantzitsua dela, ondorio sozial nabarmenak dituela eta, gainera, kostu sanitario handiak dakartzala estatuentzat. Halaber, bereziki kezkagarria da gaur egun haurren sedentarismo- eta obesitate-maila altua, aisialdian gailu elektronikoak erabiltzeko adikzioetatik, joan-etorrien garraio-joera berriengatik, elikadura-ohitura eskasengatik eta antzeko beste arrazoi batzuegatik.

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, jarduera fisiko erregularra lotuta dago kardiopatiak, istripu baskularrak, diabetesa eta minbizia izateko arrisku txikiagoarekin, eta osasun mental eta bizikalitate hobearekin. Era berean, ezin da ahaztu jarduera fisiko erregularra lagungarria dela ikasketetan eta lanean errendimendu hobea lortzeko. Hori dela eta, gobernu-maila guztiek paradigma-aldaketa bat lortu behar dute, gizarte aktiboagoa sortzeko eta jarduera fisiko erregularrak dakartzan askotariko onurak behar bezala transmititzeko.

sostenible y como elemento que contribuye cada vez más a hacer realidad el desarrollo y la paz promoviendo la tolerancia y el respeto, y que respalda también el empoderamiento de las mujeres y de las personas jóvenes y las comunidades, así como herramienta eficaz para alcanzar los objetivos en materia de salud, educación e inclusión social.

En este nuevo régimen jurídico para la actividad física y el deporte vasco adquieren un protagonismo especial la promoción de la actividad física y el deporte, así como el objetivo de alcanzar un deporte más inclusivo, la incorporación de modelos de buena gobernanza, la erradicación de las desigualdades, el fomento de la actividad física y del deporte en edad escolar, el fomento del deporte femenino, la obligación de órganos paritarios en las organizaciones deportivas, la clarificación del rol de las administraciones públicas en la lucha contra la obesidad y el sedentarismo y en la tarea de crear hábitos saludables de vida, así como el redimensionamiento y la racionalización de las estructuras del deporte federado.

La creciente relevancia de la actividad física realizada por la ciudadanía al margen de las organizaciones deportivas, por razones de salud, ocio o bienestar, ha conllevado una pérdida de fuerza del deporte federado de competición en el conjunto global de la práctica deportiva y ha puesto de manifiesto la asimétrica atención legislativa dispensada hasta la fecha a ambas realidades. Esta ley sintoniza con la preocupación manifestada por la Organización Mundial de la Salud ante la constatación de que la falta de actividad física se erige como el cuarto factor de riesgo más importante de mortalidad, con notables repercusiones sociales y unos costes sanitarios considerables para los estados, siendo especialmente preocupante el elevado nivel de sedentarismo y obesidad infantil existente en la actualidad, auspiciado por la adicción al uso de dispositivos electrónicos en los periodos de ocio, por las nuevas tendencias en el ámbito de los desplazamientos, por deficientes hábitos alimentarios y otras razones análogas.

Según la citada Organización Mundial de la Salud la actividad física regular está asociada a menores riesgos de cardiopatías, accidentes vasculares, diabetes y cáncer, y a una salud mental y una calidad de vida mucho mejores. Tampoco puede obviarse que la actividad física regular contribuye al mejor rendimiento académico y laboral. Ello obliga a todos los niveles gubernamentales a lograr un cambio de paradigma al objeto de crear una sociedad más activa y a transmitir adecuadamente los múltiples beneficios que reporta la actividad física regular.



Euskadin egindako azterlanek agerian utzi dute bertako herritarrek egiten duten jarduera fisikoa kuantitatiboki mailarik onenak dituzten herrialdeetan egiten denaren antzekoa dela, hala ere, lege berri honek urrundu egin behar du autoatseginkeriatik, zuzendu beharreko hutsune batzuk baitaude: gizonen eta emakumeen jarduera fisikoaren arteko desberdinkeria nabarmena, derrigorrezko hezkuntzaren ondoko goi-mailako ikasketak hastean jarduera fisikoa uzteko joera, lantokietarako edo ikastetxeetarako joan-etorri aktiboen maila txikia eta gizarte-kolektiborik ahulenen kirol-jardunaren maila txikia. Hori guztia dela-eta, beste era batean ekin behar zaio kirolaren fenomenoari.

Orain arteko kirol-arloko esparru juridikoaren balioa egiaztatuta dagoen neurrian kirol-sistemako agente direnekin, hots, kirol-klubekin, kirol-federazioekin, udalerriekin, foru-aldundiekin, prestakuntza-zentroekin, profesionalen elkargoekin, kirol-zerbitzuetako enpresekin eta abarrekin, ez baitu gatazka esanguratsurik sortu aplikazio-aldian, lege berri hau, funtsean, haren oinarrien gainean eraikitzen da.

Lehentasunezko lan-ardatzetako bat jarduera fisikoaren eta kirolaren alderdi guztietan benetako berdintasun erreala lortzea dela kontuan hartuta, genero-ikuspegia eta sexu- eta genero-dibertsitatearen ikuspegia txertatu dira zeharka legean, arlo honetako politika publiko guztietan jarraitu beharreko printzipio gisa.

Legearen I. titulua legearen aplikazio-esparruari, helburuei eta printzipio orokorrei buruzkoa da, eta aurreko lege-testua errespetatzen du funtsean. Sartu diren aldaketen artean, azpimarratu beharra dago lege-testu berriak jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapena eta askotariko gizarte-arloetan eskumenak dituzten administrazio publikoen zeharkako parte hartzearen beharra. Jarduera fisiko eta kirol-jarduera handiagoko euskal gizarte aktiboago bat lortzeko erantzukizuna, kirol-administrazioarena ez ezik, gobernu ezberdinena ere bada.

II. tituluak jarduera fisikoaren eta kirolaren eskumen-banaketa egituratzen du aurreko legearen jarraibideetatik abiatuta, hau da, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundearen Arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea (Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen eta

Aunque los diferentes estudios realizados en el País Vasco ponen de relieve que la ciudadanía del País Vasco realiza una actividad física en términos cuantitativos cercanos a países con los niveles más óptimos, esta nueva ley debe alejarse de la autocomplacencia pues se observan diversas deficiencias que resulta preciso corregir: la clara desigualdad en la práctica de la actividad física de hombres y mujeres, el abandono de la práctica deportiva con ocasión del inicio de los estudios superiores postobligatorios, el bajo nivel de desplazamientos de forma activa a los centros de trabajo o estudio, o el escaso nivel de práctica deportiva en los colectivos socialmente más desfavorecidos. Todo ello conduce a la necesidad de un diferente abordaje del fenómeno deportivo.

En la medida en que se ha contrastado con diferentes agentes del sistema deportivo, como son los clubes deportivos, federaciones deportivas, municipios, diputaciones forales, centros formativos, colegios profesionales, empresas de servicios deportivos, etcétera, la validez del marco jurídico-deportivo vigente hasta la fecha, en cuanto que no ha generado mayores conflictos en su aplicación, la presente ley se articula básicamente sobre sus cimientos.

Siendo un eje de trabajo prioritario lograr la igualdad real y efectiva en el ámbito de la actividad física y del deporte en todas sus facetas, se ha incorporado a la ley de forma transversal la perspectiva de género y de diversidad sexo-genérica como principio que debe regir todas las políticas públicas en esta materia.

En el título I de la ley, relativo al ámbito de aplicación de la ley, a sus objetivos y a sus principios generales, se respeta básicamente el texto legal anterior. Entre las modificaciones que se han introducido cabe destacar que el nuevo texto legal enfatiza la promoción de la actividad física y del deporte y la necesidad de participación transversal de las diferentes administraciones públicas con competencias en áreas sociales diversas. La responsabilidad de conseguir una sociedad vasca más activa, con más actividad física y deportiva incumbe a diversas instancias gubernamentales, no solo a la administración deportiva.

El título II aborda la vertebración competencial de la actividad física y del deporte a partir de las pautas de la anterior ley, es decir, a partir de las pautas aceptadas en la Comunidad Autónoma tras la aprobación de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus



Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko izen gaurkotuarekin ezagutzen dena). Jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapenerako lege honen bidez ezartzen diren politikak garatzeko erakunde bakoitzak duen eskumena zehazten da. Legeak udalerrira hartzen du eremu honetako sustapenaren ardatz nagusitzat, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazio publikoa baita, eta kirol-arloko ekipamendu, gune eta zerbitzu gehienek titularrak, baina ahaztu gabe Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta foru-aldundietako administrazio publikoekin partekatutako erantzukizuna dela.

Jarduera fisikoaren eta kirolaren administrazio-egituraketari buruzko titulu honetan, Kirolaren Euskal Kontseiluaren eraldaketa azpimarratu beharra dago. Izan ere, legearen eduki berrietara egokitutako izen berria hartzeaz gain, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua, organikoki sendotu egiten da legean, 14/1998 Legean aurreikusitako batzorde independente guztiak biltzen baititu bere baitan.

III. titulua lege honen berritisun nagusietako bat da 14/1998 Legearekin alderatuta, jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko neurri multzo bat biltzen baitu, legearen izenburuari berari eta helburuei jarraikiz. Horiek lege-testuaren hasieran egoteak, lehen tituluari eta eskumenei buruzko tituluaren ondoren, garbi islatzen du lege honetan jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapenari eman nahi zaion garrantzi handia, izan ere, legearen zutabeetako bat da eta pertsonen bizi-kalitate hobea lortzeko, gaixotasunei aurrea hartzeko, garapen pertsonalerako eta ongizate indibidual eta kolektiborako egiten duen ekarpen handiari lotuta dago. Legearen helburu nagusienetarikoa bat da euskal gizarte aktiboago bat lortzea, eta horrexegatik jasotzen da Jarduera Fisikoaren Euskal Agentziaren Zerbitzua.

Lege honek jarduera fisikoaren sustapenaren esparruan biltzen dituen aurreikuspen batzuk Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean oinarrituta daude. Lege horrek Euskadiko osasun-arloko erakunde-esparrua zaintzeko funtzioa esleitzen dio Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari, zeinak esparru hori politika sektorial guztietan kontuan hartzen dela zaintzeko bidezkoak diren neurriak hartuko baitu bai eta osasun-arloko ekintzak osatuko dituzten diziplina anitzeko ekintza positiboek diseinua bultzatu ere. Hori dela-eta, III. tituluak zeregin erabakigarria esleitzen die osasunaren, hezkuntzaren eta kirolaren arloko administrazioei elkarrekin, jarduera fisikoaren eta kirolaren

Territorios Históricos. Se determina la competencia de cada institución para el desarrollo de las políticas de promoción de la actividad física y el deporte, que se establecen a través de esta ley. La ley considera al municipio como eje central de la promoción en este ámbito, al tratarse de la administración pública más próxima a la ciudadanía, titular de la mayor parte de los equipamientos, espacios y servicios deportivos, sin olvidar que se trata de una responsabilidad compartida con las administraciones públicas de la Administración general de la Comunidad Autónoma y de las diputaciones forales.

En este título sobre la vertebración administrativa de la actividad física y del deporte resulta preciso destacar la transformación del Consejo Vasco del Deporte que, además de la nueva denominación adaptada a los nuevos contenidos de la ley, Consejo Vasco de la Actividad Física y del Deporte, se refuerza orgánicamente en la ley, pues acoge en su seno todos los comités independientes que contemplaba la Ley 14/1998.

El título III constituye una de las principales novedades de la presente ley en comparación con la Ley 14/1998, pues condensa todo un conjunto de medidas destinadas a la promoción de la actividad física y del deporte en consonancia con el propio título de la ley y sus objetivos. Su ubicación al principio del texto legal, después del título introductorio y competencial, es un reflejo claro de la importancia que trata de conferirse en esta ley al fomento de la actividad física y del deporte, siendo uno de sus pilares, y guarda consonancia con su trascendental contribución a una mejor calidad de vida de las personas, a la prevención ante enfermedades, a su desarrollo personal y al bienestar individual y colectivo. Conseguir una sociedad vasca más activa es uno de los grandes objetivos que persigue la ley y por ello se contempla el Servicio de la Agencia Vasca de Actividad Física.

Algunas de las previsiones de esta ley en el ámbito de la promoción de la actividad física han tomado como referencia la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, que atribuye a la Administración general de la Comunidad Autónoma la función de preservar el marco institucional de salud en el País Vasco, adoptando las medidas oportunas para velar por su consideración en todas las políticas sectoriales, propiciando el diseño de acciones positivas multidisciplinarias que complementen las estrictamente sanitarias. Por ello, el título III atribuye un papel decisivo a las administraciones del ámbito sanitario, educativo y deportivo para garantizar conjuntamente la tutela de la salud a través de la promoción de la actividad física y



sustapenaren bidez, osasunaren babesa bermatzeko. Ildo horretan, adibidez, udalerrietan osasun-zentroekin koordinatuta jarduera fisikoaren inguruko orientazio-zerbitzuak progresiboki ezartzeko aukera finantzatuko da.

IV. tituluak ere berritasunak dakartza, xedapen ugari biltzen baititu jarduera fisikoan eta kirolean gobernantza egokia bermatzeko eta kirol-erakundeek eta Euskadin antolatzen diren jardueren gardentasunaren, kudeaketaren eraginkortasun eta efizientziaren, parte-hartze demokratikoaren, berdintasun eraginkorraren, gizarte-inklusioaren eta abarren printzipioei jarrai diezaieten sustatzeko. Ikuspuntu sistematikotik, titulu hau ere legearen lehen zatian kokatu da, bi arrazoi nagusirengatik: bere zeharkako izaeragatik eta euskal kirol-sisteman gobernantza onaren estandarrak igotzeko apustu garbia egiten delako. Herrialde bateko kirol-sistemaren maila, kiroleko emaitzen arabera ez ezik, bere gobernantza onaren kalitatearen arabera ere neurtu behar da. Jarduera fisikoak eta kirolak, gaitasun atletikoen eta lehiaketetan lortutako emaitzen dimentsioaz gain, lege honek alde batera utzi nahi ez duen gizarte- eta hezkuntza-dimentsio bat ere badute.

Kiroleko gobernantza onaren esparruan, kirolaren eremuan bi hizkuntza ofizialtako edozein erabiltzeko herritarrek duten eskubidea eta kirolarien eta gainerako parte-hartzaileen hizkuntza-eskubideak bermatu nahi dira lege honen bidez, kirol-jarduera ofizialaren esparruan bereziki, botere publikoen erantzukizuna baita herritarrek euskara erabiltzeko duten eskubidea bermatzea eta gure hizkuntzaren ezagutza eta erabilera babestea eta bultzatzea, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak ezartzen duenari jarraikiz.

V. tituluak euskal kiroleko elkarten egitura arautzen da antolakuntza-segmentuen arabera, horretarako, Lisboako Itunean aitortutako kirolaren berariazko izaeratik abiatzen da, baina kiroleko erakunde pribatuek arauak egiteko duten ahala antolamendu juridiko publikora egokitu behar dela gogoan izanda. Lehiaketazko kirolak ezin ditu alde batera utzi botere publikoetatik datozen arauak. Legearen berritasun nagusia da federazio-sistema funtsean birdimentsionatzea. Aurreko legearen zioen azalpenean, berariaz onartzen zen federazio-egitura berregituratzeko beharra (dimentsio desegokia baitzuen); eta, 14/1998 Legearen bidez, irtenbide bat eman nahi izan zitzaion federazioen atomizazio

del deporte. Ello se traduce, por ejemplo, en la financiación de la implantación progresiva en los municipios de servicios de orientación de actividad física en coordinación con los centros sanitarios.

También resulta novedoso el título IV, que incorpora numerosas disposiciones encaminadas a garantizar una buena gobernanza en la actividad física y en el deporte y a promover que las organizaciones deportivas y las actividades que se organicen en el País Vasco estén gobernadas por los principios de transparencia, eficacia y eficiencia en la gestión, participación democrática, igualdad efectiva, inclusión social, etcétera. Desde el punto de vista sistemático, este título también se ha situado en la primera parte de la ley por dos razones principales: por su naturaleza transversal y por la decidida apuesta por elevar los estándares de buena gobernanza en el sistema deportivo vasco. El nivel de un sistema deportivo de un país no solo se debe medir en términos de resultados deportivos, sino también por la calidad de su buena gobernanza. La práctica de la actividad física y del deporte no es solo una mera cuestión de aptitudes atléticas, de resultados en competiciones, sino que también presenta una dimensión social y educativa que esta ley trata de no descuidar.

En el marco de la buena gobernanza en el deporte, la presente ley trata de garantizar el derecho de la ciudadanía a usar cualquiera de las dos lenguas oficiales en el ámbito del deporte y de que se respetan los derechos lingüísticos de las deportistas y los deportistas y de las demás personas participantes, especialmente en el ámbito de la actividad deportiva oficial, pues es responsabilidad de los poderes públicos garantizar el derecho de la ciudadanía a utilizar el euskera, así como amparar e impulsar el conocimiento y uso de nuestra lengua de conformidad con lo que establece la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera.

El título V regula la estructura asociativa del deporte vasco en sus distintos segmentos organizativos y parte de la naturaleza específica del deporte ya reconocida en el Tratado de Lisboa, pero sin olvidar que la potestad normativa de las organizaciones privadas del deporte se ha de acomodar al ordenamiento jurídico público. El deporte de competición no puede sustraerse a las normas emanadas de los poderes públicos. La principal novedad de la ley es el redimensionamiento sustancial del sistema federativo. La anterior ley ya reconocía expresamente en su exposición de motivos la necesidad de reestructuración del entramado federativo, con una dimensión inadecuada, y trató de dar solución a la



kezkagarriari. Izan ere, kirol-federazio gehiegi zegoen, eta batzuen ezarpena ia hutsala izanda ere beren kostuak onartezinak ziren altxor publikorako. Hori dela eta, 14/1998 Legean kirol-federazioak sortzeko baldintza berriak ezarri ziren, eta kirol-federazio gisa jarraitzeko dimentsio egokirik ez zuten kirol-federazioei emandako aitorpena errebokatze mekanismo batez hornitu ziren babes-eskumenak dituzten administrazio publikoak.

Bi hamarkada hauetako esperientziak agerian utzi du, ordea, neurri horiek ez dutela emaitza onik eman eta, gainera, gatazka ugari sortu dira lurralde-federazioen eta euskal federazioen artean, hauteskunde- zein eskumen-kontuak eta kontu ekonomikoak direla-eta. Horrenbestez, legeak federazio-egitura arrazionalizatu eta birdimentsionatzearen alde egin du. Horrek abantaila ugari ekar dezake berekin, adibidez, egungo gatazka asko saihesten lagun dezake, giza baliabideak zein baliabide materialak optimizatuko dira, era horretan federazioak erakunde sendoagoak izango dira eta erronka berriak beren gain hartzeko ahalmen handiagoa izango dute.

Esparru juridiko berriarekin, federazioen hauteskunde-sistema ere nabarmen sinplifikatuko da. Orain arte, euskal federazioen hauteskunde-prozesuak lurralde-federazioen hauteskunde-prozesuetan oinarrituta egiten ziren, eta federazio horien gatazkek hauteskunde-sistema baldintzatzen zuten, euskal federazioen batzar nagusiak lurralde-federazioen batzar nagusietatik abiatuta osatzen baitziren. Lege berriarekin, kirol-federazioen batzar nagusiak kirol-erakundeetako ordezkariak baino ez dituzte osatuko, errealitateak agerian utzi baitu kirol-federazioek bigarren mailako elkarte gisa dihardutela, kirol-erakundeen elkarte gisa. Horrela, lege berriarekin, kirol-klubak eta kirol-elkarteak kirol federatuaren erabakigune bihurtuko dira. Horren truke, pertsona fisikoek estamentuen presentzia areagotu egingo da kirol-federazioen administrazio-organotatik.

Era berean, ezin da alde batera utzi lege berriak desgaitasuna edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen eskaintzen dien arreta. Pertsona horiek talde kaltebera eta ugaria osatzen dute, eta kirol-sistemak, egindako aurrerapen ukaezina gorabehera, ez die oraindik erabateko inklusioa erraztu. Legearen bidez, kirol inklusiboa lortzeko eta jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan kolektibo horren oinarritzko eskubideen errespetua bermatzeko oztupoak

preocupante atomización federativa, con demasiadas federaciones deportivas, algunas con una implantación casi inexistente y, sin embargo, con unos costes inaceptables para el erario público. Por ello, en la Ley 14/1998 se establecieron nuevas condiciones para la creación de federaciones deportivas y se dotó a las administraciones públicas de tutela de un mecanismo de revocación del reconocimiento otorgado a aquellas federaciones deportivas que carecen de una dimensión adecuada para continuar existiendo como tales.

Sin embargo, la experiencia de estas dos décadas ha puesto de manifiesto que tales medidas no han funcionado satisfactoriamente y, además, han sido frecuentes los conflictos entre las federaciones territoriales y las federaciones vascas por cuestiones electorales, competenciales y económicas. Por todo ello, la ley opta por racionalizar y redimensionar el entramado federativo. Ello puede conllevar múltiples ventajas; puede contribuir a evitar buena parte de los actuales conflictos y se van a optimizar recursos humanos y materiales, convirtiendo las federaciones en organizaciones más fortalecidas y con más capacidad para asumir nuevos retos.

Con el nuevo marco jurídico, el sistema electoral federativo también se simplifica de forma extraordinaria. Hasta la fecha los procesos electorales de las federaciones vascas pivotaban en los previos procesos electorales de las federaciones territoriales, cuyos conflictos condicionaban aquel sistema electoral, pues las asambleas generales de las federaciones vascas se formaban a partir de las asambleas generales de las respectivas federaciones territoriales. Con la nueva ley las asambleas generales de las federaciones deportivas solo están compuestas por representantes de las entidades deportivas, pues la realidad ha puesto de manifiesto que las federaciones deportivas se comportan como asociaciones de segundo grado, como asociaciones de entidades deportivas. De este modo, los clubes y las agrupaciones deportivas se convierten con la nueva ley en el centro de decisión del deporte federado. A cambio, se refuerza la presencia de los estamentos de personas físicas en los órganos de administración de las federaciones deportivas.

Tampoco puede pasarse por alto la atención que dispensa la nueva ley a las personas con discapacidad o con diversidad funcional. Conforman un grupo vulnerable y numeroso al que el sistema deportivo, a pesar del innegable progreso alcanzado, no le ha facilitado aún su plena inclusión. La ley trata de remover los obstáculos para alcanzar un deporte inclusivo y para garantizar el respeto de los derechos básicos de este colectivo en el ámbito de la actividad física y del



desagerrarazi nahi dira.

VI. titulua kirol-lehiaketei eta lizentziei buruzkoa da eta ez du eraldaketa handirik izan. Berrikuntzen artean azpimarra daiteke, ordea, azterketa medikoen nahitaezkotasunari baldintzak ezarri zaizkio. Legeak berriaz gaitzen du Eusko Jaurlaritza beharrezkotzat hartzen den kasuetan nahitaezkotasun hori erregelamenduz ezartzeko, baina saihesten du nahitaezkotasun hori lizentzia mota orotara zabaltzea. Era berean, ezin da ahaztu legeak kirol-ekitaldien leihatila bakarra sortzeko oinarriak ezartzen dituela. Leihatila hori kirol-ekitaldien antolatzaileek behar dituzten komunikazio, adierazpen, baimen eta lizentzia guztien inguruko informaziogunea eta izapidetze elektroniko integraleko gunea izango da, eta kirol-ekitaldien antolaketa erraztea eta jarduera horiek garatzeko ingurune lagungarriago eta gardenago bat sortzea du helburu.

VII. tituluak zenbait eduki ditu. Lehenik eta behin, eskola-adineko jarduera fisikoa eta kirola lantzen du eta berritasun esanguratsu bat dakar. Aurreko legean, kirolaren segmentu horrek nahitaezko eskolatzeko aldian zeuden ikasleak biltzen zituen, hau da, 6-16 urtekoak. Orain, berriz, 0-6 urtekoak ere sartuko dira, eta babes berezia eskainiko zaie osasunaren esparruan, erakunde publiko eskudunen eta esparru hori lotutako agenteen arteko adostasunaren ondorioz. Testu artikulatu berriak zehazten ditu eskola-adineko etapak eta etapa bakoitzaren ezaugarriak. Kirolean eta jarduera fisikoaren edozein arrazoiengatik agertzen den indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioaren aurkako borroka ez da zehapen-arauen zeregin eskusiboa. Aitzitik, portaera horiek kirol-sistemaren oinarritik hasita desagerrarazi behar dira, eta beharrezkoak diren errespetua, tolerantzia eta joko garbia helarazi behar dira hastapen-adin horietan egiten den jarduera fisikoan eta kirolean.

14/1998 Legean bezala, arreta berezia eskaintzen zaio unibertsitate-esparruan egiten den jarduera fisikoari eta kirolari, unibertsitateen autonomia errespetatuta. Berritasun nagusia da legearen titulu horretan lanbide-heziketako zentroak sartu izana. Hezkuntza-sektore hori ez zen kontuan hartzen aurreko lege-testuan.

VIII. titulua kirol-teknikarien prestakuntzari, ikerketari eta berrikuntzari buruzkoa da. Orain arte indarrean zegoen legearekin alderatuta, titulazioen eskakizuna desagertu egin da, arlo hori kirol-lanbideetan sartzeko eta jarduteko lege berriak

deporte.

El título VI, dedicado a las competiciones deportivas y a las licencias, no experimenta grandes transformaciones. Asimismo, se ha matizado la obligatoriedad de los reconocimientos médicos. La ley contempla una habilitación expresa al Gobierno Vasco para establecer reglamentariamente tal obligatoriedad en los supuestos en que se reputa necesario, pero se evita su generalización para la emisión de todo tipo de licencias. Tampoco puede obviarse que la ley sienta las bases para la creación de una ventanilla única de eventos deportivos como punto de información y tramitación electrónica integral de todas las comunicaciones, declaraciones, autorizaciones y licencias que precisan los organizadores de eventos deportivos, que tiene como objetivo facilitar la organización de estos eventos deportivos y crear un entorno más favorable y transparente para el desarrollo de tales actividades.

El título VII presenta varios contenidos. En primer lugar, se ocupa de la actividad física y del deporte en edad escolar con una novedad significativa. En la anterior ley este segmento del deporte se encontraba definido por ir destinado a la población durante el periodo de escolarización obligatoria, es decir, en la franja 6-16 años. Ahora se incorpora el tramo 0-6 años, que merece una especial protección en el ámbito de la salud, fruto del consenso de las instituciones públicas competentes y de los agentes vinculados a este ámbito. El nuevo texto articulado detalla las etapas en edad escolar y las características de cada etapa. La lucha contra la violencia, la intolerancia y la discriminación por cualquier motivo en el deporte y en la actividad física no es una tarea exclusiva de las normas sancionadoras, sino que resulta preciso erradicar tales comportamientos desde la base del sistema deportivo, transmitiendo en la actividad física y en el deporte en estas edades de iniciación los necesarios hábitos de respeto, tolerancia y juego limpio.

Al igual que en la Ley 14/1998, se sigue prestando una especial atención a la actividad física y al deporte en el ámbito universitario desde el respeto a la autonomía universitaria. La gran novedad es la incorporación de los centros de formación profesional a este título de la ley. Se trata de un sector de la educación que era ignorado en el anterior texto legal.

El título VIII se destina a la formación de técnicas y técnicos deportivos, a la investigación y a la innovación. Con relación a la ley hasta ahora vigente, desaparece la exigencia de titulaciones, materia regulada por la nueva ley que regula el acceso y



arautzen baitu. Tituluak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolaren zeregina berrantolatzen du, eta kirol-taldeen koordinazioan sailen arteko lidergoa esleitzen zaio.

IX. tituluak kirolarien laguntza eta babesa arautzen ditu eta goi-mailako kirola arautzen duen titulutik bereizi da. Berritasunik esanguratsuen da lege honetatik aurrera osasun-sistema publikoak emango duela, bere kontura, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren kirol-jardunari lotutako osasun-laguntza. Estatuko eta nazioarteko kirol-lehiaketetako parte-hartzeari lotutako osasun-laguntza baino ez da salbuetsita egongo.

Goi-mailako kirola X. tituluari lantzen da. Erregulazioak orain arte indarrean zegoen araudia hartzen du oinarri, aldaketa gutxirekin. Alde batetik, gobernu-instantzia guztien eskumenak argitu nahi dira titulu horretan eta Eusko Jaurlaritzari ematen zaio protagonismo handiena. Legeak berariaz aitortzen du Basque Team Fundazioak egun betetzen duen zeregina, hots, goi-mailako kirolaren programa batzuei laguntza eman eta horiek kudeatzea.

Bestetik, ahalik eta arau-mailarik handiena eman nahi izan zaio emakume kirolariek haurdunaldian eta ama izatean behar duten babesari, eta ondorio negatiboak galarazi nahi izan dira, hala nola, lehiatu ez izanagatik laguntzak eta dirulaguntzak galtzea. Horiek horrela, kirolariek goi-mailako kirolari gisa dituzten eskubideak gordeko dituzte haurdunaldia igaro eta ama izan ondoren.

Legeak, XI. tituluaren bidez, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko ekipamenduen eta zerbitzuen esparrua lantzen du. Gaur egun beharrezkotzat hartzen ez diren xedapen batzuk kendu egin dira beste arau-tresna batzuetan araututa daudelako, kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen eraikuntza-baldintzei lotutako alderdiei buruzkoak bereziki. Halaber, ikuspegi berriak txertatu dira ekipamendu horien plangintzan.

XII. tituluak, jarduera fisikoari eta kirolari lotutako beste alderdi batzuk gaineratzen dizkio aurreko legegitza-tratamenduak indarkeriaren fenomenoaren prebentzioan ezarritakoari, hala nola edozein arrazoiengatik agertutako intolerantzia eta diskriminazioa. Prebentzioari buruzko titulu hori osatu egiten da fenomeno horiek kirol-arloko diziplina-ikuspegitik eta administrazio-arloko zehapen-ikuspegitik lantzen dituzten legearen tituluekin.

ejercicio de las profesiones del deporte. El título reconfigura el papel de la Escuela Vasca de la Actividad Física y del Deporte, confiriéndole un liderazgo interdepartamental en la coordinación de las formaciones deportivas.

El título IX regula la asistencia y protección de deportistas y se desliga del título que ordena el deporte de alto nivel. La novedad más significativa es que a partir de esta ley la asistencia sanitaria derivada de la práctica deportiva de las ciudadanas y los ciudadanos de la Comunidad Autónoma del País Vasco será prestada por el sistema sanitario público con cargo al mismo. Queda excluida únicamente la asistencia sanitaria derivada de la participación en competiciones oficiales de ámbito estatal e internacional.

El deporte de alto nivel se aborda en el título X. La regulación toma como base la normativa hasta ahora vigente con escasas novedades. Por un lado, trata de clarificar las competencias de las diversas instancias gubernamentales, reservándose el mayor protagonismo para el Gobierno Vasco. La ley reconoce expresamente el papel que desempeña en la actualidad la entidad Fundación Basque Team Fundazioa, que presta asistencia y gestiona algunos programas del deporte de alto nivel.

Por otra parte, se ha tratado de dar el máximo rango normativo a la protección a las mujeres deportistas con ocasión del embarazo y la maternidad, proscribiendo efectos negativos como la pérdida de ayudas y subvenciones bajo el pretexto de no haber competido. Para ello, las deportistas conservarán sus derechos como deportistas de alto nivel una vez transcurrido este periodo de embarazo y maternidad.

La ley aborda mediante el título XI el campo de los equipamientos y servicios de la actividad física y del deporte. Se eliminan algunas previsiones que en la actualidad no se consideran necesarias, por encontrarse reguladas en otros instrumentos normativos, especialmente en todo lo relativo a los requisitos constructivos de los equipamientos deportivos y de actividad física. Asimismo, se incorporan nuevos enfoques en la planificación de tales equipamientos.

El título XII añade al anterior tratamiento legislativo de la prevención ante el fenómeno de la violencia otras manifestaciones que afectan a la actividad física y al deporte, como son la intolerancia y la discriminación por cualquier motivo. Este título que trata la prevención se complementa con los títulos de la ley que abordan tales fenómenos desde la perspectiva disciplinaria deportiva y sancionadora administrativa.



Lege berri honen XIII. titulua kirol-arloko diziplina-araubideari buruzkoa da. Azpimarratu beharreko berritasunen artean, honako hauek ditugu: arau-hauste berrien tipifikazioa, ohiko eta ezohiko prozedurak argitzea, arau-hausteen egiletzaren definizioa hobetzea eta diziplina-erantzukizuna aldatzen duten inguruabarren araubidea, izan ere, erantzukizun hori erantzukizun ia-objektibo gisa konfiguratzeko da, doloa edo errua dagoelako *iuris tantum* presuntzioarekin. Arau-hausteen tipifikazioari dagokionez, nabarmendu beharra dago jardura fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioko ekintzei lotutako arau-hauste berri batzuk txertatu direla bai eta kirol-arloko ustelkeriari, partidetan egindako iruzurrei, apustuei eta abarri lotutako arau-haustek ere tipifikatu direla.

XIV. tituluan jasota dagoen administrazio-arloko zehapen-araubideari dagokionez, arau-hausteen tipifikazioaren arloan kirolaren eta jardura fisikoaren arloko diziplina-araubidean sartutako antzeko doikuntzak egin dira. Halaber, zehatzeko administrazio-ahala une bakoitzean zein administrazio publikok baliatu behar duen argitu nahi izan da. Bestalde, kirol-ikuskapenaren araubidea ere argitu da.

Kirol-arloko justiziarri buruzko XV. tituluari dagokionez, azpimarratu beharra dago kirol-gatazka batzuen administrazio-izaera eta izaera pribatua bereizteko egin den ahalegina, aurkaratze jurisdikzionala araubidea desberdina dela argitzeko helburuarekin. Bestalde, Kirol Justiziako Euskal Batzordea osatzeko baldintzak eta funtzionamendu-araubidea sinplifikatu egin dira.

Xedapen gehigarriek, iragankorrek, indargabetzaileek eta azken xedapenek legearen eraginkortasun egokirako beharrezkoak diren hainbat aurreikuspen biltzen dituzte.

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua

1. Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan kalitatezko jardura fisikoaren eta kirolaren araubide juridikoa eta sustapena arautzea bizitza aktiboaren kultura eraikitzeko, eta, orobat, hori guztia garatzeko beharrezkoak diren baliabideak bermatzea.

Esta nueva ley dedica su título XIII al régimen disciplinario deportivo. Algunas novedades que cabe reseñar son, por ejemplo, la tipificación de nuevas infracciones, la clarificación de los procedimientos ordinarios y extraordinarios, la mejora de la definición de la autoría de las infracciones, el régimen de las circunstancias modificativas de la responsabilidad disciplinaria, que se configura como una responsabilidad cuasi objetiva, con una presunción *iuris tantum* de la existencia de dolo o culpa. Por lo que respecta a la tipificación de infracciones debe llamarse la atención sobre la inclusión de la violencia, la intolerancia y la discriminación por cualquier motivo tanto en el deporte como en la actividad física, así como la tipificación de infracciones relacionadas con la corrupción en el deporte, amañados de partidos, apuestas, etcétera.

En cuanto al régimen sancionador administrativo, que se recoge en el título XIV, se han realizado similares ajustes a los introducidos en el régimen disciplinario deportivo y de la actividad física en materia de tipificación de infracciones. Asimismo, se ha tratado de clarificar qué administración pública debe ejercer en cada momento la potestad administrativa sancionadora. Por otro lado, también se ha clarificado el régimen de la inspección deportiva.

Del título XV, dedicado a la justicia deportiva, cabe resaltar el esfuerzo en diferenciar la naturaleza administrativa y la naturaleza privada de algunos conflictos deportivos con el objetivo de clarificar su diferente régimen de impugnación jurisdiccional. Por otra parte, se simplifican los requisitos de composición y régimen de funcionamiento del Comité Vasco de Justicia Deportiva.

Las disposiciones adicionales, transitorias, derogatorias y finales contienen una serie de previsiones necesarias para la adecuada efectividad de la ley.

TÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación

1. La presente ley tiene por objeto regular el régimen jurídico y la promoción de la actividad física y del deporte de calidad en la Comunidad Autónoma del País Vasco para construir la cultura de la vida activa y garantizar los recursos necesarios para su desarrollo.



2. Lege honen ondorioetarako, kiroltzat joko da jarduera fisiko oro, baldin eta helburu badu, parte-hartze antolatua edo bestelakoaren bidez, osasuna sustatzea, forma fisikoa eta psikikoa adieraztea edo hobetzea, gizarte-harremanak garatzea edo maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzea.
3. Lege honen ondorioetarako, jarduera fisikotzat joko da muskulu eskeletikoek egiten duten eta energia-gastua dakarren gorputz-mugimendu oro.
4. Lege honen eremutik kanpo geratzen dira *e-sportak* edo joko elektronikoak eta antzeko jarduerak arautzea.
5. Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan aplikatuko da. Era berean, kirol-, gizarte- eta kultura-arloko harremanak daudela kontuan izanda, Euskal Autonomia Erkidegoko botere publiko eta kirol-erakundeak Nafarroako eta Iparraldeko botere publiko eta kirol-erakundeekin lankidetzan aritu ahal izango dira, lege honetan araututako jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak garatzeko.

2. artikulua. Printzipio gidariak, legearen helburuak eta jarduteko irizpideak

1. Jarduera fisikoa eta kirola interes publikoko gizarte-jarduerak dira, eta pertsonen prestakuntzan eta garapen integralean, pertsonen osasunaren eta bizi-kalitatearen mantentzean edo hobekuntzan eta ongizate indibidual eta sozialean laguntzen dute.
2. Pertsona guztiei aitortzen zaie jarduera fisikoa eta kirola askatasun osoz eta borondatez egiteko eskubidea, eta botere publikoek eskubide hori benetan gauzatzeko baliabide egokiak ezartzeko betebeharra izango dute.
3. Euskal botere publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduera fisikoa eta kirola egiteko eskubidea benetan gauzatzeko politika bat ezarriko dute, honako printzipio gidari hauei jarraikiz:
 - a) Jarduera fisikoaren eta kirolaren benetako presentzia hezkuntza-sisteman eta lan- eta familia-esparruan, bizi-ohitura osasungarriak sustatuz eta

2. A los efectos de esta ley se entenderá por deporte todo tipo de actividades físicas que, mediante una participación, organizada o de otro tipo, tengan por finalidad la expresión o la mejora de la condición física y psíquica, el desarrollo de las relaciones sociales o el logro de resultados en competiciones de todos los niveles.
3. A los efectos de esta ley se entenderá por actividad física cualquier movimiento corporal producido por los músculos esqueléticos que exija gasto de energía.
4. Queda fuera del ámbito de la presente ley la regulación de los *e-sports* o juegos electrónicos y cualesquiera actividades análogas.
5. La presente ley será de aplicación en todo el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Asimismo, teniendo en cuenta las relaciones deportivas, sociales y culturales existentes, los poderes públicos y las entidades deportivas de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrán colaborar con los poderes públicos y las entidades deportivas de Navarra e Iparralde para el desarrollo de actividades físicas y deportivas reguladas en esta ley.

Artículo 2. Principios rectores, fines de la ley y criterios de actuación

1. La actividad física y el deporte constituyen actividades sociales de interés público que contribuyen a la formación y al desarrollo integral de las personas, al mantenimiento o la mejora de su salud y calidad de vida y al bienestar individual y social.
2. Se reconoce el derecho de todas las personas a la práctica de la actividad física y del deporte de forma libre y voluntaria, y los poderes públicos tendrán la obligación de establecer los medios adecuados para la efectividad de aquel.
3. Los poderes públicos vascos, en el ámbito de sus respectivas competencias, adoptarán una política dirigida a la efectividad del derecho a la actividad física y al deporte de acuerdo con los siguientes principios rectores:
 - a) La efectiva presencia de la actividad física y del deporte en el sistema educativo y en el ámbito laboral y familiar, fomentando hábitos saludables de vida y luchando contra el sedentarismo y la obesidad.



sedentarismoaren eta obesitatearen aurka jardunez.

- | | | | |
|----|---|----|---|
| b) | Programa bereziak onartu eta gauzatzea jarduera fisikoa eta kirola gizarte-sektore guztietara zabaltzeko, bereziki, egoerarik ahulenean daudenetara. | b) | La aprobación y ejecución de programas especiales para la extensión de la práctica de la actividad física y del deporte a todos a los sectores sociales, especialmente a los más desfavorecidos. |
| c) | Oztopo guztiak kentzea pertsona guztiak jarduera fisikoan eta kirolean, benetan, berdintasun-baldintzetan edo ekitatez aritzeko. | c) | La remoción de todos los obstáculos que impidan la incorporación real y efectiva de todas las personas a la actividad física y al deporte en igualdad de condiciones o con equidad. |
| d) | Jarduera fisikoa eta kirola sustatzea edonolako desgaitasuna duten herritarrengan. | d) | El fomento de la actividad física y del deporte entre la ciudadanía que padezca cualquier tipo de discapacidad. |
8. Las federaciones deportivas vascas podrán desarrollar un marco vasco de competición en colaboración con la dirección de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva.

Artículo 34. Estatutos

1. Los estatutos de las federaciones deportivas deberán regular, como mínimo, los siguientes extremos:
 - a) Denominación y fines.
 - b) Domicilio social.
 - c) Modalidad y disciplinas deportivas.
 - d) Estructura orgánica.
 - e) Sistema de elección y cese de las personas titulares de los órganos federativos.
 - f) Régimen de organización territorial en el caso de las federaciones vascas.
 - g) Régimen de funcionamiento en general y, en particular, adopción de acuerdos de sus órganos colegiados.
 - h) Régimen económico-financiero.
 - i) Régimen documental.
 - j) Régimen disciplinario deportivo.
 - k) Régimen de extinción y disolución.



- | | |
|--|--|
| <p>l) Estatutuak eta erregelamenduak onartzeko eta aldatzeko prozedura.</p> <p>2. Kirol-federazioen gobernu, administrazio eta ordezkaritzako ezinbesteko organoak izango dira batzar nagusia, zuzendaritza-batzordea, lehendakaritza eta estatutuetan aurreikusitako beste edozein organo.</p> <p>3. Batzar nagusia kirol-federazioen gobernu-organoren goren izango da. Bertan, kirol-klubak, kirol-elkarteak eta kapitaleko kirol-sozietateak baino ez dira ordezkaturik egongo. Kirol-federazioen estatutuek adierazitako erakunde horien boto-haztapen bat ezarriko dute, federazio-lizentzien kopurua, kirol- eta lehiaketa-esparruko benetako jardura eta hala badagokio erregelamendu bidez arautu beharreko beste datu objektibo batzuk kontuan hartuta. Horretarako, eskola-adineko kirol-lizentziak aintzat hartuko dira.</p> <p>Era berean, parte-hartzea banakakoa bakarrik den kirol-modalitateetan eta, gainera, kirol-lizentziak klubetatik kanpora dauden kirolariak zuzenean ematen zaizkienean, kirolarien estamentuak osatu ahal izango du batzar nagusia, erregelamendu bidez zehazten den moduan.</p> <p>4. Zuzendaritza-batzordea administrazio-organoren goren izango da, batzar nagusiak hautatu beharko du zerrenda itxien bidez eta federazio-estamentu guztietako ordezkariak bildu beharko ditu. Ezin izango dira aldi berean bete kirol-modalitate bereko euskal federazio bateko eta lurralde-federazio bateko zuzendari-karguak, lurralde-federazio bateko lehendakariaren kasuan izan ezik.</p> <p>5. Lehendakaritza federazioaren organoren goren izango da eta ordezkaritzakoa izango da, haren lege-ordezkaritza izango du, administrazio- eta gobernu-organoren buru izango da eta haien erabakiak betearaziko ditu. Hautaketa boto aske eta sekretu bidez egingo da, baita boto haztatua bidezkoa denean ere. Ezin izango da, inola ere, aldi berean federazio bateko eta kirol-klub, kirol-elkarte edo kapitaleko kirol-sozietate bateko lehendakaria izan.</p> | <p>l) Procedimiento para la aprobación y reforma de sus estatutos y reglamentos.</p> <p>2. Son órganos de gobierno, administración y representación de las federaciones deportivas, con carácter necesario, la asamblea general, la junta directiva y la presidencia, además de cualesquiera otros órganos que puedan preverse en sus estatutos.</p> <p>3. La asamblea general es el máximo órgano de gobierno de las federaciones deportivas. En ella estarán representados únicamente los clubes deportivos, las agrupaciones deportivas o las sociedades deportivas de capital. Los estatutos de las federaciones deportivas establecerán una ponderación de voto de las citadas entidades en función del número de licencias federativas, de la actividad efectiva en el ámbito deportivo-competitivo y de otros datos objetivos que, en su caso, se regularán reglamentariamente. Se computarán a estos efectos las licencias de deporte en edad escolar.</p> <p>Asimismo, en aquellas modalidades deportivas de participación exclusivamente individual y en las que, además, las licencias sean expedidas directamente a deportistas al margen de los clubes, la asamblea general podrá estar conformada por el estamento de deportistas en los términos que reglamentariamente se determinen.</p> <p>4. La junta directiva será el órgano de administración que deberá ser elegida mediante listas cerradas por la asamblea general y deberá incluir representantes de todos los estamentos federativos. No se podrá ostentar simultáneamente el cargo de directivo o directiva de una federación vasca y de una federación territorial de la misma modalidad deportiva, salvo el supuesto de las personas que ostenten la presidencia de una federación territorial.</p> <p>5. La presidencia será el órgano ejecutivo y de representación de la federación, ostenta su representación legal, preside los órganos de administración y gobierno y ejecuta los acuerdos de ambos. La elección se realizará mediante sufragio libre y secreto, incluso cuando proceda el voto ponderado. En ningún caso se podrá ser simultáneamente presidente o presidenta de una federación y de un club deportivo, agrupación deportiva o sociedad deportiva de capital.</p> |
|--|--|



6. Kirol-federazioen organoak hautatzeko hauteskunde-prozesuak beren hauteskunde-erregelamenduari jarraikiz egingo dira, dagozkion epeen barruan eta, hala badagokio, Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailak horretarako duen araudiaren arabera.

35. artikulua. Kirol-modalitate eta -azpimodalitateen aitortzea

1. Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailak, Euskal Autonomia Erkidegoan kirola antolatzeke beharri dagozkion interes publikoko arrazoiak direla tarteko, kirol-modalitate berri bat eta haren barrukotzat hartu beharreko azpimodalitateak kalifikatzeko irizpideak eta baldintzak finkatuko ditu. Halaber, aurrez kirol-modalitateetat hartu zen baina halakotzat hartzea eragin zuten baldintzak betetzen ez dituen kirol-jardueraren kasuan, kirol-modalitatearen kalifikazioa errebokatu ahal izango du.
2. Nolanahi ere, kirol-modalitate eta kirol-azpimodalitate berriak aitortzeko, beharrezkoa izango da jarduera fisiko esanguratsu bat izatea. Irizpide horrek ez du eraginik izango lege hau indarrean jarri aurretik kirol-modalitateei emandako aitorten ofizialean, modalitate horiek jarduera fisiko esanguratsuen baldintza betetzen ez badute ere.
3. Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen saileko sailburuari dagokio jarduera bat kirol-modalitate gisa kalifikatzea eta modalitate hori osatzen duten azpimodalitateak zehaztea, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren eta foru-aldundien txostena jaso ondoren.

36. artikulua. Euskal federaziorik ez

Kirol-modalitate jakin batean euskal federaziorik ez badago, Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailak kirol-modalitate bereko lurralde-federazio bat, Euskal Kirol Federazioen Batasuna edo beste edozein kirol-erakunde gaitu ahal izango du, gehienez ere bi urterako eta behin edo gehiagotan, euskal federazioen berezko funtzio publikoak bere gain har ditzan.

6. Para la elección de sus órganos, las federaciones deportivas realizarán sus procesos electorales de acuerdo con su propio reglamento electoral, dentro de los plazos y de acuerdo con la normativa que a tal efecto disponga, en su caso, el departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva.

Artículo 35. Reconocimiento de modalidades y disciplinas deportivas

1. El departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva, por razones de interés público inherentes a la necesidad de ordenar el deporte en el País Vasco, determinará los criterios y condiciones a cuyo tenor podrá calificar una nueva modalidad deportiva y aquellas disciplinas que habrán de considerarse integrantes de esa modalidad deportiva. Asimismo, podrá revocar la calificación de modalidad deportiva de aquella actividad que no cumpla los requisitos que motivaron su reconocimiento.
2. En cualquier caso, será requisito para el reconocimiento de nuevas modalidades y disciplinas deportivas la existencia de una actividad física significativa. Tal criterio no afectará al reconocimiento oficial otorgado a modalidades deportivas con anterioridad a la entrada en vigor de la ley, aunque no cumplan el requisito de la actividad física significativa.
3. Corresponde al consejero o consejera del departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva calificar una actividad como modalidad deportiva y determinar las disciplinas que la integran, previo informe del Consejo Vasco de la Actividad Física y del Deporte y de las diputaciones forales.

Artículo 36. Inexistencia de federaciones vascas

Si en una determinada modalidad deportiva no existe federación vasca, el departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva podrá habilitar por un período máximo de dos años, con carácter renovable, a una federación territorial de la misma modalidad deportiva, a la Unión de Federaciones Deportivas Vascas o a cualquier otra entidad deportiva para la asunción de funciones públicas propias de las federaciones vascas.



37. artikulua. Kirol-federazioak eratzea

1. Kirol-federazio bat onartzeko arrazoiak honako hauek izan daitezke:
 - a) Sortu berria izatea.
 - b) Beste batetik bereiztea.
 - c) Lehendik zeuden bik edo gehiagok bat egitea.
2. Euskal kirol-federazioak eratzeko, Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen administrazioaren onarpena beharko da. Onarpen hori honako irizpide hauen arabera eman edo ezetsiko da:
 - a) Jardueraren interes publikoa.
 - b) Jardueraren ezarpen-maila nahikoa.
 - c) Kirol-modalitatea ofizialki aitortuta egotea.
 - d) Federazio berriaren bideragarritasun ekonomikoa.
 - e) Federazio berriaren antolamendu-ahalmena.
3. Euskal kirol-federazio bat eratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:
 - a) Sortze-akta eta estatutuak erregelamenduz ezarritako baldintzetan aurkeztea.
 - b) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren txostena.
 - c) Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailak onarpena ematea.
 - d) Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzea.
4. Lurraldeko kirol-federazio bat eratu ahal izango da, soilik, aurrez azkendu eta birfundatzen bada.

Artículo 37. Constitución de federaciones deportivas

1. El reconocimiento de una federación deportiva se puede producir:
 - a) Por nueva creación.
 - b) Por segregación de otra.
 - c) Por la fusión de dos o varias preexistentes.
2. Para la constitución de federaciones deportivas vascas se requerirá la aprobación administrativa de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva, que la concederá o denegará según los siguientes criterios:
 - a) Interés público de la actividad.
 - b) Suficiente implantación de la actividad.
 - c) Existencia de modalidad deportiva oficialmente reconocida.
 - d) Viabilidad económica de la nueva federación.
 - e) Capacidad organizativa de la nueva federación.
3. La constitución de una federación deportiva vasca estará supeditada al cumplimiento de los siguientes requisitos:
 - a) Presentación del acta fundacional y de los estatutos en los términos que se establezcan reglamentariamente.
 - b) Informe del Consejo Vasco de la Actividad Física y del Deporte.
 - c) Aprobación por el departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva.
 - d) Inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.
4. La constitución de una federación deportiva territorial solo será posible en el supuesto de previa extinción y posterior refundación. Tal



Nolanahi ere, honako baldintza hauek bete beharko dira hura eratu ahal izateko:

- a) Sortze-akta eta estatutuak erregelamenduz ezarritako baldintzetan aurkeztea.
- b) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren txostena.
- c) Dagokion foru-aldundiak onarpena ematea.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzea.

38. artikulua. Aitorpen ofiziala eta eskusibotasuna. Desgaitasuna duten kirolariak biltzen dituzten kirol-federazioak

- 1. Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, euskal federazio bakarra aitortu ahal izango da kirol-modalitate bakoitzeko. Halaber, lege honek baimentzen dituen modalitateetan, lurralde-federazio bakarra aitortu ahal izango da lurralde historiko bakoitzean kirol-modalitate bakoitzeko. Era beran, kirol-azpimodalitate bakoitza kirol-modalitate bakar batean sartuta egon ahal izango da.
- 2. Arau orokor horretatik salbuetsita daude desgaitasuna duten kirolariak biltzen dituzten kirol anitzeko federazioak.
- 3. Kirol-arloan eskumena duten Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko zuzendaritzak eta lurralde historikoetako foru-organismoek desgaitasuna duten kirolariak dagokion kirol-modalitateko kirol-federazioetan pixkanaka integratzea eta haien inklusio progresiboa bultzatuko dituzte, desgaitasun motaren bat duten pertsonen kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko aukera gauzatu dadin modalitateari edo azpimodalitateari dagokion federazioaren esparruan.
- 4. Kirol-federazioek desgaitasuna duten pertsonen kirol-federazioetan bildutako kirol egokituaren modalitateak benetan integratu beharko dituzte nahitaez, integrazio hori Estatuan eta nazioartean dagozkion kirol-federazioen esparruan egin bada. Integrazio hori jatorriko eta helburuko federazioen batzar nagusiek berretsi beharreko akordio baten bitartez gauzatuko da.

constitución estará supeditada al cumplimiento de los siguientes requisitos:

- a) Presentación del acta fundacional y de los estatutos en los términos que se establezcan reglamentariamente.
- b) Informe del Consejo Vasco de la Actividad Física y del Deporte.
- c) Aprobación por la diputación foral correspondiente.
- d) Inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

Artículo 38. Reconocimiento oficial y exclusividad. Federaciones deportivas con deportistas con discapacidad

- 1. Solo podrá reconocerse dentro del ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco una federación vasca por cada modalidad deportiva. Asimismo, solo podrá reconocerse por cada modalidad deportiva una federación territorial en cada territorio histórico en aquellas modalidades que esta ley permita. Del mismo modo, cada disciplina deportiva solo podrá pertenecer a una modalidad deportiva.
- 2. Se exceptúan de esta regla general las federaciones polideportivas que agrupan a deportistas con discapacidad.
- 3. La dirección de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva y los órganos forales de los territorios históricos competentes en materia deportiva favorecerán la progresiva integración e inclusión de las personas deportistas con discapacidad en las federaciones deportivas de la modalidad que corresponda, de modo que la participación en competiciones deportivas oficiales de las personas con algún tipo de discapacidad se materialice en el ámbito de la federación en la que se integre la modalidad o disciplina.
- 4. Las federaciones deportivas deberán proceder obligatoriamente a una efectiva integración de las modalidades de deporte adaptado incluidas en las federaciones deportivas para personas con discapacidad cuando dicha integración se haya producido en el ámbito de las correspondientes federaciones deportivas estatales e internacionales. Tal integración se plasmará a través de un acuerdo que deberá ser



Era berean, desgaitasuna duten kirolariak dagokion kirol-modalitateko kirol-federazioetan sartu aurretik, inklusio-protokoloa onartu beharko da, Kirol Egokituaren Euskal Federazioak egindako proposamena oinarri hartuta.

5. Integrazio horretan ziurtatuko da desgaitasuna duten pertsonen kiroleko ordezkariak presentzia haztatua dutela dagokion kirol-federazioko kide anitzeko organoetan.
6. Aurreko paragrafoetan aurreikusitako integrazioa gauzatzen ez den bitartean, desgaitasuna duten pertsonentzako kirol-federazioek beren estatutuetan jasota dauden kirol-modalitate eta -azpimodalitateak garatuko dituzte, hargatik eragotzi gabe gainerako kirol-federazioekin lizentziak elkarri aitortzeko sistemak ezartzeko aukera.

39. artikulua. Administrazio-funtzio publikoak

1. Kirol-federazioek honako administrazio-funtzio publiko hauek beteko dituzte:
 - a) Lehiaketa ofizialak kalifikatzea, antolatzea eta baimentzea.
 - b) Federazio-lizentziak ematea, ukatzea, ezerezte eta antzekoak egitea.
 - c) Federazioen hauteskunde-prozesuak kontrolatzea.
 - d) Kirol-arloko diziplina-ahala baliatzea.
 - e) Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenak betearaztea.
 - f) Administrazio publikoarekin batera parte hartzea eta elkarlanean aritzea kirol-programak garatzen, batez ere goi-mailako kirolarientzako programetan, etorkizun handiko kirolarientzako

ratificado por las asambleas generales de las federaciones de origen y destino.

Asimismo, con carácter previo a la integración de las personas deportistas con discapacidad en las federaciones deportivas de la correspondiente modalidad, deberá aprobarse el protocolo de inclusión con base en la propuesta elaborada por la Federación Vasca de Deporte Adaptado.

5. En dicha integración se asegurará la presencia ponderada de representantes del deporte de personas con discapacidad en los órganos colegiados de la correspondiente federación deportiva.
6. En tanto no se produzca la integración prevista en los párrafos anteriores, las federaciones de deportes para personas con discapacidad desarrollarán las modalidades y disciplinas deportivas que estén contempladas en sus estatutos, con independencia de que puedan establecer sistemas de reconocimiento mutuo de licencias con el resto de las federaciones deportivas.

Artículo 39. Funciones públicas de carácter administrativo

1. Las federaciones deportivas ejercerán las siguientes funciones públicas de carácter administrativo:
 - a) La calificación, ordenación y autorización de las competiciones oficiales.
 - b) La emisión, denegación, cancelación, suspensión y actos análogos relativos a las licencias federativas.
 - c) El control de los procesos electorales federativos.
 - d) El ejercicio de la potestad disciplinaria deportiva.
 - e) La ejecución de las resoluciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva.
 - f) La participación y colaboración con la Administración pública en el desarrollo de sus programas deportivos, en especial en los programas dirigidos a deportistas de alto nivel, en los programas para deportistas promesas y en los programas



programetan eta eskola-adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan.	de actividad física y deporte en edad escolar.
g) Beren estatutuak eta lege hau garatzeko xedapenetan zehazten diren erregelamenduak onartzea.	g) La aprobación de sus estatutos y de aquellos reglamentos que se definan en las disposiciones de desarrollo de esta ley.
h) Euskal kirolaren ordezkaritza antolatzea Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan.	h) La ordenación de la representación del deporte vasco en las competiciones estatales e internacionales.
i) Erregelamendu bidez eskuordetu daitekeen beste edozein funtzio publiko.	i) Cualesquiera otras funciones públicas que puedan ser objeto de delegación por vía reglamentaria.
2. Kirol-arloan eskumena duten administrazio publikoek beharrezkoak diren finantzaketa eta baliabideak eman beharko dizkiete kirol-federazioei aurreko atalean zerrendatutako funtzio publikoak eta lege honen ondoriozko betebeharrak guztiak behar bezala betetzen direla bermatzeko.	2. Las administraciones públicas con competencias en la materia deben dotar a las federaciones deportivas de la financiación y de los recursos necesarios para garantizar el adecuado ejercicio de las funciones públicas delegadas enumeradas en el apartado anterior y de todas las obligaciones derivadas de la presente ley.
3. Kirol-federazioek ezin izango dituzte ezein kasutan eskuordetu beren esku utzitako funtzio publikoak administrazio eskudunak hala baimendu gabe.	3. En ningún caso las federaciones deportivas podrán delegar, sin autorización de la administración competente, el ejercicio de las funciones públicas encomendadas.
4. Lurralde-federazioek eta euskal federazioek beren funtzioak beteko dituzte, hurrenez hurren, kirol-arloko eskumena duten lurralde historikoetako foru-organismoekin eta Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailarekin lankidetzan.	4. Las federaciones territoriales y vascas desarrollarán sus funciones en colaboración, respectivamente, con los órganos forales de los territorios históricos y con el departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competentes en materia deportiva.
5. Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailaren eta lurralde historikoetako foru-organismoen kontrolatik kanpo geratuko da administrazio-funtzio publikoak betetzeko egiten den eta lege honetan aurreikusitakoaren arabera Kirol Justiziako Euskal Batzordeak kontrola dezakeen federazio-jardura.	5. Quedará fuera del control del departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva y de los órganos forales de los territorios históricos la actividad federativa realizada en el ejercicio de funciones públicas de carácter administrativo que resulte controlable por el Comité Vasco de Justicia Deportiva en los términos previstos de esta ley.
6. Honako federazio-jardura hauek, betiere, pribatuak izango dira:	6. Tiene naturaleza privada, en todo caso, la siguiente actividad federativa:
a) Federazio-organismoek federazioaren antolamenduaren inguruan har ditzaketen erabakiak eta neurriak.	a) Los acuerdos y medidas que puedan adoptar los órganos federativos en relación con la organización de la federación.
b) Lehiaketaren antolaketari, inskripzioei, jaitsierei, igoerei eta haien ondoriozko	b) Las cuestiones relativas a la organización de la competición, inscripciones, descensos, ascensos y demás vicisitudes



gainerako gorabeherak, diziiplina-gaiak izan ezik.

- c) Federazioaren barruko antolamendu-funtzionamenduaren inguruan sor daitezkeen gatazkak, hargatik eragotzi gabe hauteskunde-prozesuen kontrolari buruz aurreikusitakoa.
- d) Mota orotako kirol-lehiaketek ustiapen ekonomikoaren inguruan sor daitezkeen gatazkak.
- e) Lehiaketek antolaketak materialaren inguruan federazioek pertsona fisiko eta juridikoekin egiten dituzten hitzarmen eta kontratuak.

40. artikulua. Federazioekiko atxikipena

1. Pertsona fisikoak eta juridikoak kirol-federazioetan sartzeko, dagokion federazio-lizentzia emango da.
2. Pertsona fisikoak eta juridikoak kirol-federazioetan sartuta egotea ezinbesteko baldintza izango da lehiaketa federatu ofizialetan parte hartzeko.
3. Kirol-modalitate bakoitzeko federazio-lizentzia bakarra egongo da Euskal Autonomia Erkidegoan eta, lurralde-federazioa baldin badago, lizentziaren titularrak dagokion modalitateko lurralde-federazioari eta euskal federazioari atxikita egongo dira.

41. artikulua. Euskal federazioak goragoko lurralde-eremuko federazioetan sartzea

Euskal federazioak goragoko eremuko kirol-federazioetan sartu ahal izango dira. Nolanahi ere, eta parte-hartze hori bermatzeko, beti errespetatuko da Euskal Autonomia Erkidegoan federatutako pertsona fisiko edo juridikoen eskubidea, nahi izanez gero, goragoko lurralde-eremuko kirol-federazioetan sartzeko, euskal federazioek erabakitzen badute federazio horietan ez sartzea.

42. artikulua. Esku hartzeko ahalmenak

1. Euskadiko eta lurraldeetako kirol-federazioen esku utzitako funtzio publikoak benetan betetzen direla bermatzeko, Autonomia Erkidegoko

derivadas de aquellas, salvo los asuntos disciplinarios.

- c) Los conflictos que puedan surgir en relación con el funcionamiento organizativo interno de la federación, sin perjuicio de lo previsto sobre el control de los procesos electorales.
- d) Los conflictos que puedan surgir en relación con la explotación económica de las competiciones deportivas de toda índole.
- e) Los convenios y contratos que realicen las federaciones con personas físicas y jurídicas en relación con la organización material de las competiciones.

Artículo 40. Adscripción federativa

1. La integración de las personas físicas y jurídicas en las federaciones deportivas se producirá mediante la expedición de la correspondiente licencia federativa.
2. La integración de las personas físicas y jurídicas en las federaciones deportivas es requisito necesario para la participación en competiciones federadas oficiales.
3. La licencia federativa en cada modalidad deportiva será única en el País Vasco y, en el caso de existencia de federación territorial, supondrá la doble adscripción de su titular a la federación territorial y vasca de la correspondiente modalidad.

Artículo 41. Integración de las federaciones vascas en federaciones de ámbito territorial superior

Las federaciones vascas podrán integrarse en las correspondientes federaciones deportivas de ámbito superior. En cualquier caso, y al objeto de garantizar dicha participación, siempre se respetará el derecho de las personas físicas o jurídicas federadas en el País Vasco a integrarse voluntariamente en dichas federaciones deportivas de ámbito territorial superior en el supuesto de que las federaciones vascas acuerden la no integración en dichas federaciones.

Artículo 42. Facultades de intervención

1. Con el fin de garantizar el cumplimiento efectivo de las funciones públicas encomendadas a las federaciones deportivas vascas y territoriales, el



Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailak eta kirol-arloko eskumena duten lurralde historikoetako foru-organismoek, beren eskumenen esparruan, honako jarduketak hauek egin ahal izango dituzte, betiere, inolako zehapen-izaerarik gabeko jarduketak badira:

- a) Federazioen liburu eta dokumentuak ikuskatzea.
- b) Kide anitzeko organismoen egitea eskuordetutako funtzio publikoekin zuzenean edo zeharka lotutako gai guztiak eztabaidatzeko eta ebazteko, aurretik dei egin ez bazaie.
- c) Kautelaz eta modu arrazoituan, kide anitzeko organismoetako lehendakaria eta gainerako kideak kargutik kentzea, baldin eta kide horien aurka diziiplina-espedita bat hasten bada eskuordetutako funtzio publikoekin zuzenean edo zeharka lotutako administrazio- eta diziplinako ustezko arau-hauste astunen edo oso astunen ondorioz.
- d) Kautelaz eta modu arrazoituan, gobernu-organismoetako lehendakaria eta gainerako kideak kargutik kentzea, baldin eta eskuordetutako funtzio publikoak betetzeari uzten badiote.
- e) Kontabilitatearen eta kudeaketaren auditoretzak edo beste fiskalizazio mota batzuk egin daitezela eskatzea.
- f) Lege honetan araututako beste kirol-erakunde batzuk administrazio-funtzio publiko jakin batzuk betetzeko behin-behinean gaitzea, baldin eta funtzio publiko horien garapena bermatzeko aparteko premia larria badago.
- g) Eskuordetutako funtzio publikoak behar bezala betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren kautelazko beste edozein neurri hartzea.

2. Kirol-federazioen kide anitzeko organismoetako lehendakaria eta gainerako kideak kargutik kentzen diren kasuan, kirol-arloan eskumena

departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva y los correspondientes órganos forales de los territorios históricos podrán llevar a cabo, en el ámbito respectivo de sus competencias, las siguientes actuaciones, que en ningún caso tendrán naturaleza sancionadora:

- a) Inspeccionar los libros y documentos federativos.
- b) Convocar a los órganos colegiados para el debate y resolución de todas las cuestiones relacionadas directa o indirectamente con el ejercicio de funciones públicas delegadas cuando aquellos no hayan sido convocados.
- c) Suspender motivadamente, de forma cautelar, a la presidenta o al presidente y al resto de miembros de los órganos colegiados cuando se incoe contra ellos expediente como consecuencia de presuntas infracciones administrativas y disciplinarias de carácter grave o muy grave relacionadas directa o indirectamente con el ejercicio de funciones públicas delegadas.
- d) Suspender motivadamente, de forma cautelar, a la presidenta o presidente y al resto de miembros de los órganos de gobierno en los supuestos de abandono en el cumplimiento de las funciones públicas delegadas.
- e) Exigir que la contabilidad y la gestión se sometan a auditorías u otros tipos de fiscalización.
- f) Habilitar provisionalmente para el ejercicio de determinadas funciones públicas de carácter administrativo a otras entidades deportivas reguladas en esta ley, en caso de extraordinaria y urgente necesidad, para garantizar el desarrollo de esas funciones públicas.
- g) Adoptar cualesquiera otras medidas cautelares que resulten necesarias para garantizar el correcto ejercicio de las funciones públicas delegadas.

2. En los supuestos de suspensión de la presidencia y de los demás miembros de los órganos colegiados de las federaciones deportivas, el



du ten Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailak eta lurralde historikoetako dagozkion foru-organismoek behin-behinean kontu-hartzaileak izendatu ahal izango dituzte.

43. artikulua. Gobernantza onaren kodea

1. Kirol-federazioek gobernantza onaren kode bat onartu beharko dute eta, bertan jasoko dira integritatearen, gardentasunaren, berdintasunaren, ekitatearen eta gizarte-inklusioren balioak eta gobernantza onaren kontzeptuari lotuta dagoen beste edozein balio. Kode horretan, bereziki, beharrezkoa izango da:
 - a) Federazioek egiten dituzten transakzio ekonomiko guztien kudeaketari eta kontrolari lotutako arauak biltzea, aipatutako federazioak nagusiki laguntza publikoen bidez finantzatuta dauden ala ez kontuan hartu gabe.
 - b) Federazio-organismoen osaeraren eta funtzionamenduaren arloko jarduketak hobetzeko irizpideak ezartzea.
 - c) Interes-gatazkak aurreikustea eta identifikatzea.
 - d) Edozein motatako legez kanpoko ekintzak prebenitzea.
 - e) Jarduera garatzeko egitura garden eta antolatuta bat ezartzea.
 - f) Genero-ikuspegia txertatzea.
 - g) Kirol egokiturako egitura eta programa espezifikoak sartzeara.
2. Kode hori onartzea eta betetzea kontuan hartu beharreko lehentasunezko irizpide bat izango da kirol-arloan eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailak kirol-federazioei eman diezazkiekeen laguntza publikoetan.
3. Gobernantza onaren kodean honako gutxienezko eduki hauek arautuko dira:
 - a) Federazioan kargu bat betetzeagatik jasotzen diren datu eta informazio guztiak

departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva y los respectivos órganos forales de los territorios históricos podrán nombrar provisionalmente interventoras o interventores.

Artículo 43. Código de buena gobernanza

1. Las federaciones deportivas deberán aprobar un código de buena gobernanza en el que se recojan los valores de integridad, transparencia, igualdad, equidad, inclusión social y cualesquiera otros valores comúnmente vinculados al concepto de buena gobernanza. Tal código especialmente deberá:
 - a) Recoger aquellas reglas que afectan a la gestión y control de todas las transacciones económicas que efectúen, independientemente de que las citadas federaciones estén financiadas o no mayoritariamente con ayudas públicas.
 - b) Establecer los criterios para mejorar las actuaciones en materia de composición y funcionamiento de los órganos federativos.
 - c) Prever e identificar los conflictos de intereses.
 - d) Prevenir los ilícitos de cualquier clase.
 - e) Establecer una estructura transparente y organizada en el desarrollo de la actividad.
 - f) Incorporar la perspectiva de género.
 - g) Incorporar estructuras y programas específicos al deporte adaptado.
2. La aprobación y el cumplimiento de dicho código constituirá un criterio preferente a tener en cuenta en las ayudas públicas que el departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva pueda conceder a las federaciones deportivas.
3. En el código de buena gobernanza se regularán los siguientes contenidos mínimos:
 - a) Mantenimiento en secreto de cuantos datos o informaciones se reciban por el



	sekretuan gordetzea; datu eta informazio horiek ezin izango dira norberaren, hirugarren pertsonen edo lotutako erakundeen onurarako erabili.		desempeño de un cargo en la federación, no pudiendo utilizarlos en beneficio propio o de terceras personas o entidades vinculadas.
b)	Federazioaren ondarea behar ez bezala erabiltzeko debekua eta federazioko kargu jakin bat baliatuta ondare-abantailak lortzeko debekua.	b)	Prohibición de uso indebido del patrimonio federativo y de valerse de una determinada posición federativa para obtener ventajas patrimoniales.
c)	Federazioko kide izateagatik ezagutzen diren negozio-aukerak norberaren onurarako baliatzeko debekua.	c)	Prohibición de aprovechamiento personal de las oportunidades de negocio que se conozcan por su condición de miembro de la federación.
d)	Legearen, estatutuen eta erregelamenduen edota federazioaren interesaren kontrako erabakiei aurka egiteko betebeharra.	d)	Deber de oposición a los acuerdos contrarios a la ley, a los estatutos y reglamentos o al interés federativo.
e)	Dagozkion kontabilitate-idazpenak federazioko kideen esku jartzea, betiere horretarako eskaera arauz ezarritako bidetik egiten bada.	e)	Puesta a disposición de las miembros y los miembros de la federación de los apuntes contables correspondientes, siempre que ello sea requerido por el conducto reglamentario establecido.
f)	Batzarreko kideekin, zuzendaritzako langileekin, teknikariek eta administrazioko langileekin kontratuak izenpetzeko debekua, kontratu horien suntsiarazpen-klausuletan aurreikusten diren kalteordainak indarreko lan-legeriak nahitaezko gisa ezarritakoak baino handiagoak badira.	f)	Prohibición de suscripción de contratos con miembros de la asamblea, personal directivo, técnico y administrativo, cuyas cláusulas de resolución se sometan a indemnizaciones superiores a las establecidas como obligatorias por la legislación laboral vigente.
g)	Aldizka dokumentatzea federazioak bere organoetako kideekin edo haiei lotutako hirugarrenekin egiten dituen transakzio ekonomikoen bolumena.	g)	Documentar periódicamente el volumen de transacciones económicas que la federación mantenga con las miembros y los miembros de sus órganos o con terceros vinculados a ellos.
h)	Administrazio-organoetako kideek, agintaldi bakoitzaren hasieran eta amaieran, federazioan enplegatutako senideei buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko betebeharra.	h)	Obligación de las miembros y los miembros de los órganos de administración de presentar, al inicio y al final de cada mandato, una declaración responsable sobre las personas familiares empleadas en la federación.
i)	Eragiketak baimentzeko sistema bat ezartzea, bertan zehaztuz nork baimendu behar duen eragiketa bakoitza eta zein eragiketek behar duten baimena, eragiketaren zenbatekoa edo izaera kontuan hartuta.	i)	Establecimiento de un sistema de autorización de operaciones donde se determine qué persona o personas deben autorizar cada operación, y qué operaciones precisan de esa autorización por razón de su cuantía o naturaleza.



- j) Beren interes partikularrekoa izan daitekeen edozein gairi buruzko eztabaidetan eta bozketetan parte hartzeko debekua.
4. Garrantzi ekonomiko handieneko kirol-federazioek, halaber, honako betebeharrak izango dituzte:
- a) Federazioek aurkeztu behar duten memoria ekonomikoan, federazioaren gobernu-, administrazio- eta ordezkaritza-organoetako kideei beren funtzioak betetzean sortutako gastuak ordaintzeko edota erakundeari egindako zerbitzuen lantzeri gisa dirutan edo gauzatan emandako ordainsariei buruzko informazioa emateko betebeharra.
- b) Federazioen zuzendaritzako langileek eta kargudunek federazioarekin merkataritza-loturak edo lotura profesionalak dituzten hornitzaileekin edo erakundeekin dituzten kontratu-harremanei, merkataritza-harremanei edo familia-harremanei buruzko informazioa emateko betebeharra.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasun publikoari buruzko legerian aurreikusitako publikitate aktiboko betebeharrak betetzea administrazio-zuzenbideari lotutako funtzioen inguruko arloetan; horretarako, dagokion gardentasun-ataria izan beharko dute beren web-orrian.
- d) Obren, horniduren eta zerbitzuen kontratazioan, prozeduren publikitate, konkurrentzia eta gardentasunaren, hautagaien arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren, eta lehia askearen printzipioei jarraitzea.
5. Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailak finkatuko du zein federazio hartu behar diren garrantzi ekonomikoko federazioak.
- j) Prohibición de intervenir en deliberaciones y votaciones de cualquier cuestión en la que puedan tener interés particular.
4. Aquellas federaciones deportivas de mayor relevancia económica tendrán, asimismo, las siguientes obligaciones:
- a) Obligación de que en la memoria económica que han de presentar las federaciones se dé información de las retribuciones dinerarias o en especie satisfechas a los miembros y los miembros de los órganos de gobierno, administración y representación de la federación, tanto en concepto de reembolso por los gastos que se les hayan ocasionado en el desempeño de su función como en concepto de remuneraciones por los servicios prestados a la entidad.
- b) Obligación del personal directivo y cargos federativos de suministrar información relativa a la existencia de relaciones de índole contractual, comercial o familiar con proveedores o entidades que tengan vínculos comerciales o profesionales con la federación de la que forman parte.
- c) Cumplimiento, en aquellas materias que se correspondan con el ejercicio de las funciones sujetas a derecho administrativo, de las obligaciones de publicidad activa previstas en la legislación sobre transparencia pública del País Vasco y a tal efecto deberán disponer en su página web del correspondiente portal de transparencia.
- d) Sometimiento en la contratación de obras, suministros y servicios a los principios de publicidad, concurrencia y transparencia de los procedimientos, de no discriminación e igualdad de trato entre las candidaturas y de libre competencia.
5. El departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva determinará qué federaciones son consideradas de relevancia económica.



6. Eusko Jaurlaritzak kirol-federazioen ordezkaritza-eta administrazio-organoen agintaldien muga ezarri beharko du erregelamenduz, federazio-erakundeak berritzeko prozesua bermatze aldera.
7. Gobernantza onaren kodeen aplikazioaren jarraipena hirugarren pertsona independenteen edota kirol-erakundearekin edo haren administrazio-organoko kideekin familia-loturarik, lotura ekonomikorik, lotura profesionalik edo antzekorik ez duten pertsonen osatutako barne-organo bati esleitu behar zaio. Haiek landutako txostenak web-orrian argitaratuko dira.

44. artikulua. Hizkuntza ofizialak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-federazioen hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira.
2. Kirol-federazioek bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte honako dokumentu hauetan gutxienez:
 - a) Federazio-lizentzietan.
 - b) Ematen dituzten txartel, agiri eta antzeko dokumentuetan.
 - c) Estatutu, erregelamendu eta zirkularretan.
 - d) Lehiaketak iragartzen dituzten karteletan.
 - e) Federazio-organoen deialdietan.
 - f) Gobernu- eta administrazio-organoen bilkuren aktetan.
3. Ziurtagiriak interesdunak aukeratzen duen hizkuntza ofizialean egin beharko dira.
4. Kirol-federazioek hizkuntza-normalizazioko planak landu, onartu eta gauzatu beharko dituzte aldi berean, federazioaren barne-jardueretan nahiz herritarrei zuzendutako jardueretan euskararen erabilera normala pixkanaka bermatzeko. Betebehar hori betetzen ez badute, dirulaguntzak jasotzeko gaitasunik gabe geratu ahal izango dira federazioak, dagokion deialdiaren arauak hala ezartzen badute.

6. El Gobierno Vasco deberá establecer reglamentariamente la limitación de mandatos en los órganos de representación y administración de las federaciones deportivas al objeto de garantizar la renovación de las organizaciones federativas.
7. El seguimiento de la aplicación de los códigos de buena gobernanza se atribuirá a terceras personas independientes o a un órgano interno formado por personas sin vinculación alguna de carácter familiar, económica, profesional o análoga con la entidad deportiva o con las personas integrantes de su órgano de administración. Los informes resultantes se harán públicos en la página web.

Artículo 44. Lenguas oficiales

1. El euskera y el castellano constituyen lenguas oficiales de las federaciones deportivas del País Vasco.
2. Las federaciones deportivas quedan obligadas a respetar la utilización de las dos lenguas oficiales, como mínimo, en los siguientes documentos:
 - a) Licencias federativas.
 - b) Tarjetas, carnés y documentos análogos que expidan.
 - c) Estatutos, reglamentos y circulares.
 - d) Carteles anunciadores de competiciones.
 - e) Convocatorias de órganos federativos.
 - f) Actas de las sesiones de sus órganos de gobierno y administración.
3. Las certificaciones deberán emitirse en la lengua oficial que elija la persona interesada.
4. Las federaciones deportivas deberán elaborar, aprobar y ejecutar de forma periódica planes de normalización lingüística al objeto de ir garantizando de forma progresiva el uso normal del euskera tanto en las actividades internas de la federación como en las actividades dirigidas a la ciudadanía. El incumplimiento de tal obligación les podrá inhabilitar para la percepción de subvenciones si así lo determinan las normas de la respectiva convocatoria.



5. Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko organo eskudunek eta lurralde historikoetako foru-organismoek kirol-federazioen barruan hizkuntza-normalizazio egokia lortzeko beharrezkoak diren baliabideak eta laguntza tekniko egokia eman beharko dizkiete kirol-federazioei.

45. artikulua. Federazioen arauen publizitatea

1. Euskal kirol-federazioen estatutuak, erregelamenduak eta haien aldaketak, behin administratiboki onartu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatuko dira, dagokion kirol-federazioaren webgunean eta Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari dagokion zuzendaritzaren egoitza elektronikoa argitaratuko dira, eta ez dute ondorioz izango osorik argitaratu arte.
2. Lurralde-federazioen estatutuak eta erregelamenduek publizitate-baldintza berdinak bete beharko dituzte, baina publizitatea, federazioaren egoitza elektronikoa ez ezik, lurralde historikoko foru-organismoaren egoitza elektronikoa ere argitaratu beharko da.

46. artikulua. Zuzendaritzako langileak

1. Kirol-arloan eskumena duten Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak eta lurralde historikoetako foru-organismoek federazioetako zuzendaritzako langileen etengabeko prestakuntza eta doako aholkularitza teknikoa sustatuko dituzte beren funtzioak behar bezala bete ditzaten.
2. Federazioetako zuzendaritzako langileei ordaindu ahal izango zaie. Nolanahi ere, ordainsari hori ezin izango da ordaindu dirulaguntza publikoen kontura eta agintaldia amaitzean bukatuko da.

47. artikulua. Ekonomia- eta ondare-araubidea

1. Kirol-federazioek kirol-arloan eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailak erregelamenduz finkatutako kontabilitateko printzipioak eta arauak aplikatuko dituzte, eta kontu-auditoretzak egin beharko zaizkie.

5. Los órganos competentes de la Administración general de la Comunidad Autónoma y los órganos forales de los territorios históricos deberán proporcionar a las federaciones deportivas la adecuada asistencia técnica y los medios necesarios para la consecución de una adecuada normalización lingüística en el seno de las federaciones deportivas.

Artículo 45. Publicidad de las normas federativas

1. Los estatutos y reglamentos de las federaciones deportivas vascas, así como sus modificaciones, una vez aprobados administrativamente, se inscribirán en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco, y se publicarán en la página web de la correspondiente federación deportiva y en la sede electrónica de la dirección correspondiente de la Administración general de la Comunidad Autónoma, no surtiendo efecto hasta su íntegra publicación.
2. Los estatutos y reglamentos de las federaciones territoriales deberán cumplir los mismos requisitos de publicidad excepto que la publicación será, además de la federativa, en la sede electrónica del correspondiente órgano foral del territorio histórico.

Artículo 46. Personal directivo

1. La Administración general de la Comunidad Autónoma y los órganos forales de los territorios históricos competentes en materia deportiva promoverán la formación permanente de personal directivo de las federaciones y el asesoramiento técnico gratuito para el correcto desempeño de sus funciones.
2. El personal directivo de las federaciones deportivas podrá ser remunerado. Dicha remuneración no podrá ser satisfecha con cargo a subvenciones públicas y concluirá con la finalización del mandato.

Artículo 47. Régimen económico-patrimonial

1. Las federaciones deportivas aplicarán los principios y normas de contabilidad que reglamentariamente se determinen por el departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva y deberán someterse a auditorías de cuentas.



2. Kirol-federazioek ezin izango dute aurrekontu defizitariorik onartu, kirol-arloan eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailak edo lurralde historikoko foru-organo eskudunak hura baimentzen duten salbuespenezko kasuetan izan ezik.
3. Kirol-federazioek ezin izango dute urte anitzeko gasturik konprometitu dagokion administrazio-baimenik gabe, gastu horiek erregelamenduz ezartzen den ehunekoa baino handiagoak badira eta lehendakariaren agintaldia gainditzen badute.
4. Kirol-federazioek industria-, merkataritza- edo lanbide-jarduerak egin ahal izango dituzte, baina errendimendu ekonomikoak kirol-helburu propioetara zuzendu beharko dituzte.

48. artikulua. Lehiaketa federatuen ustiapen ekonomikoa

1. Kirol-federazioak dira beren kirol-lehiaketen ustiapen ekonomikorako eskubideen titular bakarrak eta ez dute parte-hartzaileen baimen edo adostasun indibidual eta espresurik behar. Horretarako, kirol-federazioek komenigarritzat jotzen dituzten akordioak egin ahal izango dituzte hirugarren pertsonekin eta probak antolatzen dituztenekin.
2. Pertsona fisiko eta juridikoak lehiaketa federatuetan inskribatzeak berekin dakar automatikoki irudiaren publizitate-eskubideen lagapena, kirol-federazioei lehiaketa horiek ekonomikoki ustiatzeko aukera ahalbidetzeko beharrezkoak diren baldintzetan.

49. artikulua. Onura publikoaren deklarazioa

1. Kirol-federazioak onura publikoko erakundeak dira.
2. Onura publikoaren deklarazioak berekin ekarriko du:

2. Las federaciones deportivas no podrán aprobar presupuestos deficitarios, salvo en los supuestos excepcionales en que así se autorice por el departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva o el órgano foral del territorio histórico correspondiente.
3. Las federaciones deportivas no podrán comprometer gastos de carácter plurianual sin la autorización administrativa correspondiente cuando dichos gastos superen el porcentaje que se establezca reglamentariamente y rebasen el periodo de mandato de la presidenta o presidente.
4. Las federaciones deportivas podrán ejercer actividades de carácter industrial, comercial o profesional, pero deberán destinar los rendimientos económicos de aquellas a fines deportivos propios.

Artículo 48. Explotación económica de las competiciones federadas

1. Las federaciones deportivas ostentan en exclusiva la titularidad de los derechos de explotación económica de sus competiciones deportivas, no precisando la autorización o consentimiento individual y expreso de sus participantes. A tal efecto, las federaciones deportivas podrán establecer los acuerdos que estimen convenientes con terceras personas y con las organizadoras y los organizadores de las diferentes pruebas.
2. La inscripción de las personas físicas y jurídicas en las competiciones federadas conlleva automáticamente la cesión de los correspondientes derechos publicitarios de imagen en los términos que resulten necesarios para posibilitar la citada explotación económica de aquellas competiciones por las federaciones deportivas.

Artículo 49. Declaración de utilidad pública

1. Las federaciones deportivas son entidades de utilidad pública.
2. La declaración de utilidad pública conllevará:



- a) Erakundearen izenaren ondoren "onura publikoko" kalifikazioa erabiltzeko eskubidea.
- b) Kirolerako ekipamenduen arloko laguntzak jasotzeko eta dirulaguntza-programetan sartzeko lehentasuna.
- c) Lurralde historikoetako foru-organismoek onura publikoko elkartearen alde erabaki ditzaketen zerga-onurak.
- d) Beste xedapen batzuek ezartzen dituzten beste onura batzuk.
- e) Kirolari lotutako xedapen orokorrak prestatzeko garaian entzunak izateko eskubidea.

50. artikulua. Bideragarritasun-plana

1. Tutoretzako administrazio publikoak kirol-federazioei beren betebeharrak betetzea eragozten dien egoera ekonomiko bat detektatzen duenean baina bideragarria dela ondorioztatzen duenean, egoera horren arrazoiak bilduko dituen txosten xehatu bat egin eta bideragarritasun-plan bat onartuko du. Plan hori eragindako erakundeak berak proposatu ahal izango du. Hori guztia, kalterik egin gabe, hala badagokio, lege honen 42. artikuluan jasotako esku-hartzeko neurriak edo konkurtso-legerian xedatutakoak aplikatzeari.
2. Bideragarritasun-planak kirol-federazioa behartuko du hura osorik betetzera.
3. Administrazio publikoek beharrezko neurriak bultzatuko dituzte kirolari profesional ohiek kirolaz kanpoko lan-bizitza berreskura dezaten.

XI. TITULUA JARDUERA FISIKORAKO ETA KIROLERAKO GUNEAK, EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

102. artikulua. Plangintza

1. Euskal Autonomia Erkidegoan, kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen plangintza lurralde-antolamenduko eta hiri-antolamenduko dagozkion tresnen bitartez egingo da. Plangintza hori egitean, arreta berezia eskainiko zaie kirol-arloko irizpide teknikoiei.
2. Adierazitako tresnak lantzean, honako printzipio hauek hartuko dira kontuan:
 - a) Aisialdi- eta kirol-eremuak eta kirol-gune ez-konbentzionalak sortzea eta mantentzea bermatuko da, herritar guztiei kirola egitea ahalbidetzeko.
 - b) Lehenetsuna emango zaio herritarrek jarduera fisikoa egin ahal izateko guneak

deportistas de alto nivel

El Gobierno Vasco, con el asesoramiento de las federaciones deportivas y del Consejo Vasco de la Actividad Física y del Deporte, aprobará un estatuto para las deportistas y los deportistas de alto nivel.

Artículo 101. Condiciones de empleo

1. Los poderes públicos impulsarán la adopción de disposiciones y acuerdos tendentes a facilitar a las deportistas y los deportistas de alto nivel unas condiciones de empleo compatibles con su entrenamiento y participación en competiciones oficiales.
2. Todas las administraciones públicas considerarán la calificación de deportista de alto nivel como mérito evaluable tanto en las pruebas de selección a plazas relacionadas con la actividad deportiva correspondiente como en los concursos para la provisión de puestos de trabajo relacionados con aquella actividad, siempre que esté prevista la valoración de méritos específicos.
3. Las administraciones públicas impulsarán medidas necesarias para que las exdeportistas y los exdeportistas profesionales retomen una vida laboral no deportiva.

TÍTULO XI ESPACIOS, EQUIPAMIENTOS Y SERVICIOS PARA LA ACTIVIDAD FÍSICA Y EL DEPORTE

Artículo 102. Planificación

1. La planificación de los equipamientos deportivos y de actividad física en la Comunidad Autónoma del País Vasco se llevará a cabo a través de los correspondientes instrumentos de ordenación del territorio y de ordenación urbana. Dicha planificación se realizará con especial atención a los criterios técnico-deportivos.
2. En la elaboración de los citados instrumentos se tendrán en cuenta los siguientes principios:
 - a) Se garantizará la creación y el mantenimiento de áreas recreativo-deportivas y de espacios deportivos no convencionales al objeto de facilitar la práctica deportiva de toda la población.
 - b) Se dará prioridad a la creación de espacios para la actividad física por la



sortzeari eta kirol anitzeko ekipamenduak aurreikusteari.

- c) Inbertsioak azpiegitura-defizitik handieneko eremuetara bideratuko dira eremu funtzional gisa lurralde-oreka bat lortzeko. Ildo horretan, biztanlegune handiei zerbitzuak emateko moduko udalaz gaindiko kirol-azpiegiturak bultzatu beharko dituzte.
- d) Kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioak ikastetxeei hertsiki lotuta dimentsionatu eta kokatuko dira.
- e) Genero-ikuspegia eta kirolerako eta jarduera fisikorako espazio seguruak bermatuko dira, bereziki emakumeentzat.

103. artikulua. Ikastetxeetako kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduak

1. Hezkuntza-administrazioak sustatuko du, zentro pribatuekin eta udalerriekin lankidetzan eta zentro publikoetako dagozkien barne-organoen parte-hartzearekin, ikastetxeetako eta unibertsitateetako kiroleko eta jarduera fisikoko ekipamenduak kirol anitzekoak izatea, eta eskola-orduetan zein ordu horietatik kanpo erabiltzeko aukera bermatuko duten giza baliabideak eta beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak edukitzea.
2. Hezkuntza-administrazioak sustatuko du unibertsitateek izatea unibertsitate-komunitateak jarduera fisikoa eta kirola egiteko beharrezkoak diren kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamendu eta zerbitzu osagarriak.

104. artikulua. Kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen arloko politika publikoak

1. Eusko Jaurlaritzari dagokio Autonomia Erkidegoaren intereseko kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen arloko kirol-politikaren esparru orokorra zehaztea.
2. Lurralde-plan partzialak edo lurralde-plan sektorialak izango dira kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen lurralde-ezarpenaz arduratu beharko duten lurralde-antolamenduko tresnak.

ciudadanía y a la previsión de equipamientos de carácter polideportivo.

- c) Las inversiones se orientarán hacia las áreas con mayor déficit de infraestructuras para lograr un equilibrio territorial como área funcional, contemplando infraestructuras deportivas supramunicipales que puedan dar servicios a amplios núcleos de población.
- d) Las instalaciones deportivas y de actividad física se dimensionarán y ubicarán en estrecha conexión con los centros educativos.
- e) Se garantizará el enfoque de género y unos espacios seguros para el deporte y la actividad física, especialmente para las mujeres.

Artículo 103. Equipamientos deportivos y de actividad física en centros educativos

1. La Administración educativa promoverá, en colaboración con los centros privados y los municipios, y con la participación de los correspondientes órganos internos de los centros públicos, que los equipamientos deportivos y de actividad física radicados en los centros escolares y universitarios tengan un carácter polideportivo, y dispongan de los recursos humanos y de los servicios complementarios precisos que garanticen su plena utilización tanto dentro como fuera del horario lectivo.
2. La Administración educativa promoverá que los centros universitarios estén dotados de los equipamientos deportivos y de actividad física y de los servicios complementarios precisos para la práctica de la actividad física y del deporte por la comunidad universitaria.

Artículo 104. Políticas públicas en materia de equipamientos deportivos y de actividad física

1. Al Gobierno Vasco le corresponde definir el marco general de la política deportiva en materia de equipamientos deportivos y de actividad física de interés autonómico.
2. Los planes territoriales parciales o planes territoriales sectoriales serán los instrumentos de ordenación del territorio que deberán ocuparse de la implantación territorial de los equipamientos deportivos y de actividad física.



3. Administrazio publikoek kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen jasangarritasuna eta iraunkortasuna sustatuko dute.

105. artikulua. Kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduak eta desgaitasuna duten pertsonak

Kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduek, irisgarritasun-arloko araudia betetzeaz gain, desgaitasuna duten kirolariek behar bezala erabiltzeko diseinatuta eta hornituta egon beharko dute.

106. artikulua. Kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen lurralde-plan sektoriala

1. Lurralde historikoetako foru-organismoek, lurralde historiko bakoitzaren premien eta berezitasunen arabera, eskumena izango dute lurralde antolamenduari gidalerroak garatuz kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen lurralde-plan sektorialak onartzeko, honako helburu hauekin:
 - a) Dagokion lurralde historikoko udalerrri eta eskualde guztiak banan-banan aztertu ondoren, oinarritzko kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen mapa bat taxutzea.
 - b) Oinarritzko kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamendua lortu ondoren, kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen sare egoki bat edukitzeko prozesua osatzea.
 - c) Eremu bakoitzeko ekipamenduen eraikuntza sustatzea eta jarduera fisikoko eta kiroleko zerbitzuen kudeaketa mankomunatu bultzatzea.
 - d) Euskal Autonomia Erkidegoko bizikleta-bideen sarea eraiki eta artikulatzea.
2. Halaber, foru-organismo horiek eskumena izango dute plan horiek burutzeko beharrezkoak diren finantzaketa-planak onartzeko.

107. artikulua. Kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen udal-planak

Udalerriek kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioen arloko plangintza-tresnak egokitu beharko

3. Desde la Administración pública se promoverá la sostenibilidad y durabilidad de los equipamientos deportivos y de actividad física.

Artículo 105. Equipamientos deportivos y de actividad física y personas con discapacidad

Los equipamientos deportivos y de actividad física, además de respetar la normativa correspondiente en materia de accesibilidad, deberán estar diseñados y equipados para su adecuada utilización por los deportistas y los deportistas con discapacidad.

Artículo 106. Plan territorial sectorial de equipamientos deportivos y de actividad física

1. Los órganos forales de los territorios históricos, en función de las necesidades y peculiaridades de cada territorio histórico, serán competentes para aprobar, en desarrollo de las directrices de ordenación del territorio, los planes territoriales sectoriales de equipamientos deportivos y de actividad física con los siguientes objetivos:
 - a) Configurar un mapa de equipamientos deportivos y de actividad física básicos, previo análisis individualizado de todos los municipios y comarcas del respectivo territorio histórico.
 - b) Completar, una vez alcanzado el equipamiento deportivo y de actividad física básico, el proceso al objeto de disponer de una red idónea de equipamientos deportivos y de actividad física.
 - c) Potenciar la construcción de equipamientos de cada área e impulsar la gestión mancomunada de los servicios para la actividad física y el deporte.
 - d) Construir y articular la red de vías ciclistas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
2. Asimismo, dichos órganos forales serán competentes para aprobar los planes de financiación para la ejecución de dichos planes.

Artículo 107. Planes municipales de equipamientos deportivos y de actividad física

Los municipios deberán ajustar sus instrumentos de planeamiento en materia de instalaciones deportivas



dituzte bat etor daitezen kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen lurralde-plan sektorialetan jasotako gidalerroekin.

108. artikulua. Ingurune naturaleko kirol-jarduera arriskutsuak

Eusko Jaurlaritzak betekizunak eta baldintzak ezarriko ditu, erregelamendu bidez, ingurune naturalean abenturazko kirol-jarduerak edo kirol-jarduera arriskutsuak antolatzeko.

109. artikulua. Kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen erroldak

1. Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailak, lurralde historikoetako foru-organismoak eta udalerriek beren lurralde-eremuetako kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamendu publiko eta pribatuen errolda bat egin beharko dute, eta gutxienez bost urtean behin eguneratu, Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez onartuko dituen irizpide komun batzuei jarraikiz.
2. Lurralde historikoetako foru-organismoak lurralde historiko bakoitzeko datuen eguneratzea koordinatuko dute udalerriekin, Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailak horretarako onartzen duen plataforma elektronikoen bidez.
3. Kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamendu horien titularrak diren erakunde publiko eta pribatuak dagokion errolda egiteko eta eguneratzeko eskatzen dizkieten datu guztiak eman beharko dituzte horretarako antolatutako plataforma elektronikoen bitartez.

110. artikulua. Segurtasun-neurriak eta osasuna babesteko neurriak

1. Kirol-ekitaldien antolatzaileak eta kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioen jabeak beharrezkoak diren segurtasun-neurriak bermatu beharko dituzte kirol-eremuetan, ikuskizun publikoen eta aisialdiko jardueren arloan arauz ezarritakoari jarraikiz. Aurrekoa gorabehera, kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamendu eta kirol-ekitaldi bereziak erregelamendu bidez tratatu ahal izango dira, euren berezitasunetara egokituta.

y de actividad física a las directrices contenidas en los planes territoriales sectoriales de equipamientos deportivos y de actividad física.

Artículo 108. Actividades deportivas de riesgo en el medio natural

El Gobierno Vasco establecerá reglamentariamente los requisitos y condiciones para la organización de actividades deportivas de aventura o de riesgo en el medio natural.

Artículo 109. Censos de equipamientos deportivos y de actividad física

1. El departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva, los órganos forales de los territorios históricos y los municipios deberán elaborar y mantener actualizado, como mínimo cada cinco años, un censo de los equipamientos deportivos y de actividad física públicos y privados de sus correspondientes ámbitos territoriales, con unos criterios comunes que se aprobarán reglamentariamente por el Gobierno Vasco.
2. Los órganos forales de los territorios históricos coordinarán con los municipios la actualización de los datos de cada territorio histórico mediante la plataforma electrónica que a tal efecto apruebe el departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva.
3. Las entidades, públicas y privadas, titulares de dichos equipamientos deportivos y de actividad física deberán aportar, mediante las plataformas electrónicas dispuestas a tal fin, todos aquellos datos que les sean requeridos para la elaboración y actualización del censo correspondiente.

Artículo 110. Medidas de seguridad y de protección de la salud

1. Las personas organizadoras de eventos deportivos y propietarias de instalaciones deportivas y de actividad física deberán garantizar las necesarias medidas de seguridad en los espacios deportivos, de acuerdo con lo establecido normativamente en materia de espectáculos públicos y actividades recreativas. No obstante lo anterior, los equipamientos deportivos y de actividad física y eventos deportivos singulares podrán ser objeto de un



tratamiento reglamentario específico que se adapte a sus particularidades.

2. Kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen titularrak diren administrazio publikoek eta kirol-ekitaldien antolatzaileek kirolarien eta kirol-ikuskizunetan parte hartzen duen edo ikuskizun horietara joaten den edonoren osasunerako kaltegarriak diren zarata-mailak eragiten dituzten objektuak mugatzeko beharrezkoak diren xedapenak hartuko dituzte.

2. Las administraciones públicas titulares de equipamientos deportivos y de actividad física y las entidades organizadoras de eventos deportivos adoptarán las disposiciones necesarias para limitar la introducción de objetos que produzcan niveles de ruido perjudiciales para la salud de las deportistas y los deportistas y de cualesquiera participantes o asistentes a los espectáculos deportivos.

XII. TITULUA

JARDUERA FISIKOAN ETA KIROLEAN EDOZEIN ARRAZOIRENGATIK AGERTUTAKO INDARKERIA, INTOLERANTZIA ETA DISKRIMINAZIOAREN PREBENTZIOA

111. artikulua. Jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioaren debekua

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, bermatuko dute debekatuko direla edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia edo diskriminazioa eragiten duten ekintzak, zuzenekoak edo zeharkakoak, eta/edo gorrotara bultzatzen dutenak lege honen esparru eta eremuan, hots, jarduera fisiko eta kirolarenean. Gainera, arreta berezia jarriko diete prebentzioari eta haurrak zein zaurgarri gisa identifikatutako kolektiboak eta taldeak indarkeriatik babesteari. Hala, berariaz debekatuta egongo dira Kirol ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legearen 1 eta 2. artikuluen arabera kiroleko indarkeria gisa definitutako ekintzak.

112. artikulua. Jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioaren kontrako azpibatzerdea

1. Azpibatzerde bat egongo da jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik ager daitekeen indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioaren kontra jarduteko, eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren mende egongo da organikoki.
2. Azpibatzerdearen funtzioak honako hauek izango dira:
 - a) Euskal Autonomia Erkidegoan egindako jarduera fisikoan eta kirol-lehiaketetan

TÍTULO XII

PREVENCIÓN DE LA VIOLENCIA, LA INTOLERANCIA Y LA DISCRIMINACIÓN POR CUALQUIER MOTIVO EN LA ACTIVIDAD FÍSICA Y EN EL DEPORTE

Artículo 111. Prohibición de la violencia, la intolerancia y la discriminación por cualquier motivo en la actividad física y en el deporte

Las administraciones públicas vascas, en el marco de sus competencias, velarán por garantizar la prohibición de acciones, directas o indirectas, constitutivas de violencia, intolerancia y discriminación por cualquier motivo y/o la incitación al odio en el marco y ámbito de esta ley, de la actividad física y del deporte. Además, se atenderá con especial atención a la prevención y a la protección frente a la violencia de la infancia y de los colectivos y grupos identificados como vulnerables. Quedan así expresamente prohibidos los actos definidos como violencia en el deporte según los artículos 1 y 2 de la Ley 19/2007, de 11 de julio, contra la violencia, el racismo, la xenofobia y la intolerancia en el deporte.

Artículo 112. Subcomité contra la violencia, la intolerancia y la discriminación por cualquier motivo en la actividad física y en el deporte

1. Bajo la dependencia orgánica del Consejo Vasco de la Actividad Física y del Deporte existirá un subcomité para actuar contra la violencia, la intolerancia y la discriminación que se produzca en la actividad física y el deporte por cualquier motivo.
2. Las funciones del subcomité son las siguientes:
 - a) Recoger y publicar datos anualmente sobre la violencia, la intolerancia y la



edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioari buruzko datuak bildu eta argitaratzea.	discriminación por cualquier motivo en la actividad física y en las competiciones deportivas celebradas en el País Vasco.
b) Jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioaren zergatiei eta ondorioei buruzko txostenak eta azterlanak egitea.	b) Realizar informes y estudios sobre las causas y los efectos de la violencia, la intolerancia y la discriminación por cualquier motivo en la actividad física y en el deporte.
c) Prebentzio-ekintzak sustatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan eta sexu-jazarpenaren edo sexuan oinarritutako jazarpenaren esparruan bereziki.	c) Promover acciones de prevención, especialmente en el ámbito de la violencia contra las mujeres y del acoso sexual o del acoso por razón de sexo.
d) Gomendioak prestatzea kirol-arloko klub, elkarte eta federazioetarako, kirol-lehiaketak antolatzen dituzten gainerako erakundeetarako edo pertsonentzako eta kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioen titularrentzako.	d) Elaborar recomendaciones a clubes, agrupaciones, federaciones deportivas y demás entidades o personas organizadoras de competiciones deportivas y titulares de instalaciones deportivas y de actividad física.
e) Informazioa ematea kirol-lehiaketen, kirol-diziplinaren eta kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioen arloko xedapen-proiektuei buruz.	e) Informar sobre aquellos proyectos de disposiciones en materia de competiciones deportivas, de disciplina deportiva y de instalaciones deportivas y de actividad física.
f) Jardunbide egokien kode bat prestatzea, kirol-erakundeetarako eta kirol-arloan esku hartzen duten gainerako eragileentzako oinarri izan dadin.	f) Elaborar un código de buenas prácticas que sirvan de base para las entidades deportivas y demás agentes que intervienen en el ámbito del deporte.
g) Jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioa desagerrarazten lagunduko duten beste edozein funtzio.	g) Cualesquiera otras funciones que colaboren en la erradicación de la violencia, la intolerancia y la discriminación por cualquier motivo en la actividad física y en el deporte.
3. Azpibatzerdea osatuko dute arlo horretan eskumenak dituzten administrazio publikoak eta kirol-erakundeak ordezkatzan dituzten pertsonak, eta jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioaren prebentzioan ospe handia duten pertsonak.	3. El subcomité estará integrado por personas que representan a las administraciones públicas con competencias en la materia y a las entidades deportivas, así como por personas de reconocido prestigio en el ámbito de la prevención de la violencia, la intolerancia y la discriminación por cualquier motivo en la actividad física y en el deporte.
113. artikulua. Helburuak eta neurriak jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioa prebenitzeko	Artículo 113. Objetivos y medidas en materia de prevención de la violencia, la intolerancia y la discriminación por cualquier motivo en la actividad física y en el deporte
1. Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera	1. Todas las personas y entidades que intervengan



fisikoaren eta kirolaren esparruan esku hartzen duten pertsona eta erakunde guztiek errespetuaren, tolerantziaren eta joko garbiaren balioak eta jarduera fisikoari lotutako gainerako balio positibo guztiak sustatu beharko dituzte, eta aktiboki inplikatu dira edozein arrazoirengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioa desagerrarazteko eta aurreko artikuluan aurreikusitako kodea betetzeko lanean.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, bereziki kirolaren, segurtasunaren eta berdintasunaren arloan eskumena duten sailen bitartez, jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoirengatik ager daitekeen indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioa mota oro prebenitzeko eta hari aurre egiteko politika aktiboa garatuko du.
3. Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailak honako neurri hauek har ditzake prebentzioaren esparruan:
 - a) Kirol-legea, joko garbia, errespetua, genero-berdintasuna eta gizarte-integrazioa sustatuko dituzten publizitate-kanpainak egitea, gazteentzat bereziki.
 - b) Joko garbia eta kirolarekin lotutako eta legearen titulu honetan bildutako gainerako balio positiboak bultzatuko dituzten sarietarako deialdiak egitea.
 - c) Aurkariak diren kirolarien edo zaleen arteko bizikidetzak eta senidetze-ekintzak bultzatzea, proben edo partiden aurretik giro positiboa sortzeko elkarrekin egindako jardueren edota keinu sinbolikoen bidez.
 - d) Teknikariak prestatzeko programetan, balioetan oinarritutako prestakuntzarekin eta edozein arrazoirengatik ager daitekeen indarkeria, intolerantzia eta diskriminazio mota ororen aurkako borrokarekin zuzenean lotuta dauden edukiak txertatzea.
 - e) Kirol-erakundeei laguntza ekonomikoak emateko irizpide gisa kontuan hartzea indarkeriari, xenofobiari eta ezaugarri edo inguruabar pertsonalak, sozialak eta

en el ámbito de la actividad física y del deporte en el País Vasco deberán promover los valores de respeto, tolerancia, juego limpio y los demás valores positivos vinculados a aquella actividad, y se implicarán activamente en la erradicación de la violencia, la intolerancia y la discriminación por cualquier motivo en el cumplimiento del código previsto en el artículo anterior.

2. La Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco desarrollará, a través de los departamentos competentes, especialmente en materia deportiva, seguridad e igualdad, una política activa de prevención y lucha contra cualquier tipo de manifestación de violencia, intolerancia y discriminación por cualquier motivo en la actividad física y el deporte.
3. El departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva podrá adoptar, en el ámbito de la prevención, las siguientes medidas:
 - a) El desarrollo de campañas publicitarias que promuevan la deportividad, el juego limpio, el respeto, la igualdad de género y la integración social, especialmente entre la juventud.
 - b) La convocatoria de premios que estimulen el juego limpio y los demás valores positivos vinculados al deporte contenidos en este título de la ley.
 - c) El estímulo de acciones de convivencia y hermanamiento entre deportistas o aficiones rivales a fin de establecer un clima positivo antes de las pruebas o encuentros, ya sea mediante la celebración de actividades compartidas, ya sea mediante gestos simbólicos.
 - d) La inclusión en los programas de formación de técnicas y técnicos de contenidos directamente relacionados con la formación en valores y la lucha contra la violencia, la intolerancia y la discriminación por cualquier motivo.
 - e) La consideración, como criterio de otorgamiento de ayudas públicas a las entidades deportivas, de la implantación y desarrollo de campañas y medidas de



generoari edo sexu-identitateari lotutakoak direla-eta sortutako beste edozein diskriminazio motari aurre egiteko kanpaina eta neurrien ezarpena eta garapena.

- f) Prebentziozko neurriak hartzea jarduera fisikoan eta kirolean LGBTIfobia eta kolektibo hori osatzen duten pertsonenganako arbuiatze-, estigmatizatze- edo baztertze-jarrera oro desagerrarazteko.

114. artikulua. Haurren eta nerabeen babes integrala jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko indarkeria mota guztien aurka

1. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduteko protokoloak arautuko dituzte. Protokolo horietan jasoko dira kirolaren eta jarduera fisikoaren eremuan ingurune segurua eraikitzeke jarduketak, eta protokolo horiek jarraitu beharko dira kirolaren, jarduera fisikoaren eta aisialdiaren esparruan haurren eta nerabeen aurka gerta daitezkeen indarkeria-egoerak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horietan esku hartzeko.

Protokolo horiek kirola, jarduera fisikoa eta aisialdi-jarduerak egiten dituzten zentro guztietan aplikatu beharko dira, horien titulartasuna edozein dela ere, eta, betiere, errendimendu handiko eta kirol-teknifikazioko zentrozen sarean, kirol-federazioetan eta udal-eskoletan.

2. Adingabeekin kirola eta jarduera fisikoa egin ohi dituzten erakundeek betebeharrak izango dituzte:
- a) Artikulu honetan aipatzen diren jarduketa-protokoloak aplikatzea.
- b) Babes-ordezkariaren figura izendatzea, zeinarengana adingabeek jo ahal izango baitute beren kezkak adierazteko. Ordezkari hori arduratuko da ezarritako protokoloak zabalitzeaz eta betetzeaz, bai eta dagozkion komunikazioak abiarazteaz ere, haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-egoera bat detektatzen den kasuetan.

lucha contra la violencia, la xenofobia y cualquier otra forma de discriminación por condición o circunstancia personal, social, de género o identidad sexual.

- f) La adopción de medidas preventivas para erradicar, de la actividad física y del deporte, la LGBTIfobia y cualesquiera actitudes de rechazo, estigmatización o de exclusión hacia personas que integran ese colectivo.

Artículo 114. Protección integral de la infancia y adolescencia contra todas las formas de violencia en el ámbito de la actividad física y del deporte

1. Las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus competencias, regularán protocolos de actuación que recogerán las actuaciones para construir un entorno seguro en el ámbito deportivo y de la actividad física y que deben seguirse para la prevención, detección precoz e intervención, frente a las posibles situaciones de violencia contra la infancia y la adolescencia comprendidas en el ámbito deportivo, de la actividad física y del ocio.

Dichos protocolos deberán ser aplicados en todos los centros que realicen actividades deportivas, de actividad física y de ocio, independientemente de su titularidad y, en todo caso, en la red de centros de alto rendimiento y tecnificación deportiva, federaciones deportivas y escuelas municipales.

2. Las entidades que realizan de forma habitual actividades deportivas y de actividad física con personas menores de edad están obligadas a:
- a) Aplicar los protocolos de actuación a los que se refiere el presente artículo.
- b) Designar la figura del delegado o delegada de protección al que las personas menores de edad puedan acudir para expresar sus inquietudes y quien se encargará de la difusión y el cumplimiento de los protocolos establecidos, así como de iniciar las comunicaciones pertinentes en los casos en los que se haya detectado una situación de violencia contra la infancia o la adolescencia.



3. Beren kargua, lanbidea, ogibidea edo jarduera dela-eta, hurrei edo nerabeei laguntza, zaintza, irakaskuntza edo babesa eman behar dieten pertsonak, eginkizun horiek betetzean, haur edo nerabe horien aurkako indarkeria-egoeraren baten berri izan badute edo egoera horren zantzuak hauteman badituzte, berehala eman beharko diete horren berri gizarte-zerbitzu eskudunei. Gainera, indarkeria horren ondorioz hauraren edo nerabearen osasuna edo segurtasuna mehatxatuta egon badaiteke, berehala jakinarazi beharko diete Segurtasun Indar eta Kidegoei eta/edo Fiskaltzari.

Edonola ere, aurreko paragrafoan aipatzen diren pertsonak biktimari behar duen berehalako arreta eman beharko diote, eta agintari eskudunei eskura duten informazio guztia eman eta lankidetzat handiena eskaini beharko diete.

Horretarako, administrazio publiko eskudunek mekanismo egokiak ezarriko dituzte indarkeriaren biktima diren adingabeen kasuen susmoak jakinarazteko. Mekanismo horiek bermatuko dute komunikazioa egin duten pertsonen konfidentzialtasuna, babesa eta segurtasuna, bai eta indarkeria-egoera baten berri ematen duten haur eta nerabeen babes eta segurtasun berezia ere.

4. Artikulu honetan arautzen ez diren gai guztietarako, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren eta Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen xedapenak aplikatuko dira, edo horiek garatzen dituzten arauak.

XIII. TITULUA KIROL-ARLOKO DIZIPLINA ARAUBIDEA

115. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Kirol-arloko diziplina-araubideak barne hartzen ditu joko-, lehiaketa- eta kirol-arauen hausteak.
2. Jokoa edo lehiaketa egiten den bitartean haren garapen normala kaltetzen, eragozten edo nahasten duten ekintzak edo ez-egiteak izango

3. Aquellas personas que, por razón de su cargo, profesión, oficio o actividad, tengan encomendada la asistencia, el cuidado, la enseñanza o la protección de niños, niñas o adolescentes y, en el ejercicio de las mismas, hayan tenido conocimiento o hayan advertido indicios de la existencia de una situación de violencia ejercida sobre aquellos deberán comunicarlo de forma inmediata a los servicios sociales competentes. Además, cuando de dicha violencia pudiera resultar que la salud o la seguridad del niño, niña o adolescente se encontrase amenazada, deberán comunicarlo de forma inmediata a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad y/o al Ministerio Fiscal.

En todo caso, las personas a las que se refiere el párrafo anterior deberán prestar a la víctima la atención inmediata que precise, así como facilitar toda la información de que dispongan y prestar su máxima colaboración a las autoridades competentes.

A estos efectos, las administraciones públicas competentes establecerán mecanismos adecuados para la comunicación de sospecha de casos de personas menores de edad víctimas de violencia. Dichos mecanismos garantizarán la confidencialidad, protección y seguridad de las personas que hayan realizado la comunicación y la especial protección y seguridad de los niños, niñas y adolescentes que comuniquen una situación de violencia.

4. Para todas aquellas cuestiones no reguladas en este artículo, serán de aplicación las previsiones correspondientes de la Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia y de la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia, así como de las normas que las desarrollen.

TÍTULO XIII RÉGIMEN DISCIPLINARIO DEPORTIVO

Artículo 115. Ámbito de aplicación

1. El régimen disciplinario deportivo se extiende a las infracciones de las reglas de juego, de competición y de las normas generales deportivas.
2. Son infracciones de las reglas de juego o competición las acciones u omisiones que, durante el curso del juego o de la competición,



dira joko- edo lehiaketa-arauen haustek.

3. Arau horietan xedatutakoaren aurkako gainerako ekintzak edo ez-egiteak izango dira kirol-arau orokorren arau-haustek.
4. Kirol-klubek beren kideen gainean duten diziplina-ahalak bere arau propioei jarraituko die, izaera pribatua du eta ezin izango da haren aurkako errekurtsorik jarri kirol-federazioetan eta Kirol Justiziako Euskal Batzordean.
5. Estatuko eta nazioarteko kirol-lehiaketetan egindako arau-hausteen kasuan, Estatuko eta nazioarteko diziplina-arauei jarraituko zaie, hurrenez hurren.
6. Kirol-arloko diziplina-araubidea gorabehera, erantzukizun zibilak, penalak edo beste mota batekoak bere arau propioei jarraituko diete.

116. artikulua. Diziplina-ahala

1. Kirol-arloko diziplina-ahala organo jakin batzuei esleitzen zaion ahalmena da, beren kirol-diziplinaren menpe dauden pertsonak ikertzeko eta, hala badagokio, zehatzeko.
2. Honako hauei dagokie kirol-arloko diziplina-ahala baliatzea:
 - a) Kirol-federazioei, federatutako pertsona fisiko edo juridikoen, federazioetako zuzendarien eta lotura bereziko harreman bat duten gainerako pertsona guztien gainean.
 - b) Eskola-kirolaren eta unibertsitate-kirolaren esparruan eskumena duten organoei, haietan parte hartzen dutenen gainean.
 - c) Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, aurreko pertsona eta erakunde horien gainean.
3. Probak edo partidak zuzentzeko ahalmena baliatzea, arbitroei edo epaileei esleitzen zaiona eta kirol-modalitate bakoitzeko arau teknikoak aplikatzearen bidez burutzen dena, ez da kirol-arloko diziplina-ahalaren baliatetzat hartuko.

vulneren, impidan o perturban su normal desarrollo.

3. Son infracciones de las normas generales deportivas las demás acciones u omisiones que sean contrarias a lo dispuesto por dichas normas.
4. La potestad disciplinaria de los clubes deportivos sobre sus miembros se regirá por sus propias normas; tiene naturaleza privada y no será susceptible de recurso ante las federaciones deportivas y el Comité Vasco de Justicia Deportiva.
5. Las infracciones cometidas con ocasión de competiciones deportivas de ámbito estatal e internacional se regirán por las normas disciplinarias de ámbito estatal e internacional, respectivamente.
6. El régimen disciplinario deportivo se entiende sin perjuicio de la responsabilidad civil, penal o de otra naturaleza, que se regirá por sus propias normas.

Artículo 116. Potestad disciplinaria

1. La potestad disciplinaria deportiva es la facultad que se atribuye a determinados órganos para investigar y, en su caso, sancionar a las personas sometidas a su disciplina deportiva.
2. El ejercicio de la potestad disciplinaria deportiva corresponde:
 - a) A las federaciones deportivas sobre todas las personas físicas o jurídicas federadas, sus directivas o directivos y demás personas sujetas a una relación de especial sujeción.
 - b) A los órganos competentes en el ámbito del deporte escolar y del deporte universitario sobre sus participantes.
 - c) Al Comité Vasco de Justicia Deportiva sobre las mismas personas y entidades anteriores.
3. No se considerará ejercicio de la potestad disciplinaria deportiva la facultad de dirección de las pruebas o encuentros atribuida a las árbitras y árbitros o juezas y jueces mediante la aplicación de las reglas técnicas de cada



modalidad deportiva.

117. artikulua. Diziiplina-prozedura motak. Ordezko araubidea

1. Diziiplina-erantzukizunak prozedura arruntaren eta prozedura bereziaren bidez argituko dira.
2. Diziiplina-ahala baliatzean, lege honetan jasotako bermeez gain, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren III. kapituluaren jasotako printzipioak errespetatuko dira.

118. artikulua. Prozedura arrunta

1. Prozedura arrunta lehentasunaren eta sumariotasunaren printzipioetan oinarrituta dago, eta lehiaketan garapen normala bermatzeko diziiplina-organismoen berehalako esku-hartzea beharrezkoa denean aplikatuko da. Prozedura hori, zehazki, jokatzeari edo jokoen ondorioz egin diren eta arbitroaren aktan, haren eranskinetan edo federazio-txosten ofizialetan agertzen diren arau-hauste guztiak epaitzeko eta, hala badagokio, zehatzeko aplikatuko da, betiere, partidak edo probak amaitu ondoren, epe laburrean, parte-hartzaileei haien berri ematen bazaie edo haien eskura jartzen badira.
2. Prozedura arruntak ez du behar hasteko erabaki formalik, eta interesdunei entzuteko betebeharra betetzeko izapide laburtu bat jasoko du. Entzunaldi-izapide hori automatikoa da, eta ez da beharrezkoa diziiplina-organismoak aurrez errekerimendua egitea.

119. artikulua. Prozedura berezia

1. Prozedura berezia aurreko artikuluen barnean hartu gabeko kasu guztietan aplikatuko da.
2. Espediente berezia ebazteko, sei hilabeteko epea egongo da, eta hori igaro ondoren iraungi egingo da.
3. Kirol-arloko diziiplina-ahala administrazio-prozedura bereziaren bidez baliatzean, instrukzio-fasea eta zehapen-fasea bereizi

Artículo 117. Clases de procedimientos disciplinarios. Régimen supletorio

1. La depuración de responsabilidades disciplinarias se realizará a través del procedimiento ordinario y del procedimiento extraordinario.
2. En el ejercicio de la potestad disciplinaria se respetarán, además de las garantías contenidas en la presente ley, los principios recogidos en el capítulo III del título preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Artículo 118. Procedimiento ordinario

1. El procedimiento ordinario, basado en los principios de preferencia y sumariidad, será aplicable cuando se requiera la intervención inmediata de los órganos disciplinarios para garantizar el normal desarrollo de las competiciones. Concretamente, este procedimiento se aplicará para el enjuiciamiento y, en su caso, sanción, de todas aquellas infracciones cometidas durante el transcurso del juego, o con ocasión del mismo, que figuren en el acta arbitral, sus anexos o en los informes de las oficiales y los oficiales federativos, siempre que se notifiquen a las participantes y los participantes o se pongan a su disposición en un breve plazo tras la finalización de los encuentros o pruebas.
2. El procedimiento ordinario, que no precisa un acuerdo formal de incoación, incluirá un trámite abreviado para el cumplimiento de la audiencia de las personas interesadas. Este trámite de audiencia es automático y no precisa de requerimiento previo del órgano disciplinario.

Artículo 119. Procedimiento extraordinario

1. El procedimiento extraordinario se aplicará para todos aquellos supuestos no incluidos en el artículo anterior.
2. El plazo para resolver el expediente extraordinario será de seis meses, transcurrido el cual se producirá la caducidad del mismo.
3. El ejercicio de la potestad disciplinaria deportiva que se desarrolle mediante el procedimiento administrativo extraordinario deberá diferenciar,



beharko dira betiere, eta organo desberdinak arduratuko dira fase horietaz.

en todo caso, la fase instructora de la sancionadora, que se encomendarán a órganos diferentes.

120. artikulua. Prozedura berezian espedienteari hasiera ematea. Kautelazko neurriak

Artículo 120. Incoación de expediente en el procedimiento extraordinario. Medidas cautelares

1. Prozedura berezian, espedientea, betiere, ofizioz hasiko da organo eskudunak erabakita.
2. Espedientea hastea norberaren ekimenez, Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailaren komunikazioaren ondorioz, beste administrazio-organoko batzuen eskaera arrazoitu bidez edota salaketa bidez erabaki ahal izango da.
3. Espedientea norberaren ekimenez hasi dela ulertuko da espediente hasteko eskumena esleituta duen organoak prozeduraren xede diren inguruabarrak, jokabideak edo egitateak zuzenean edo zeharka ezagutzearen ondorioz jarduten duenean.
4. Espediente eskaera arrazoituaren bidez hasi dela ulertuko da prozedura hasteko eskumenik ez duen eta ustekabeen edota ikuskapen-, miaketa- edo ikerketako-funtzioak esleituta izateagatik prozeduraren xede diren zirkunstantzien, jokabideen edo egitateen berri izan duen edozein organok prozedura hasteko proposamena egiten duenean.
5. Espediente salaketa bidez hasi dela ulertuko da edozein pertsonak, betebeharrak bat betetzean edo ez, diziiplina-organoko bati administrazio-prozedura bat ofizioz hastea justifika lezakeen egitate jakin baten berri ematen dienean.
6. Salaketetan adierazi beharko dira haiek aurkezten dituen pertsonaren edo pertsonen identitatea eta diziiplina-organokari jakinarazten zaizkion egitateen azalpena. Egitate horiek diziplinazko arau-haustea izan daitezkeenean, haiek gertatu ziren data jaso beharko da eta, ahal denean, ustez erantzukizuna duen pertsonaren edo pertsonen identifikazioa ere.
7. Salaketa bat aurkezteak ez dio, berez, interesdunaren izaera ematen pertsona edo erakunde salatzaileari kirol-arloko diziiplina-prozeduran.
8. Diziiplina-espediente hasteko eskumena duten

1. El expediente en el procedimiento extraordinario se incoará, en todo caso, de oficio por acuerdo del órgano competente.
2. La incoación se puede acordar bien por propia iniciativa, como consecuencia de comunicación del departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva, a petición razonada de otros órganos administrativos o por denuncia.
3. Se entiende por propia iniciativa la actuación derivada del conocimiento directo o indirecto de las circunstancias, conductas o hechos objeto del procedimiento por el órgano que tiene atribuida la competencia de iniciación.
4. Se entiende por petición razonada la propuesta de iniciación del procedimiento formulada por cualquier órgano que no tiene competencia para iniciar el mismo y que ha tenido conocimiento de las circunstancias, conductas o hechos objeto del procedimiento, bien ocasionalmente o bien por tener atribuidas funciones de inspección, averiguación o investigación.
5. Se entiende por denuncia el acto por el que cualquier persona, en cumplimiento o no de una obligación, pone en conocimiento del órgano disciplinario la existencia de un determinado hecho que pudiera justificar la iniciación de oficio de un procedimiento administrativo.
6. Las denuncias deberán expresar la identidad de la persona o personas que las presentan y el relato de los hechos que se ponen en conocimiento del órgano disciplinario. Cuando dichos hechos pudieran constituir una infracción disciplinaria recogerán la fecha de su comisión y, cuando sea posible, la identificación de las presuntas personas o entidades responsables.
7. La presentación de una denuncia no confiere a la persona o entidad denunciante, por sí sola, la condición de interesada en el procedimiento disciplinario deportivo.
8. Los órganos competentes para incoar el



organoek emango den ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko eta ondasunen eta pertsonen segurtasuna bermatzeko dagozkion kautelazko neurriak erabaki ahal izango dituzte behar bezala arrazoituta. Neurri horiek ez dute zehapen-izaerarik izango eta honako hauek izan daitezke:

- a) Lizentziak etetea.
- b) Fidantzak jartzea.
- c) Zerbitzuak, jarduerak edo baimenak aldi baterako etetea.
- d) Kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioak aldi baterako ixtea.
- e) Kirol-erakundeetako karguak etetea.

121. artikulua. Eskola-kirolaren eta unibertsitate-kirolaren eremuko diziiplina-xedapenak

Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-federazioek diziiplina-erregelamenduak onartuko dituzte, eskola-kirolaren eta unibertsitate-kirolaren esparruan. Erregelamendu horietan honako alderdi hauen erregulazioa jaso beharko da:

- a) Arau-hausteen tipifikazioa, haien larritasunaren arabera mailakatuta.
- b) Zehapen-sistema, arau-haustearen erantzukizuna arindu edo larriagotuko duten inguruabarrak eta diziiplina-erantzukizuna azkentzeko baldintzak.
- c) Honako hauek bermatuko dituzten zenbait arau: egitate berengatik zehapen bikoitzik ez ezartzea, zehapenen proportzionaltasuna, arauen atzeraeragina erruztatutaren aldekoak direnean, eta egin aurretik tipifikatu gabe zeuden arau-hausteengatik zehatzeko debekua.
- d) Zehapenak ezartzeko diziiplina-prozedurak.
- e) Emandako ebazpenen aurkako errekurso-sistema.

122. artikulua. Arau-hausteen motak eta

expediente disciplinario podrán acordar motivadamente las medidas cautelares adecuadas para asegurar la eficacia de la resolución que pudiera recaer y para garantizar la seguridad de bienes y personas. Dichas medidas, que no tendrán carácter de sanción, podrán consistir en:

- a) La suspensión de licencias.
- b) La prestación de fianzas.
- c) La suspensión temporal de servicios, actividades o autorizaciones.
- d) El cierre temporal de instalaciones deportivas y de actividad física.
- e) La suspensión del ejercicio de cargos en entidades deportivas.

Artículo 121. Disposiciones disciplinarias en el ámbito del deporte escolar y universitario

El Gobierno Vasco, en el ámbito del deporte escolar y universitario, así como las federaciones deportivas del País Vasco, aprobarán los correspondientes reglamentos disciplinarios que deberán incluir la regulación de las siguientes cuestiones:

- a) La tipificación de las infracciones, clasificándolas en función de su gravedad.
- b) Un sistema de sanciones, así como las circunstancias que atenúen o agraven la responsabilidad de la persona infractora y los requisitos de extinción de la responsabilidad disciplinaria.
- c) Unas normas que garanticen la inexistencia de una doble sanción por los mismos hechos, la proporcionalidad de las sanciones, la retroactividad de las normas cuando resulten favorables a la persona inculpada y la prohibición de sancionar por infracciones no tipificadas con anterioridad al momento de su comisión.
- d) Unos procedimientos disciplinarios para la imposición de sanciones.
- e) Un sistema de recursos contra las resoluciones dictadas.

Artículo 122. Clases de infracciones y tipificación



tipifikazioa

- | | |
|---|--|
| <p>1. Kirol-arloko diziplinazko arau-haustek oso astunak, astunak eta arinak izan daitezke.</p> <p>2. Titulu honetan deskribatutako arau-hausteez gain, erakundeen erregelamenduek, lege honetan ezarritako printzipio eta irizpide orokorrei jarraikiz, arau-hauste oso astunak, astunak eta arinak izango diren jokabideak tipifikatu ahal izango dituzte, kirol eta erakunde bakoitzaren berezitasunen arabera.</p> <p>3. Lege hau garatzen duten erregelamenduzko xedapenek, halaber, zehaztapenak edo mailakatzek sartu ahal izango dituzte lege honetan ezarrita dauden arau-hausteen koadroan. Zehaztapen eta mailakatzeko horiek ez dute arau-hauste berririk sortuko, ez dituzte aldatuko legean jasotzen diren arau-hausteen izaera edo mugak, eta jokabideak hobeto identifikatzen lagunduko dute.</p> | <p>1. Las infracciones disciplinarias deportivas pueden ser muy graves, graves y leves.</p> <p>2. Además de las infracciones descritas en este título, los reglamentos de las distintas entidades podrán tipificar, de acuerdo con los principios y criterios generales establecidos en esta ley, aquellas conductas que deban constituir infracciones muy graves, graves y leves, en función de las particularidades de los distintos deportes y organizaciones.</p> <p>3. Asimismo, las disposiciones reglamentarias de desarrollo de la presente ley podrán introducir especificaciones o graduaciones en el cuadro de las infracciones establecidas en esta ley, que sin constituir nuevas infracciones, ni alterar la naturaleza o límites de las que en ella se contemplan, contribuyan a la más correcta identificación de las conductas.</p> |
|---|--|

123. artikulua. Arau-hauste oso astunak

Beti ere arau-hauste oso astuntzat hartuko dira honako hauek:

- a) Edozein arrazoiengatik jazarpena edo diskriminazioa dakarten portaerak, edo jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan aritzeko eta parte hartzeko aukera eragozten edo larriki zailtzen dutenak, edota kirolerako eta jardura fisikorako instalazioak erabiltzeko aukera eragozten edo larriki zailtzen dutenak.
- b) Kirolerako eta jardura fisikorako instalazioetan edo haietarako sarbideetan desordena publikoetan indarkeriaz parte hartzea, pertsonen edo ondasunen arrisku larriak eragin diezazkiekeenean.
- c) Jardura fisikoaren eta kirolaren esparruan indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziatzko ekintzak eta emakumeen duintasunaren aurkako ekintzak antolatu, bultzatu, ahalbidetu, estali, defendatu edo sustatzea eta haietan parte hartzea.
- d) Aurreko letran deskribatutako emaitza duten kantuak abestea.
- e) Kirolerako eta jardura fisikorako instalazioetan ideologia totalitarioak, terrorismoa, indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziatzko

Artículo 123. Infracciones muy graves

Se considerarán, en todo caso, infracciones muy graves las siguientes:

- a) Los comportamientos que impliquen acoso o discriminación por cualquier motivo, que impidan o dificulten gravemente la práctica y participación en las actividades físicas y deportivas o impidan o dificulten gravemente el acceso a instalaciones deportivas y de actividad física.
- b) La participación violenta en desórdenes públicos en las instalaciones deportivas y de actividad física o en sus accesos cuando puedan ocasionar graves riesgos a las personas o a los bienes.
- c) La participación, organización, incentivación, facilitación, encubrimiento, defensa o promoción de actos violentos, racistas, xenófobos e intolerantes, así como los contrarios a la dignidad de las mujeres en el ámbito de la actividad física y del deporte.
- d) La entonación de cánticos con el resultado descrito en la letra anterior.
- e) La exhibición en las instalaciones deportivas y de actividad física de pancartas, símbolos, emblemas o leyendas que inciten, fomenten o



portaerak bultzatzen, sustatzen edo goraipatzen dituzten pankartak, sinboloak, ikurrak edo hitzak erakustea edota emakumeen duintasunaren aurkako jokabideak.		exalten las ideologías totalitarias, el terrorismo, los comportamientos violentos, racistas, xenófobos o intolerantes, así como los comportamientos contrarios a la dignidad de las mujeres.	
f)	Aurreko letran adierazitako ekintzak saihesteko arauak, jarraibideak edo neurriak borondatez eta ezaqueraz ez betetzea.	f)	El incumplimiento voluntario y consciente de las normas, instrucciones o medidas para evitar los actos citados en la letra anterior.
g)	Kirol-lehiaketak egiten diren instalazioetan parte-hartzaileei edo ikusleei arrisku larria eragin diezaiekeen edozein arma edo objektu mota, bengalak, petardoak edo adierazitako arriskua dakarren beste edozein elementu sartzea, eramatea edo erabiltzea.	g)	La introducción, porte o utilización, en instalaciones en las que se celebren competiciones deportivas, de cualquier clase de arma o de objeto que pueda provocar un grave riesgo para participantes o asistentes, así como bengalas, petardos o cualesquiera otros elementos que supongan el citado riesgo.
h)	Jarduera fisikoan eta kirolean indarkeriara, arrazakeriara, xenofobiara edo intolerantziara larriki bultzatzen duten adierazpen eta ekintzak, bai eta emakumeen duintasunaren aurkakoak ere.	h)	Las declaraciones y actos en la actividad física y en el deporte que inciten gravemente a la violencia, al racismo, a la xenofobia o la intolerancia, así como los contrarios a la dignidad de las mujeres.
i)	Kirol-organoen eskudantziak edo eskumenak legez kontra usurpatzea.	i)	La usurpación ilegítima de atribuciones o competencias de los órganos deportivos.
j)	Kirol-erakundeetako gobernu-, administrazio-, hauteskunde- edo diziiplina-organoetako kideen betebeharren ez-betetze oso larria.	j)	El incumplimiento muy grave de las obligaciones de las personas que conforman los órganos de gobierno, de administración, disciplinarios o electorales de las entidades deportivas.
k)	Kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioen segurtasunari eta higieneari lotutako kirol-arauak ez betetzea, instalazio horietara joaten direnentzat oso arrisku larria dakarrenean.	k)	El incumplimiento de las normas deportivas relativas a la seguridad e higiene de las instalaciones deportivas y de actividad física cuando supongan un riesgo muy grave para las personas que asisten a ellas.
l)	Kirol-erakundeen estatutuetako eta erregelamenduetako arauak eta erabakiak behin eta berriz eta nabarmenki ez betetzea.	l)	El reiterado y manifiesto incumplimiento de las normas estatutarias y reglamentarias y de los acuerdos de las entidades deportivas.
m)	Kirol-kargu bat betetzeagatik ezagutzen diren datu eta informazioen konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra edo sekretuak urratzea.	m)	La violación de secretos o del deber de confidencialidad de datos e informaciones conocidas por razón del cargo deportivo.
n)	Segurtasunari eta arriskuen estaldurari buruzko arauak betetzen ez dituzten kirol-jarduerak edo jarduera fisikoenak antolatzea, jarduera egiteak hirugarrenentzat arrisku oso larriak dakartzanean.	n)	La organización de actividades deportivas o de actividad física que incumplan las normas de seguridad y de cobertura de riesgos cuando la realización de la actividad genere riesgos muy graves para terceras personas.
o)	Kirol-jardueretan osasun-arloko profesionalak edo baliabideak egoteko betebeharra ez betetzea.	o)	El incumplimiento de la obligación de presencia en actividades deportivas de profesionales o dispositivos sanitarios.



- | | | | |
|----|---|----|---|
| p) | Arbitroak eta epaileak, kirolariak, teknikariak, kirol-agintariak eta kirol-ekitaldietan esku hartzen duten beste pertsona batzuk erasotzea, lardieratzea edo derrigortzea. | p) | La agresión, intimidación o coacción a árbitros o árbitros y juezas o jueces, deportistas, técnicas o técnicos, autoridades deportivas y otras personas intervinientes en los eventos deportivos. |
| q) | Aurreko letretan adierazi ez diren eta bereziki larriak diren kirol-esparruko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziak ekintzak, bai eta emakumeen duintasunaren aurkakoak ere. | q) | Las acciones de violencia, racismo, xenofobia e intolerancia en el deporte, así como las acciones contra la dignidad de las mujeres en el deporte, no enumeradas en las letras precedentes y que revistan especial gravedad. |
| r) | Autoritate-abusua eta arauak kirol-organismoen esleitzen dizkieten eskumenak edo ahalmenak baliatzean agertutako edozein gehiegikeria. | r) | El abuso de autoridad y cualquier extralimitación en el ejercicio de competencias o facultades que las normas atribuyen a los órganos deportivos. |
| s) | Partida, proba edo lehiaketa bat egitea eragozten duten edo hura aldi baterako edo behin betiko etetera behartzen duten protesta edo jarduketak kolektiboak edo kirol-legearen kontrako portaera oro. | s) | La protesta o actuación colectiva o cualquier comportamiento antideportivo que impida la celebración de un encuentro, prueba o competición o que obligue a su suspensión temporal o definitiva. |
| t) | Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eta beste kirol-organo batzuen ebazpenak ez betetzea. | t) | La no ejecución de las resoluciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva y de otros órganos deportivos. |
| u) | Justifikatutako arrazoirik gabe kirol-lizentziak ez ematea edo atzeratzea, betiere tartean fede txarra badago. | u) | La no expedición o el retraso, sin causa justificada, de las licencias deportivas, siempre que medie mala fe. |
| v) | Kirol-esparruko duintasunaren edo begirunearen aurkakoak diren ekintza nabariak eta publikoak egitea, bereziki larriak direnean. | v) | La realización de actos notorios y públicos que afecten a la dignidad, al decoro o al respeto en el deporte cuando revistan especial gravedad. |
| w) | Jokoaren edo lehiaketaren emaitza aurrez ezartzera bideratutako ekintzak edo ez-egiteak. | w) | Las acciones u omisiones tendentes a predeterminar el resultado del juego o de la competición. |
| x) | Proben edo lehiaketen emaitzaren iruzurrezko aldatetak, proba edo lehiaketa horiek egin aurretik akordio, larderia, prezio edo iruzurrezko beste edozein baliabideren bidez emaitzan eragitera bideratuta dauden edo helburu hori duten jokabideak barne hartuta. | x) | Las modificaciones fraudulentas del resultado de las pruebas o competiciones, incluidas las conductas previas a la celebración de las mismas que se dirijan o persigan influir en el resultado mediante acuerdo, intimidación, precio o cualquier otro medio fraudulento. |
| y) | Kirol-ekipamenduko materiala arau teknikoaren aurka manipulatzea edo aldatzea, proben emaitza alda daitekeenean edo pertsonen integritatea arriskuan jartzen denean. | y) | La manipulación o alteración del material de equipamiento deportivo, en contra de las reglas técnicas, cuando puedan alterar el resultado de las pruebas o pongan en peligro la integridad de las personas. |
| z) | Kirol-lehiaketa batzuei lotuta egonik, lehiaketa horien inguruko apustueta parte hartzea eta lehiaketa horietan iragarle-zerbitzuak edo antzekoak egitea. | z) | La participación en apuestas vinculadas a competiciones deportivas con las que se tengan alguna relación, así como la prestación de servicios como pronosticador o pronosticadora o servicios análogos en tales competiciones. |



- | | |
|--|---|
| aa) Kirol-erakundeen organoek ondarea administratu eta kudeatzeko arauak ez betetzea, ondarean kalte larria eragiten denean. | aa) El incumplimiento por parte de los órganos de las entidades deportivas de las normas de administración y gestión del patrimonio con grave perjuicio para aquel. |
| bb) Erregelamenduzko baldintzak ez betetzeagatik kirolarien bidegabeko zerrenda egitea, aurrez pentsatua egiten denean. | bb) La alineación indebida de deportistas por no reunir los requisitos reglamentarios cuando se realice de modo premeditado. |
| cc) Kirolarien, teknikarien edota kirol-lehiaketetan parte hartzen duen beste edozein pertsonaren identitatea ordeztzea. | cc) La suplantación de la identidad de deportistas, de técnicos, técnicas o de cualquier otra persona que participe en las competiciones deportivas. |
| dd) Justifikaziorik gabe probetan, partidetan edo lehiaketetan ez agertzea eta lehiaketa, proba edo partida uztea, bereziki larria denean. | dd) La incomparecencia injustificada a pruebas, partidos o competiciones, la retirada de la competición, prueba o encuentro cuando revista especial gravedad. |
| ee) Arbitroaren ordainsariak behin eta berriz ez ordaintzea. | ee) El impago reiterado de los honorarios arbitrales. |
| ff) Arbitroaren aktak asmo gaiztoz idaztea, aldatzea edo manipulatzeko. | ff) La redacción, alteración o manipulación con carácter malicioso de las actas arbitrales. |
| gg) Kirolariak, taldeak edo kirol-lehiaketetan parte hartzen duen beste edozein pertsona inskribatzeko datuak edo dokumentuak faltsutzea. | gg) La falsedad en el suministro de datos o documentos para inscripción de deportistas, equipos o cualesquiera otras personas participantes en competiciones deportivas. |
| hh) Diziiplina-organoei laguntzeko betebeharraren ez-betetze larria. | hh) El incumplimiento grave del deber de colaborar con los órganos disciplinarios. |
| ii) Arau-hauste astunengatik edo oso astunengatik ezarritako zehapenak urratzea. | ii) El quebrantamiento de sanciones impuestas por infracción grave o muy grave. |
| jj) Arau-hauste astunak behin eta berriz egitea. | jj) La reiteración en la comisión de infracciones graves. |
| kk) Kautelazko neurriak ez-betetzea. | kk) El incumplimiento de las medidas cautelares. |
| ll) Kirol-federazioen estatutuetan edo erregelamenduetan izaera horrekin ezartzen direnak. | ll) Las que con tal carácter se establezcan en los estatutos o reglamentos de las federaciones deportivas. |
| mm) Kirol-arbitroek edo epaileek kirol-lehiaketetan parte hartzen duten pertsona edo talde batzuen alde nahita agertutako alderdikeria. | mm) La parcialidad deliberada de las árbitras y árbitros o de las juezas y jueces deportivos hacia algunas de las personas o equipos participantes en las competiciones deportivas. |

124. artikulua. Arau-hauste astunak

Betiere arau-hauste astuntzat hartuko dira honako hauek:

- a) 123. artikuluan tipifikatutako jokabideak

Artículo 124. Infracciones graves

Se considerarán en todo caso infracciones graves las siguientes:

- a) La realización de las conductas tipificadas en el



burutzea, baldin eta ez badira betetzen artikuluko horretan arau-hauste oso astuntzat hartzeko eskatzen diren baldintza eta inguruabarrak, hala nola, larritasun edo larritasun berezikoak, kalte larrikoak, arriskukoak, errepikapenekoak, aurrez pentsatutakoak edo fede txarrekoak.		artículo 123 cuando no concurren los requisitos o circunstancias de gravedad o especial gravedad, tales como el grave perjuicio, riesgo, peligro, reiteración, premeditación o mala fe exigidas en dicho artículo para ser consideradas como infracción muy grave.	
b)	Arau-hauste arin batengatik ezarritako zehapenak urratzea.	b)	El quebrantamiento de sanciones impuestas por falta leve.
c)	Gobernu-, administrazio-, diziplina- edo hauteskunde-organoetako kideek dagokien jardunean ez jardutea edo beren funtzioak alde batera uztea, betebeharren ez-betetze oso larria ez denean.	c)	La inactividad o dejación de funciones de las personas que conforman los órganos de gobierno, de administración, disciplinarios o electorales que no supongan un incumplimiento muy grave de sus deberes.
d)	Justifikaziorik gabe euskal kirol-federazioen selekzioen deialdietara ez joatea.	d)	La injustificada falta de asistencia a las convocatorias de las selecciones de las federaciones deportivas vascas.
e)	Deitutako kirolariak aurreko letran adierazitako selekzioen esanetara ez jartzea.	e)	La no puesta a disposición de las selecciones citadas en la letra anterior de las deportistas y los deportistas convocados.
f)	Justifikatutako arrazoirik gabe kirol-lizentziak ez izapidetzea, ez ematea edo atzeratzea.	f)	La no tramitación o no expedición o el retraso, sin causa justificada, de las licencias deportivas.
g)	Jokoaren, probaren edo lehiaketaren garapen normala oztopatzen duen protesta, ekitaldia etetea eragiten ez duenean.	g)	La protesta que altere el normal desarrollo del juego, prueba o competición, sin causar su suspensión.
h)	Arbitroak edo epaileak, teknikariak, kirol-agintariak, kirolariak edo ikusleak iraintzea eta laidoztatzea, eta pertsona horiekiko indarkeria arinez jokatzeta.	h)	Los insultos y ofensas a árbitros y árbitros o juezas y jueces, técnicas y técnicos, autoridades deportivas, deportistas o público asistente, así como comportarse con violencia leve hacia tales personas.
i)	Arbitroen edo epaileen eta teknikarien berezko jarduerak beharrezkoa den titulaziorik edo baimenik gabe egitea.	i)	La realización de actividades propias de árbitros y árbitros o juezas y jueces, así como de técnicas y técnicos sin la debida titulación o autorización.
j)	Arau-hauste arinak behin baino gehiagotan egitea.	j)	La reincidencia en la comisión de infracciones leves.
k)	Ofizial izendatutako kirol-arloko jarduera, proba edo lehiaketak antolatzea dagokion kirol-baimenik gabe.	k)	La organización de actividades, pruebas o competiciones deportivas con la denominación de oficiales sin la autorización deportiva correspondiente.
l)	Betetzen den funtzioarekin edo egiten den kirol-jarduerarekin bateraezintzat jotzen diren jarduera publiko edo pribatuak egitea.	l)	El ejercicio de actividades públicas o privadas declaradas incompatibles con la función o actividad deportiva desempeñada.
m)	Kirol-lehiaketa egiteko beharrezkoa den duintasunaren edo begirunearen aurkako jarduketa nabaria eta publikoa, arau-hauste oso	m)	La actuación notoria o pública de forma claramente atentatoria contra la dignidad o decoro que exige el desarrollo de la competición



astuna ez denean.	deportiva cuando no revista el carácter de infracción muy grave.
n) Kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioen segurtasunari eta higieneari lotutako kirol-arauak ez betetzea, instalazio horietara joaten direnentzat arrisku larrik ez dakarrenean.	n) El incumplimiento de las normas deportivas relativas a la seguridad e higiene en las instalaciones deportivas y de actividad física cuando no supongan un riesgo grave para las personas asistentes a las mismas.
o) Kirol-lehiaketetako megafonia ofizialaren erabilerari buruzko arauak ez betetzea, helburua talde edo kirolari aurkariaren jarduketan eragin negatiboa izatea bada eta, betiere, arau-hauste oso astuna edo arina ez bada.	o) El incumplimiento de las normas sobre el uso de megafonía oficial en las competiciones deportivas con el fin de interferir negativamente en la actuación del equipo o deportista rival, siempre que no tenga el carácter de infracción muy grave o leve.
p) Maskoten edo animazio-taldeen jarduketa, horren asmoa proben edo partidaren garapena eragozteko edo ikusleak portaera desegokiak egitera bultzatzea denean.	p) La actuación de mascotas o grupos de animación con el ánimo de perturbar el buen desarrollo de las pruebas o encuentros o de incitar a comportamientos inadecuados de las personas espectadoras.
q) Probak edo partidak egitean ordena asalda daitekeela aurreikusten denean, segurtasuneko indar eta kidegoei joateko ez eskatzea.	q) La no solicitud de asistencia de las fuerzas y cuerpos de seguridad cuando resulten previsibles alteraciones del orden con ocasión de la disputa de las pruebas o encuentros.
r) Zelaira, kantzara edo proba edo partida egiten den lekura objektuak jaurtitzea, arau-hauste oso astuna edo arina ez denean.	r) El lanzamiento de objetos al terreno, cancha o lugar de desarrollo de la prueba o encuentro cuando no revista el carácter de infracción muy grave o leve.
s) Partidetako ofizialen mahaien eta talde aurkariaren aulkien atzean musika-banda edo -taldeak, animazio-taldeak eta antzeko beste edozein talde kokatzea, helburu bakarra denean haien kirol-jardunean eragin negatiboa izatea.	s) La ubicación, tras las mesas de oficiales de los encuentros y de los banquillos de los equipos rivales, de bandas o grupos de música, grupos de animación y cualquier otra intervención análoga con el fin exclusivo de interferir negativamente en su actuación deportiva.
t) Kirol-erakundearen estatutuetako eta erregelamenduetako arauak eta erabakiak ez betetzea.	t) El incumplimiento de las normas estatutarias y reglamentarias y de los acuerdos de las entidades deportivas.
u) Kirol-erakundearen organoek federazioaren ondarea administratu eta kudeatzeko arauak ez betetzea, ondarean kalte larria eragiten denean.	u) El incumplimiento por parte de los órganos de las entidades deportivas de las normas de administración y gestión del patrimonio federativo con grave perjuicio a aquel.
v) Segurtasunari eta arriskuen estaldurari buruzko arauak betetzen ez dituzten kirol-jarduerak antolatzea, jarduera egiteak hirugarren pertsonentzat edo erakundeentzat arriskurik ez dakarrenean.	v) La organización de actividades deportivas que incumplan las normas de seguridad y de cobertura de riesgos cuando la realización de la actividad no genere riesgos para terceras personas o entidades.
w) Kirol-taldeak kirolariari eusteko eskubidearen arloko debekuak ez betetzea, edota nahitaezko	w) El incumplimiento de las prohibiciones en materia de derechos de retención, de imposición



luzapena ezartzeko edo prestakuntzagatik ordaina jasotzeko zein antzeko alderdiei lotutako debekuak ez betetzea.		de prórroga forzosa o de percibir compensación por formación o análogos.	
x)	Kirol-kargu bat betetzean sekretuak gordetzeko betebeharra edo konfidentzialtasun-betebeharra urratzea.	x)	La violación del deber de secreto o del deber de confidencialidad en el ejercicio del cargo deportivo.
y)	Erregelamenduzko baldintzak ez betetzeagatik kirolarien bidegabeko zerrenda egitea, zabarkeriaren ondorioz egiten denean.	y)	La alineación indebida de deportistas por no reunir los requisitos reglamentarios cuando se cometa por negligencia.
z)	Justifikaziorik gabe probetan, partidetan edo lehiaketetan ez agertzea eta lehiaketa, proba edo partida uztea, bereziki larria ez denean.	z)	La incomparecencia injustificada a pruebas, partidos o competiciones, la retirada de la competición o la retirada de la prueba o del encuentro cuando no revista especial gravedad.
aa)	Justifikaziorik gabe probetan, partidetan edo lehiaketetan berandu agertzea, haiek egitea eragozten ez denean.	aa)	La comparecencia tardía injustificada a pruebas, partidos o competiciones cuando no impidan su celebración.
bb)	Partiden antolaketaren berezko betebeharrak ez betetzea, eta orobat joko-eremuen baldintzei, baliabide teknikoiei, aldagelei eta erregelamenduz ezarritako gainerako baldintzei buruzko xedapenak ez betetzea, arau-hauste arina edo oso astuna ez denean.	bb)	El incumplimiento de los deberes propios de la organización de partidos y de las disposiciones relativas a las condiciones de los terrenos de juegos, de los dispositivos técnicos, de los vestuarios y de las demás condiciones establecidas reglamentariamente cuando no constituyan una infracción leve o muy grave.
cc)	Hirugarren pertsona edo erakundeei kirol-emaizta positiboak lortzeko pizgarriak agintzea edo ematea.	cc)	La promesa o entrega de incentivos a terceras personas o entidades para conseguir resultados deportivos positivos.
dd)	Arbitroaren ordainsariak ez ordaintzea.	dd)	El impago de los honorarios arbitrales.
ee)	Arbitro-aktak zabarkeriaz idaztea, era osatugabea edo oker beteta	ee)	La redacción negligente de las actas arbitrales cumplimentadas de forma incompleta o errónea.
ff)	Partidetako ordezkarien betebeharren ez-betetze larria.	ff)	El incumplimiento grave de las obligaciones de las delegadas y los delegados de partidos.
gg)	Lizentzien bikoiztasuna, berariaz debekatuta dagoenean.	gg)	La duplicidad de licencias que esté expresamente prohibida.
hh)	Kantxen, pisten edo jokalekuen baldintzak asmo gaiztoz aldatzea edota ezinbesteko arrazoiengatik edo ezusteko kasuetan leku horietan agertutako hutsuneak nahita edo zabarkeriaren ondorioz ez zuzentzea, horrek proba edo partida etetea dakarrenean.	hh)	La alteración maliciosa de las condiciones de las canchas, pistas o terrenos de juego, o las deficiencias en aquellas motivadas por fuerza mayor o caso fortuito, que no se subsanen por voluntad o negligencia, determinando la suspensión de la prueba o encuentro.
ii)	Kirol-jantzietan erregelamenduz debekatuta dauden mezuak txertatzea.	ii)	La inserción de mensajes en la equipación deportiva que se encuentren prohibidos reglamentariamente.
jj)	Ikusleak probokatzeko ekintzak egitea, oso	jj)	La realización de actos de provocación al



	larriak ez direnean.		público cuando no revistan el carácter de muy graves.
kk)	Lege honek ezartzen dituen gobernantza onaren arloko betebeharrak ez betetzea.	kk)	El incumplimiento de las obligaciones establecidas en esta ley en materia de buena gobernanza.
ll)	Kirol-federazioen estatutuetan edo erregelamenduetan izaera horrekin ezartzen direnak.	ll)	Las que con tal carácter se establezcan en los estatutos o reglamentos de las federaciones deportivas.
mm)	Arbitroek edo epaileek kirol-lehiaketak egitean emandako aginduak behin eta berriz ez betetzea.	mm)	El incumplimiento reiterado de las órdenes emanadas de árbitras y árbitros o jueces y juezas durante la celebración de las competiciones deportivas.
nn)	Lege honetan federazio-, eskola- edo unibertsitate-lizentziak izapidetzearen eta ematearen arloan ezarritako betebeharrak edo baldintzak ez betetzea.	nn)	El incumplimiento de las obligaciones o condiciones establecidas en la presente ley en materia de tramitación y emisión de licencias federadas, escolares o universitarias.

125. artikulua. Arau-hauste arinak

Betiere arau-hauste arintzat hartuko dira honako hauek:

- a) Aurreko artikuluan deskribatutako jokabideak, betiere erabilitako baliabideak, emaitzak, asmoa eta antzeko beste inguruabar oro kontuan hartuta, larritasun txikiagoa badute.
- b) Arbitro edo epaileei, teknikariei, kirol-agintariei, kirolariei edo ikusleei gauzak esatea edo keinuak egitea, portaera txarra edo begirunerik eza adierazten dutenean.
- c) Jarrera pasiboa hartzea beren eginkizunak betetzen ari diren arbitro edo epaile eta gainerako kirol-agintariak emandako agindu edo jarraibideak betetzean.
- d) Hauteskunde- edo diziplina-organoetako kideek dagokien jardunean ez jardutea edo beren funtzioak alde batera uztea, ez-betetze arina denean.
- e) Joko-eremuen baldintzei, baliabide teknikoei, aldagelei eta erregelamenduz ezarritako gainerako baldintzei buruzko xedapenak ez betetzea, arau-hauste astuna ez denean.
- f) Probak edo partidak egitean kirol-jantziak

Artículo 125. Infracciones leves

Se considerarán, en todo caso, infracciones leves las siguientes:

- a) Las conductas descritas en el artículo anterior cuando impliquen una gravedad menor en atención a los medios empleados, los resultados producidos, la intencionalidad y cualesquiera otras circunstancias análogas.
- b) La formulación de expresiones o gestos a árbitras y árbitros o juezas y jueces, técnicos, técnicas, autoridades deportivas, deportistas o público asistente de manera que suponga una incorrección o desconsideración.
- c) La adopción de una actitud pasiva en el cumplimiento de las órdenes e instrucciones recibidas de árbitras y árbitros o juezas y jueces y demás autoridades deportivas en el ejercicio de sus funciones.
- d) La inactividad o dejación de funciones de las personas que conforman los órganos disciplinarios o electorales que supongan un leve incumplimiento.
- e) El incumplimiento de las disposiciones relativas a las condiciones de los terrenos de juegos, dispositivos técnicos, vestuarios y demás condiciones establecidas reglamentariamente cuando no constituyan una infracción grave.
- f) El incumplimiento de las disposiciones



arautzen dituzten xedapenak ez betetzea.

- g) Probak edo partidak egiteko ordutegi eta egun ofizialak eta lekuak aldatzea kirol-erakunde eskudunaren baimenik gabe.
- h) Kirol-federazioen estatutuetan edo erregelamenduetan izaera horrekin ezartzen direnak.

126. artikulua. Zehapenak

- 1. Arau-hauste oso astunak egiteagatik, honako zehapen hauek aplikatu ahal izango dira:
 - a) Lizentzia etetea urtebetetik bost urtera bitartean, gehienez ere.
 - b) Lizentzia behin betiko kentzea.
 - c) 6.001 eurotik 60.000 eurora bitarteko isuna.
 - d) Kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioa, gutxienez, hiru partidarako eta, gehienez ere, bi denboraldirako itzea.
 - e) Karguak eta funtzioak betetzeko desgaitzea urtebetetik bost urtera bitartean, gehienez ere.
 - f) Kategoria bat edo gehiago jaistea.
 - g) Jokotik, probatik edo lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
 - h) Jokotik, probatik edo lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
 - i) Probak edo lehiaketak egiten direnean kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioetarako sarrera debekatzea urtebetetik bost urtera bitartean, gehienez ere.
 - j) Jokoak, probak edo lehiaketak ateak itxita egitea.
 - k) Jardunaldi edo proba baten baino gehiagoren baliokide diren puntuak, partidak edo postuak galtzea.

reguladoras de las equipaciones durante la celebración de pruebas o encuentros.

- g) Las modificaciones relativas a los horarios y fechas oficiales de celebración de las pruebas o encuentros, así como de los lugares de celebración, sin la autorización de la entidad deportiva competente.
- h) Las que con tal carácter se establezcan en los estatutos o reglamentos de las federaciones deportivas.

Artículo 126. Sanciones

- 1. Las sanciones que se podrán aplicar por la comisión de las infracciones muy graves serán las siguientes:
 - a) Suspensión de licencia por plazo de más de un año y hasta un máximo de cinco años.
 - b) Privación definitiva de licencia.
 - c) Multa de cuantía comprendida entre 6.001 y 60.000 de euros.
 - d) Clausura de recinto deportivo desde tres partidos hasta un máximo de dos temporadas.
 - e) Inhabilitación para el desempeño de cargos y funciones por plazo de más de un año y hasta un máximo de cinco años.
 - f) Descenso de categoría o de categorías.
 - g) Expulsión definitiva del juego, prueba o competición.
 - h) Expulsión temporal del juego, prueba o competición.
 - i) Prohibición de acceso a las instalaciones deportivas y de actividad física durante la celebración de pruebas o competiciones por plazo de más de un año y hasta un máximo de cinco años.
 - j) Celebración de juegos, pruebas o competiciones a puerta cerrada.
 - k) Pérdida de puntos, partidos o puestos clasificatorios equivalentes a más de una jornada o prueba.



2. Arau-hauste astunak egiteagatik, honako zehapen hauek aplikatu ahal izango dira:

- a) Lizentzia etetea hilabetetik urtebetera bitartean, gehienez ere.
- b) 601 eurotik 6.000 eurora bitarteko isuna.
- c) Kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioa bi partidarako ixtea, gehienez ere.
- d) Karguak eta funtzioak betetzeko desgaitzea urtebetez, gehienez ere.
- e) Jokotik, probatik edo lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- f) Jokotik, probatik edo lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
- g) Probak edo lehiaketak egiten direnean kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioetarako sarrera debekatzea urtebetez, gehienez ere.
- h) Jokoak, probak edo lehiaketak ateak itxita egitea.
- i) Jardunaldi edo proba baten baliokide diren puntuak, partidak edo postuak galtzea.
- j) Kargu-hartze pribatua.
- k) Kargu-hartze publikoa.

3. Arau-hauste arinak egiteagatik, honako zehapen hauek aplikatu ahal izango dira:

- a) Lizentzia etetea hilabetez, gehienez ere.
- b) 600 eurora bitarteko isuna.
- c) Jokotik, probatik edo lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
- d) Kargu-hartze pribatua.
- e) Kargu-hartze publikoa.

2. Las sanciones que se podrán aplicar por la comisión de las infracciones graves serán las siguientes:

- a) Suspensión de licencia por plazo de más de un mes y hasta un máximo de un año.
- b) Multa de cuantía comprendida entre 601 y 6.000 euros.
- c) Clausura de recinto deportivo hasta dos partidos.
- d) Inhabilitación para el desempeño de cargos y funciones por plazo de hasta un año.
- e) Expulsión definitiva del juego, prueba o competición.
- f) Expulsión temporal del juego, prueba o competición.
- g) Prohibición de acceso a las instalaciones deportivas y de actividad física durante la celebración de pruebas o competiciones por plazo de hasta un año.
- h) Celebración de juegos, pruebas o competiciones a puerta cerrada.
- i) Pérdida de puntos, partidos o puestos clasificatorios equivalentes a una jornada o prueba.
- j) Amonestación privada.
- k) Amonestación pública.

3. Las sanciones que se podrán aplicar por la comisión de las infracciones leves serán las siguientes:

- a) Suspensión de licencia por plazo de hasta un mes.
- b) Multa de hasta 600 euros.
- c) Expulsión temporal del juego, prueba o competición.
- d) Amonestación privada.
- e) Amonestación pública.



4. Beren jardueragatik ordainsariak jasotzen dituzten pertsona fisikoei baino ezin izango zaie isun ekonomikoko zehapena jarri.
5. Dagokion diziplina-espedientearen bitartez ezarritako zehapenak berehala bete beharrekoak izango dira, kalterik egin gabe dagozkion errekurtsoak ebatzi behar dituzten federazio-organoek, administrazio-organoek edo jurisdikzio-organoek zehapena kautelaz eteteko dituzten ahalmenei.
6. Lege hau garatzen duten erregelamenduzko xedapenak mailakatzeak sartu ahal izango dituzte lege honetan ezarrita dauden zehapenen koadroan. Mailakatze horiek ez dute zehapen berriak sortuko, eta dagozkion zehapenak era zehatzagoan finkatzen lagunduko dute.
7. Adingabeen kasuan eta zehapenaren hezkuntza-helburua kontuan hartuta, zehapenen ordeko neurriak ezarri ahal izango dira, adina eta inguruabar pertsonalak kontuan hartuta.

127. artikulua. Erantzuleak

1. Pertsona fisikoek edo juridikoek lege honetan aurreikusitako arau-haustea egiteagatik duten erantzukizuna subjektiboa izango da eta dolo edo erruz ezarri ahal izango da.
2. Arau-hausteen erantzule izango dira, soilik, arau-haustea burutu duten pertsonak.

Egileak dira legean tipifikatutako gertakaria beren kasa, beste norbaitekin batera edo beste norbaitez baliatuz burutzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

Halaber, egiletzat hartuko dira egintzen bidez jokaera arau-hauslea gauzatzen laguntzen duten pertsonak, baldin egintza horiek ezinbestekoak badira jokaera gauzatzeko.
3. 14 urtetik beherakoak ez dira erantzule izango, kirol-diziplinaren arloko xedapen espezifikorik ezean.

128. artikulua. Erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak

1. Diziplina-erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak aringarriak eta astungarriak izan daitezke.

4. Solo se podrá imponer la sanción de multa económica a las personas físicas que perciban remuneraciones por su actividad.
5. Las sanciones impuestas a través del correspondiente expediente disciplinario serán inmediatamente ejecutivas, sin perjuicio de las facultades de suspensión cautelar de que disponen los órganos federativos, administrativos o jurisdiccionales que deban conocer de los recursos pertinentes.
6. Las disposiciones reglamentarias de desarrollo de la presente ley podrán introducir graduaciones en el cuadro de las sanciones establecidas en esta ley que, sin constituir nuevas sanciones, contribuyan a la más precisa determinación de las sanciones correspondientes.
7. En el caso de personas menores de edad y atendiendo a la finalidad educativa de la sanción, se podrán establecer medidas sustitutivas de las sanciones, atendiendo a su edad y a sus circunstancias personales.

Artículo 127. Responsables

1. La responsabilidad de las personas físicas o jurídicas por la comisión de las infracciones previstas en esta ley será subjetiva y podrá establecerse a título de dolo o culpa.
2. Únicamente serán responsables de las infracciones sus autoras o autores.

Son autoras las personas físicas o jurídicas que realicen el hecho tipificado en la ley, por sí mismas, conjuntamente con otras, o por medio de otra de la que se sirvan como instrumento.

También serán consideradas autoras las personas que cooperen en la ejecución de la conducta infractora con actos sin los cuales esta no se hubiera producido.
3. No serán responsables las personas menores de 14 años, salvo disposición específica al efecto en materia de disciplina deportiva.

Artículo 128. Circunstancias modificativas de la responsabilidad

1. Las circunstancias que modifican la responsabilidad disciplinaria pueden ser atenuantes y agravantes.



- | | |
|--|---|
| <p>2. Inguruabar aringarriak dira:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Arau-haustea egin aurretik probokazio nahikoa gertatu izana.b) Berez damutu izana.c) Errudunak arau-haustearen ondorioak onbideratu edo arindu, biktima asebetetzea edo egitateak borondatez aitortu izana. <p>3. Inguruabar astungarriak dira:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Arau-haustea behin eta berriz egitea, berrerortzea izan gabe.b) Berrerortzea, arau-hausleari azken urtean izaera bereko arau-hauste batengatik zehapen bat ezarri zaionean.c) Legez kontra lortutako prezio edo onura.d) Aldez aurretik ohartarazi izana.e) Arau-haustea egitea edozein diskriminazio motarengatik. <p>4. Kirol-arloko diziplina-ahala baliatzean, diziplina-organoek bidezkoz hartzen duten mailan ezarri ahal izango dute zehapena, honako irizpide hauek kontuan hartuta:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Egitateen izaera.b) Erantzulearen nortasuna.c) Arau-haustearen ondorioak edo eragindako kalteen izaera.d) Erruduntasun-maila edo intentzionalitatea egotea.e) Zehatutako pertsona fisiko edo juridikoaren jardueraren bolumen ekonomikoa.f) Arau-haustean esku hartu duten pertsonen kopuru handiago edo txikiagoa.g) Ekintzak edo ez-egiteak berriz egitea edo | <p>2. Son circunstancias atenuantes:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Haber precedido, inmediatamente a la comisión de la infracción, una provocación suficiente.b) El arrepentimiento espontáneo.c) Haber procedido la persona culpable a reparar o disminuir los efectos de la infracción, dar satisfacción a la víctima o confesar los hechos voluntariamente. <p>3. Son circunstancias agravantes:</p> <ul style="list-style-type: none">a) La reiteración infractora cuando no sea constitutiva de reincidencia.b) La reincidencia cuando se haya impuesto a la persona infractora una sanción en el último año por infracción de la misma naturaleza.c) El precio o el beneficio ilícito obtenido.d) La existencia de advertencia previa.e) La comisión de la infracción por motivos discriminatorios de cualquier naturaleza. <p>4. En el ejercicio de la potestad disciplinaria deportiva los órganos disciplinarios podrán imponer la sanción en el grado que estimen oportuno, atendiendo a los siguientes criterios:</p> <ul style="list-style-type: none">a) La naturaleza de los hechos.b) La personalidad de la responsable o el responsable.c) Las consecuencias de la infracción o la naturaleza de los perjuicios causados.d) El grado de culpabilidad o la existencia de intencionalidad.e) El volumen económico de la actividad de la persona física o jurídica sancionada.f) El mayor o menor número de personas intervinientes en la infracción.g) La reiteración o continuidad de las |
|--|---|



egiten jarraitzea.

- h) Arau-hausleak diziplina-organoekin agertutako lankidetzaren maila.
- i) Inguruabar astungarriak edo aringarriak agertzea.

129. artikulua. Erantzukizuna azkentzeko arrazoiak

1. Kirol-arloko diziplina-erantzukizuna honako kasu hauetan azkentzeko da:
 - a) Zehapena betetzean.
 - b) Arau-haustea preskribatzean.
 - c) Zehapena preskribatzean.
 - d) Erruztatutako edo zehatutako pertsona hiltzean.
 - e) Erruztatutako edo zehatutako kirol-erakundea azkentzean.
 - f) Zehapena barkatzean.
2. Pertsona federatuaren izaera galtzea ez da izango diziplina-erantzukizuna azkentzeko arrazoi, horrek, zenbait kasutan, ezarritako zehapenen eraginkortasunean eragina izan badezake ere.

130. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa

1. Arau-haustea hiru urteko, urtebeteko edo hilabeteko epean preskribatuko dira, arau-hauste oso astunak, astunak edo arinak diren kontuan hartuta, eta preskripzio-epea arau-haustea egiten den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Jarduera jarraitu baten ondoriozko arau-hausteetan, zenbatzen hasteko eguna jarduera amaitzen den eguna edo arau-haustea burutzen duen azken ekintzaren eguna izango da.
2. Preskripzio-epea etengo da diziplina-prozedura hasiko dela jakinarazten denean. Prozedura hori hilabetetik gorako epe batean gelditu bada eta arrazoi prozedura hori lotutako pertsona edo erakunde erantzuleari egotzi ezin bazaio, epea aurrera egingo du berriz.

acciones u omisiones.

- h) El grado de colaboración de la persona infractora con los órganos disciplinarios.
- i) La concurrencia de circunstancias agravantes o atenuantes.

Artículo 129. Causas de extinción de la responsabilidad

1. La responsabilidad disciplinaria deportiva se extingue en todo caso:
 - a) Por cumplimiento de la sanción.
 - b) Por prescripción de la infracción.
 - c) Por prescripción de la sanción.
 - d) Por fallecimiento de la persona inculpada o sancionada.
 - e) Por extinción de la entidad deportiva inculpada o sancionada.
 - f) Por condonación de la sanción.
2. La pérdida de la condición de persona federada, aun cuando pueda afectar en algunos casos a la efectividad de las sanciones impuestas, no será causa de extinción de la responsabilidad disciplinaria.

Artículo 130. Prescripción de infracciones y sanciones

1. Las infracciones prescribirán a los tres años, al año o al mes, según se trate de infracciones muy graves, graves o leves, comenzándose a contar el plazo de prescripción el día en que la infracción se hubiere cometido. En las infracciones derivadas de una actividad continuada, la fecha inicial del cómputo será la de la finalización de la actividad o la del último acto con que la infracción se consuma.
2. El plazo de prescripción se interrumpirá en el momento en que se notifique la iniciación del procedimiento disciplinario. Si este procedimiento permanece paralizado durante más de un mes, por causa no imputable a la persona o entidad responsable sujeta a dicho procedimiento, volverá a correr el plazo correspondiente.



3. Zehapenak hiru urteko, urtebeteko edo hilabeteko epean preskribatuko dira, zehapena eragin duten arau-haustek oso astunak, astunak edo arinak diren kontuan hartuta, eta preskripzio-epea zehapena ezarri zuen ebazpena irrimo bilakatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen, edota betetze hori hasi bada, hura urratzen denetik aurrera.

131. artikulua. Zehapenen publizitatea

1. Kirol-erakundeek diziplina-zehapenak ezartzen dituzten ebazpenak argitaratu ahal izango dituzte dagokion web-orrian.
2. Argitalpenak honako muga hauek errespetatu beharko ditu:
 - a) Publizitatea zehapenetara mugatuko da zehapen exekutiboak direnean.
 - b) Argitalpenak soilik jasoko ditu arau-haustearen identifikazioa, kirol-taldea, urratutako agindua eta ezarritako zehapena.
 - c) Argitalpena ezin izango da mantendu zehapenaren iraupen-epea amaitu ondoren.
 - d) Argitalpenak ez du barne hartuko hamalau urtetik beherakoei eragiten dieten zehapenik, lehiaketaren izaera kontuan hartuta argitaratzea bidezkoa dela baloratzen denean izan ezik.
 - e) Informazio hori lehiaketan parte hartzen duten pertsonen baino ez dute izango eskuragarri.
 - f) Argitaratutako informazioa bilaketa-motorren bidez atzeman edo indexatu ezin izateko neurri teknikoak hartu beharko dira.
 - g) Betiere ohartarazi beharko da dagokion web-orrian argitaratutako informazioa ezin izango dela geroago tratatu kirol-arloko diziplina-helburuez bestelako helburuekin.

132. artikulua. Diziplina-erantzukizunak eta erantzukizun penalak aldi berean agertzea

3. Las sanciones prescriben a los tres años, al año o al mes según se trate de sanciones por infracciones muy graves, graves o leves, comenzándose a contar el plazo de prescripción desde el día siguiente a aquel en que adquiriera firmeza la resolución por la que se impuso la sanción o desde que se quebrante su cumplimiento si este hubiera comenzado.

Artículo 131. Publicidad de las sanciones

1. Las resoluciones que impongan sanciones disciplinarias podrán ser objeto de publicación por las organizaciones deportivas a través de la correspondiente página web.
2. La publicación deberá respetar los siguientes límites:
 - a) La publicidad se ceñirá a las sanciones cuando sean ejecutivas.
 - b) La publicación únicamente contendrá la identificación de la persona infractora, equipo, precepto vulnerado y sanción impuesta.
 - c) La publicación no podrá mantenerse después de la finalización del plazo de duración de la sanción.
 - d) No incluirá sanciones que afecten a menores de catorce años, salvo que se valore la pertinencia de la publicación atendiendo a la naturaleza de la competición.
 - e) El acceso a tal información será limitado a las personas que participen en la competición.
 - f) Deberán adoptarse medidas técnicas para que la información publicada no pueda ser captada o indexada a través de motores de búsqueda.
 - g) En todo caso deberá advertirse en la página web correspondiente que la información publicada no podrá ser tratada posteriormente para fines distintos que los puramente disciplinarios deportivos.

Artículo 132. Concurrencia de responsabilidades disciplinarias y penales



1. Kirol-arloko diziplina-organoek, ofizioz edo interesdunak eskatuta, delitu izan daitezkeen egitateen berri eman beharko diote Fiskaltzari. Kasu horretan, kirol-arloko diziplina-organoek erabakiko dute, inguruabarrak kontuan hartuta, prozedura etetea dagokion ebazpen judiziala eman arte.
2. Halaber, diziplina-organoak diziplina-prozeduraren izapidetzea etengo du, inguruabarrak kontuan hartuta, egitate berberak auzibidean daudela jakiten duenean, hargatik eragotzi gabe geroago, hala badagokio, izapidetzeari berriz ekiteko aukera.
3. Bi kasu horietan, kirol-arloko diziplina-prozedura etetea erabakitzen denean, kirol-arloko diziplina-organoek ere beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte.

133. artikulua. Diziplina-erantzukizunak eta administrazio-erantzukizunak aldi berean agertzea

1. Egitate berberak lege honen XIV. tituluan araututako administrazio-erantzukizunez gain diziplina-erantzukizunak sortzen baditu, kirol-arloko diziplina-organoek, ofizioz edo alde batek eskatuta, administrazio-organo eskudunari jakinarazi beharko diote, hargatik eragotzi gabe diziplina-prozedura izapidetzea.
2. Kirol-arloko diziplina-organoek administrazio-erantzukizuna baino sortzen ez duten egitateen berri dutenean, administrazio-organo eskudunei helaraziko dizkiete aurrekariak.

XIV. TITULUA JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN IKUSKAPENA ETA ZEHAPEN ARAUBIDEA

I. KAPITULUA JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN IKUSKAPENA

134. artikulua. Funtzioak

Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailak jarduera fisikoaren

1. Los órganos disciplinarios deportivos deberán, de oficio o a instancia de parte interesada, comunicar al Ministerio Fiscal aquellos hechos que pudieran revestir carácter de delito. En este caso, los órganos disciplinarios deportivos acordarán, según las circunstancias concurrentes, la suspensión del procedimiento hasta que recaiga la correspondiente resolución judicial.
2. Asimismo, el órgano disciplinario suspenderá la tramitación del procedimiento disciplinario, según las circunstancias concurrentes, cuando tenga conocimiento que los mismos hechos están siendo perseguidos en vía penal, sin perjuicio de su posterior reanudación si procede.
3. En ambos supuestos, cuando se acuerde la suspensión del procedimiento disciplinario deportivo, los órganos disciplinarios deportivos también podrán adoptar las medidas cautelares necesarias.

Artículo 133. Concurrencia de responsabilidades disciplinarias y administrativas

1. En el supuesto de que un mismo hecho pudiera dar lugar a las responsabilidades administrativas reguladas en el título XIV de esta ley y a responsabilidades disciplinarias, los órganos disciplinarios deportivos deberán, de oficio o a instancia de parte, comunicarlo al órgano administrativo competente, todo ello sin perjuicio de la tramitación del procedimiento disciplinario.
2. Cuando los órganos disciplinarios deportivos tuvieran conocimiento de hechos que pudieran dar lugar exclusivamente a responsabilidad administrativa darán traslado de los antecedentes a los órganos administrativos competentes.

TÍTULO XIV INSPECCIÓN DEPORTIVA Y DE LA ACTIVIDAD FÍSICA Y RÉGIMEN SANCIONADOR

CAPÍTULO I INSPECCIÓN DEPORTIVA Y DE LA ACTIVIDAD FÍSICA

Artículo 134. Funciones

El departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia



eta kirolaren ikuskapeneko funtzioak beteko ditu eta legezko eta erregelamenduzko xedapenak betetzen direla kontrolatuko du. Eskumen hori gorabehera, lurralde historikoetako foru-organismoek eta udalerriek kirol-ikuskapenaren arloko eskumena dute, zeinek bere esparruan.

135. artikulua. Ikuskatzeko eskumena

Kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioen ikuskapena, printzipioz, lizentziak edo baimenak emateko eskumena duen administrazioak egingo du.

136. artikulua. Gaitutako pertsonak

Funtzio horiek beteko dituzte bakoitzean beharrezkoa den espezializazio teknikoa duten eta, aldi berean, Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailak, lurralde historikoetako foru-organismoek edo udalerriek ikuskatzeko gaitzen dituzten pertsonak. Une oro bermatuko da ikuskatua izaten ari den pertsonak berak hautatutako hizkuntzan arreta jasotzeko duen eskubidea.

137. artikulua. Ahalmenak

1. Beren funtzioak betetzean, ikuskatzaileak, behar bezala akreditatuta, agintaritzako agenteak izango dira, eta indarrean dagoen araudiak agintaritzako agenteei ematen dizkien babesak eta ahalmenak izango dituzte.
2. Beren funtzioak hobeto betetzeko beharrezkotzat jotzen dutenean, ikuskatzaileek beste erakunde batzuen mendeko pertsonen eta zerbitzuen esku-hartzea eskatu ahal izango dute.
3. Lege honek aipatzen dituen helburuetako bat lortzeko kautelazko neurriak berehala hartu behar direnean, balizko egintza ez-zilegiak egiaztatzen dituzten funtzionarioek neurri horiek ezarri ahal izango dituzte, interesdunei entzunaldirik eman gabe, euren berariazko ikuskapen-eginkizuna betez. Funtzionario horiek ikuskatze-lanaren ondoren bete beharreko aktan adierazi beharko dute zein kautelazko neurri hartu dituzten, bai eta neurriok hartzeko arrazoi eta helburu zehatzak zein izan diren ere.

deportiva ejercerá las funciones de inspección de la actividad física y del deporte, controlando el cumplimiento de las disposiciones legales y reglamentarias. Tal competencia se entiende sin perjuicio de la competencia en materia de inspección deportiva que ostentan los órganos forales de los territorios históricos y los municipios en sus respectivos ámbitos.

Artículo 135. Competencia inspectora

La inspección de instalaciones deportivas y de actividad física se efectuará, en principio, por la Administración competente para el otorgamiento de las licencias o autorizaciones.

Artículo 136. Personas habilitadas

Dichas funciones se llevarán a cabo por aquellas personas que, con la especialización técnica requerida en cada caso, resulten habilitadas para la inspección por el departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva o por los órganos forales de los territorios históricos y de los municipios. En todo momento se garantizará el derecho de la persona inspeccionada a ser atendida en la lengua oficial que ella elija.

Artículo 137. Facultades

1. En el ejercicio de sus funciones las inspectoras e inspectores, debidamente acreditados, tendrán carácter de agentes de la autoridad, y gozarán como tales de la protección y facultades que se les dispensan en la normativa vigente.
2. Cuando lo consideren preciso para el mejor cumplimiento de sus funciones, las inspectoras e inspectores podrán recabar la intervención de personas y de servicios dependientes de otras instituciones.
3. Cuando la consecución de alguno de los objetivos a que se refiere esta ley requiera la adopción inmediata de medidas cautelares, éstas podrán ser impuestas, sin audiencia de las personas interesadas, por el personal funcionario que constate los hechos eventualmente ilícitos, en el ejercicio de su específica función de inspección. Dichos funcionarios o funcionarias, en el acta que levanten como consecuencia de la inspección, expresarán la medida o medidas cautelares que hayan adoptado, así como la causa y finalidad concretas de las mismas.



Apartatu honek arautzen dituen kautelazko neurriak ezartzen direnean, berehala abiarazi beharko da dagokion zehapen-prozedura; hala, abiarazteko egintza horretan bertan, zehatzeko eskumena daukan organo titularrak neurri horiek errebokatu, mantendu edo aldatuko dituen adieraziko du, arrazoituta.

138. artikulua. Jarduera fisikoaren eta kirolaren ikuskaritzarekiko betebeharrak

Jarduera fisiko eta kiroleko zentroetako langile edo erakunde titularrek eta esparru honetan zerbitzuak ematen dituen edozein pertsonak eta erakundek baimena eman beharko diete ikuskatzaileei beren lokaletan sartzeko eta dokumentuak eta ondasunak kontrolatu eta aztertzeko, eta ikuskapenean beharrezkoa den laguntza eskaini beharko dute.

139. artikulua. Aholkularitza eta laguntza teknikoa

Jarduera fisikoaren eta kirolaren ikuskaritzak, halaber, kirolerako eta jarduera fisikorako zentroak irekitzeko edo funtzionatzeko baldintzei eta lege honetan araututako arlo guztiei buruzko aholkularitza hartuko du bere gain, legea behar bezala betetzen dela bermatzeko.

II. KAPITULUA ZEHAPEN ARAUBIDEA

140. artikulua. Aplikazio-eremua

Kapitulu honetako xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gertatzen diren ekintzei edo ez-egiteei aplikatuko zaizkie, kirol-lehiaketaren edo jardueraren izaera edo mota edozein izanik ere.

141. artikulua. Arau-hauste administratiboak eta haien erantzuleak

1. Kirol-arloko arau-hauste administratiboak dira kapitulu honetan tipifikatutako ekintza edo ez-egiteak, eta arau-hauste horiek doloz edo erruz egiten dituzten pertsona fisikoak eta juridikoak izango dira erantzuleak.
2. Kirol-arloko eta jarduera fisikoko arau-hauste administratiboak oso astunak, astunak eta arinak izan daitezke.
3. Lege hau garatzen duten erregelamenduzko xedapenek, halaber, zehaztapenak edo

En los casos en que se hayan impuesto las medidas cautelares que regula este apartado se procederá con urgencia a la incoación del correspondiente procedimiento sancionador, y en el acto de incoación el órgano titular de la competencia sancionadora determinará, motivadamente, la revocación, mantenimiento o modificación de dichas medidas.

Artículo 138. Obligaciones ante la inspección de la actividad física y del deporte

El personal o la entidad titular de centros deportivos y de actividad física y cualesquiera personas o entidades que presten servicios en este campo estarán obligadas a permitir a las inspectoras e inspectores el acceso a sus dependencias y el control y examen de documentos y bienes, así como a prestar la colaboración necesaria en la inspección.

Artículo 139. Asesoramiento y asistencia técnica

La inspección de la actividad física y del deporte asumirá asimismo el asesoramiento sobre requisitos para la apertura o funcionamiento de centros de actividad física y de deporte y en todas aquellas materias reguladas en esta ley al objeto de garantizar el correcto cumplimiento de la misma.

CAPÍTULO II RÉGIMEN SANCIONADOR

Artículo 140. Ámbito de aplicación

Las disposiciones de este capítulo se aplicarán a las acciones u omisiones que tengan lugar en el ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca y con independencia de la naturaleza o clase de competición deportiva o de actividad.

Artículo 141. Infracciones administrativas y responsables

1. Constituyen infracciones administrativas en materia de deporte las acciones u omisiones tipificadas en el presente capítulo, siendo responsables de las mismas las personas físicas o jurídicas que incurran en ellas a título de dolo o culpa.
2. Las infracciones administrativas en materia deportiva y de actividad física se clasifican en muy graves, graves y leves.
3. Asimismo, las disposiciones reglamentarias de desarrollo de la presente ley podrán introducir



mailakatzek sartu ahal izango dituzte lege honetan ezarrita dauden arau-hausteen koadroan. Zehaztapen eta mailakatzeko horiek ez dute arau-hauste berririk sortuko, ez dituzte aldatuko legean jasotzen diren arau-hausteen izaera edo mugak, eta jokabideak hobeto identifikatzen lagunduko dute.

4. Arau-hauste bat egitearen ondoriozko administrazio-erantzukizunak bateragarriak izango dira pertsona edo erakunde arau-hausteari aldatu duen egoera jatorrian zegoen moduan uzteko egin beharrekoa egiteko eskaerarekin eta eragindako kalte-galeren ordaintzarekin; kalte-ordain hori finkatu eta eskatuko du zehatzeko ahala baliatu behar duen organoak. Kalte-ordaina ordaintzen ez bada horretarako eta zenbatekoaren arabera finkatzen den epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 101. artikuluan aurreikusitako moduan jardungo da.

142. artikulua. Arau-hauste oso astunak

Honako hauek hartuko dira arau-hauste oso astuntzat:

- a) Edozein arrazoiengatik jazarpena edo diskriminazioa dakarten portaerak eta jardura fisikoetan eta kirol-jardueretan aritzeko eta parte hartzeko aukera eragozten edo larriki zailtzen dutenak edota kirolerako eta jardura fisikorako instalazioak erabiltzeko aukera eragozten edo larriki zailtzen dutenak.
- b) Jardura fisikoari eta kirolari lotutako jarduerak egitea eta zerbitzuak ematea pertsonen osasuna eta segurtasuna larriki kaltezeko baldintzetan.
- c) Kirolerako eta jardura fisikorako instalazioetan edo haietarako sarbideetan desordena publikoetan indarkeriaz parte hartzea, horrek pertsonen edo ondasunen arrisku larriak eragin diezazkiekeenean.
- d) Jardura fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik agertutako indarkeria, intolerantzia edo diskriminazio ekintzak eta emakumeen duintasunaren aurkako ekintzak antolatu, bultzatu, erraztu, estali, defendatu edo sustatzea eta haietan parte hartzea.

especificaciones o graduaciones en el cuadro de las infracciones establecidas en esta ley que, sin constituir nuevas infracciones, ni alterar la naturaleza o límites de las que en ella se contemplan, contribuyan a la más correcta identificación de las conductas.

4. Las responsabilidades administrativas que se deriven de la comisión de una infracción serán compatibles con la exigencia a la persona o entidad infractora de la reposición de la situación alterada por aquella a su estado originario, así como con la indemnización por los daños y perjuicios causados, que será determinada y exigida por el órgano al que corresponda el ejercicio de la potestad sancionadora. De no satisfacerse la indemnización en el plazo que al efecto se determine en función de su cuantía, se procederá en la forma prevista en el artículo 101 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Artículo 142. Infracciones muy graves

Se considerarán infracciones muy graves:

- a) Los comportamientos que impliquen acoso o discriminación por cualquier motivo que impidan o dificulten gravemente la práctica y participación en las actividades físicas y deportivas o impidan o dificulten gravemente el acceso a instalaciones deportivas y de actividad física.
- b) La realización de actividades y la prestación de servicios relacionados con la actividad física y el deporte en condiciones que puedan afectar gravemente a la salud y a la seguridad de las personas.
- c) La participación violenta en desórdenes públicos en las instalaciones deportivas y de actividad física o en sus accesos cuando puedan ocasionar graves riesgos a las personas o a los bienes.
- d) La participación, organización, incentivación, facilitación, encubrimiento, defensa o promoción de actos de violencia, intolerancia y discriminación por cualquier motivo, así como los contrarios a la dignidad de las mujeres en el ámbito de la actividad física y del deporte.



- | | | | |
|----|--|----|---|
| e) | Aurreko letran deskribatutako emaitza duten kantuak abestea. | e) | La entonación de cánticos con el resultado descrito en la letra anterior. |
| f) | Kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioetan edozein arrazoiengatik indarkeria, intolerantzia edo diskriminazio portaerak bultzatzen edo sustatzen dituzten edota emakumeen duintasunaren aurkako portaerak bultzatzen edo sustatzen dituzten pankartak, sinboloak, ikurrak edo hitzak erakustea. | f) | La exhibición en las instalaciones deportivas y de actividad física de pancartas, símbolos, emblemas o leyendas que inciten o fomenten los comportamientos de violencia, intolerancia y discriminación por cualquier motivo, así como los que inciten o fomenten comportamientos contrarios a la dignidad de las mujeres. |
| g) | Aurreko letran adierazitako ekintzak saihesteko arauak, instrukzioak edo neurriak borondatez eta ezagueraz ez betetzea. | g) | El incumplimiento voluntario y consciente de las normas, instrucciones o medidas para evitar los actos citados en la letra anterior. |
| h) | Jarduera fisikoan eta kirol-jardueren antolaketaren eta kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioen arloko segurtasun- eta higiene-arauak ez betetzea, pertsonentzat edo ondasunetarako arrisku larria dakarrenean. | h) | El incumplimiento de las medidas de seguridad e higiene en materia de organización de actividades físicas y deportivas o de instalaciones deportivas y de actividad física que suponga un grave riesgo para las personas o para sus bienes. |
| i) | Osasun-arloko profesionalak edo baliabideak egoteko betebeharra ez betetzea. | i) | El incumplimiento de la obligación de presencia de profesionales o dispositivos sanitarios. |
| j) | Kirol-lehiaketak egiten diren instalazioetan parte-hartzaileei edo ikusleei arrisku larria eragin diezaiekeen edozein arma edo objektu mota, bengalak, petardoak edo adierazitako arriskua dakarren beste edozein elementu sartzea, eramatea edo erabiltzea. | j) | La introducción, porte o utilización en instalaciones en las que se celebren competiciones deportivas de cualquier clase de arma o de objeto que pueda provocar un grave riesgo para participantes o asistentes, así como bengalas, petardos o cualesquiera otros elementos que supongan el citado riesgo. |
| k) | Kirol-federazio baten aitorpen ofiziala errebotatu ondoren federazio hori desegiteari lotutako betebeharrak ez betetzea. | k) | El incumplimiento de los deberes relacionados con la obligación de disolver una federación deportiva una vez revocado su reconocimiento oficial. |
| l) | Jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik indarkeria, intolerantzia edo diskriminaziora larriki bultzatzen duten adierazpen eta ekintzak burutzea, bai eta emakumeen duintasunaren kontrakoak ere. | l) | Las declaraciones y actos que inciten gravemente a la violencia, la intolerancia y la discriminación por cualquier motivo, así como los contrarios a la dignidad de las mujeres en la actividad física y en el deporte. |
| m) | Arbitroak edo epaileak, kirolariak, teknikariak, kirol-agintariak eta kirol-ekitaldietan esku hartzen duten beste pertsona batzuk erasotzea, lardieratzea edo derrigortzea. | m) | La agresión, intimidación o coacción a árbitros y jueces o juezas, deportistas, técnicas y técnicos, autoridades deportivas y otras personas intervinientes en los eventos deportivos. |
| n) | Sexu-jazarpena, sexuan edo sexu-identitatean oinarritutako jazarpena. | n) | El acoso sexual, el acoso por razón de sexo o por razón de identidad sexual. |
| o) | Partida, proba edo lehiaketa bat egitea eragozten duten edo hura aldi baterako edo behin betiko etetera behartzen duten protesta edo jarduketa kolektiboak edo kirol-legearen | o) | La protesta o actuación colectiva o cualquier comportamiento antideportivo que impida la celebración de un encuentro, prueba o competición o que obligue a su suspensión |



kontrako portaera oro.

- p) Proben edo lehiaketen emaitzaren iruzurrezko aldaketak, proba edo lehiaketa horiek egin aurretik akordio, larderia, prezio edo iruzurrezko beste edozein baliabideren bidez emaitzan eragitera bideratuta dauden edo helburu hori duten jokabideak barnean hartuta.
- q) Kirol-materiala edo kirol-ekipamendua arau teknikoaren aurka manipulatzeko edo aldatzeko parte hartzea kirol bakoitzaren arau teknikoaren kontra, xedea denean partiden, proben edo lehiaketen emaitzak aurrez ezartzea.
- r) Jarduera fisikoa eta kirola egiteko beharrezkoa den duintasunaren edo begirunearen aurkako ekintzak egitea, bereziki larriak direnean.
- s) Administrazio publikoek lege hau edo garatzen duten xedapenak betetzeko egindako errekerimenduen ez-betetze errepikatu edo larriak.
- t) Ikuskapen-funtzioa betetzea oztopatzea edo betetzea eragozten duen erresistentzia.
- u) Administrazio publikoek kirol-arloan bete beharreko ikuskapen-funtzioa oztopatzea edo harekiko erresistentzia errepikatua edo larria.
- v) Lanbide-betebeharrak ez betetzea, horren ondorioz pertsonen osasun edo integritate fisiko edo psikorako kalte larria eragiten denean.
- w) Falta astunak behin eta berriz egitea.
- x) Arau-hauste astunengatik edo oso astunengatik ezarritako zehapenak urratzea.
- y) Kautelazko neurriak ez-betetzea.
- z) Kirol-arloko lanbideak arautzen dituzten legeek eskatzen duten lanbide-kualifikaziorik izan gabe zerbitzu profesionalak ematea, edo profesionalak kontratatzean nahitaezko lanbide-kualifikazioa ez eskatzea.

143. artikulua. Arau-hauste astunak

Honako hauek hartuko dira arau-hauste astuntzat:

temporal o definitiva.

- p) Las modificaciones fraudulentas del resultado de las pruebas o competiciones, incluidas las conductas previas a la celebración de las mismas que se dirijan o persigan influir en el resultado mediante acuerdo, intimidación, precio o cualquier otro medio fraudulento.
- q) La participación en manipulaciones o alteraciones del material o equipamiento deportivos en contra de las reglas técnicas de cada deporte al objeto de predeterminedar los resultados de encuentros, pruebas o competiciones.
- r) La realización de acciones que atenten contra la dignidad o el decoro que exige el desarrollo de la actividad física y del deporte cuando revistan especial gravedad.
- s) Los incumplimientos reiterados o graves de los requerimientos realizados por las administraciones públicas en cumplimiento de la presente ley o de sus disposiciones de desarrollo.
- t) La obstrucción o resistencia que impida el ejercicio de la función inspectora.
- u) La obstrucción o resistencia reiterada o grave a la función de supervisión de las administraciones públicas en materia deportiva.
- v) El incumplimiento de los deberes profesionales cuando de ello resulte un perjuicio grave para la salud o la integridad física o psíquica de las personas.
- w) La reiteración en la comisión de faltas graves.
- x) El quebrantamiento de sanciones impuestas por infracciones graves o muy graves.
- y) El incumplimiento de medidas cautelares.
- z) La prestación de servicios profesionales sin la posesión de la cualificación profesional exigida en la legislación reguladora de las profesiones del deporte o la no exigencia de la cualificación profesional preceptiva en la contratación de profesionales.

Artículo 143. Infracciones graves

Se considerarán infracciones graves:



- | | | | |
|----|---|----|--|
| a) | Kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioetan, kirol-altzarietan edo kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduetan kalteak doloz egitea, arau-hauste penala ez denean. | a) | La realización dolosa de daños en las instalaciones deportivas y de actividad física y en el mobiliario o equipos deportivos y de actividad física cuando no constituya infracción penal. |
| b) | Aurreko artikuluan deskribatutako jokabideak burutzea, arrisku larriaren, arriskuaren edo kalte garrantzitsuen inguruabarrik ez dagoenean. | b) | La realización de las conductas descritas en el artículo anterior cuando no concurren las circunstancias de grave riesgo, peligro o importante perjuicio. |
| c) | Ardurarik eza jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazoiengatik indarkeria, intolerantzia edo diskriminazioko ekintzak eta emakumeen duintasunaren aurkako ekintzak galarazteko betebeharrak betetzeko garaian. | c) | La falta de diligencia en el cumplimiento de las obligaciones de impedir los actos de violencia, la intolerancia y la discriminación por cualquier motivo, así como los actos contra la dignidad de las mujeres en el ámbito de la actividad física y del deporte. |
| d) | Pasibotasuna aurreko letran adierazitako ekintzen prebentzioan eta errepresioan. | d) | La pasividad en la prevención y en la represión de los actos mencionados en la letra anterior. |
| e) | Jarduera fisikoa eta kirola egiteko beharrezkoa den duintasunaren edo begirunearen aurkako ekintzak egitea, bereziki larriak ez direnean. | e) | La realización de acciones que atenten contra la dignidad o el decoro que exige el desarrollo de la actividad física y del deporte cuando no revista especial gravedad. |
| f) | Arbitroak edo epaileak, teknikariak, kirol-agintariak, kirolariak edo kirol-jardueretan esku hartzen duen beste edozein pertsona iraintzea eta laidoztatzea, eta pertsona horiekiko indarkeria arinez jokatzeko. | f) | Los insultos y ofensas formuladas a las árbitras y árbitros o las juezas y jueces, técnicas y técnicos, autoridades deportivas, deportistas y cualesquiera otras personas que intervienen en las actividades deportivas, así como comportarse con violencia leve hacia tales personas. |
| g) | Zelaira, kantzara edo proba egiten den lekura objektuak jaurtitzea, arau-hauste oso astuna ez denean. | g) | El lanzamiento de objetos al terreno de juego, cancha o lugar de desarrollo de la prueba cuando no revista el carácter de muy grave. |
| h) | Ikusleak probokatzeko ekintzak egitea. | h) | La realización de actos de provocación al público. |
| i) | Ardurarik eza lege honetan aurreikusitako gobernantza onaren kodea onartzeko betebeharra betetzean. | i) | La falta de diligencia en el cumplimiento de la obligación de aprobar el código de buena gobernanza previsto en esta ley. |
| j) | Segurtasunari eta arriskuen estaldurari buruzko arauak betetzen ez dituzten kirol-jarduerak antolatzea, jarduera egiteak hirugarrenentzat arriskurik ez dakarrenean. | j) | La organización de actividades deportivas que incumplan las normas de seguridad y de cobertura de riesgos cuando la realización de la actividad no genere riesgos para terceros. |
| k) | Lege honetan kirol-taldeak kirolariari eusteko eskubidearen arloko debekuak ez betetzea, edota nahitaezko luzapena ezartzeko edo prestakuntzagatik ordaina jasotzeko zein antzeko alderdiei lotutako debekuak ez betetzean parte hartzea. | k) | La participación de personas en el incumplimiento de las prohibiciones contenidas en esta ley en materia de derechos de retención, de imposición de prórroga forzosa, de percibir compensación por formación o análogos. |



l)	Hirugarren pertsona edo erakundeei kirol- emaitza positiboak lortzeko pizgarriak agintzea edo ematea.	l)	La promesa o entrega de incentivos a terceras personas o entidades para conseguir resultados deportivos positivos.
m)	Lege honetan edo hura garatzen duten xedapenetan ezarritako arriskuen aseguramendurik eza.	m)	La falta de aseguramiento de los riesgos que establece esta ley o sus disposiciones de desarrollo.
n)	Ikusapen-funtzioa betetzea zailtzen duen oztopatzea edo erresistentzia.	n)	La obstrucción o resistencia que dificulte el ejercicio de la función inspectora.
o)	Administrazio publikoek kirol-arloan bete beharreko ikusapen-funtzioa oztopatzea edo harekiko erresistentzia, arau-hauste oso astuna ez denean.	o)	La obstrucción o resistencia a la función de supervisión de las administraciones públicas en materia deportiva que no revista el carácter de infracción muy grave.
p)	Arriskuak aseguratzeko erregelamenduz ezarritako gutxienezko edukia era nabarmenean bete gabe.	p)	El aseguramiento de riesgos incumpliendo de forma sustancial los contenidos mínimos establecidos reglamentariamente.
q)	Lege honetan landutako arloetan edozein baliabideren bidez iruzur egiten duen edo nahastera bultzatzen dezakeen publizitate oro.	q)	Toda publicidad que por cualquier medio engañe o induzca a error en las materias contenidas en esta ley.
r)	Lege honetan bildutako kirolarien eskubideen gutxienezko edukia, arau-hauste oso astuna ez denean.	r)	Cualquier menoscabo de los derechos de las deportistas y los deportistas contenidos en esta ley que no ostenten el carácter de infracción muy grave.
s)	Kirol-federazioen berezko izenak erabiltzea edo haien berezko jarduerak egitea.	s)	La utilización de denominaciones o la realización de actividades propias de las federaciones deportivas.
t)	Kirol-arloan eskumena duten administrazioen irudi korporatiboa behar ez bezala erabiltzea, kirol-jardueren izaera ofiziala simulatzeko.	t)	El uso indebido de la imagen corporativa de las diferentes administraciones con competencia en materia deportiva para simular la naturaleza oficial de actividades deportivas.
u)	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak edo lurralde historikoetako foru- organoek baimendu gabeko eskola-arloko kirol- jarduerak antolatzea edo haietan parte hartzea.	u)	La organización o participación en actividades deportivas de escolares no autorizadas por la Administración general de la Comunidad Autónoma Vasca o por los órganos forales de los territorios históricos.
v)	Ofizial izendatutako jarduerak, probak edo lehiaketak dagokien baimenik gabe antolatzea.	v)	La organización de actividades, pruebas o competiciones con la denominación de oficiales sin la autorización correspondiente.
w)	Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.	w)	La reiteración en la comisión de faltas leves.
x)	Arau-hauste arin batengatik ezarritako zehapenak urratzea.	x)	El quebrantamiento de sanciones impuestas por faltas leves.
y)	Lege honetan ezarritako gardentasun- betebeharren ez-betetze larria.	y)	El incumplimiento grave de las obligaciones de transparencia establecidas en esta ley.



144. artikulua. Arau-hauste arinak

Honako hauek izango dira arau-hauste arinak:

- a) Aurreko artikuluan deskribatutako jokabideak, betiere, astuntasun txikiagoa badute erabilitako baliabideak, sortutako emaitzak, asmoa eta antzeko beste inguruabar oro kontuan hartuta.
- b) Ikusleenganako, kirolarienganako eta kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioen erabiltzaileenganako errespeturik eza, ordena publikoaren nahasmendurik ez dakarrenean.
- c) Arretarik eza edo utzikeria kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioak, altzariak edo ekipamenduak kontserbatu eta zaintzean.
- d) Lege honetan ezarritako gardentasun-betebeharren ez-betetze arina.
- e) Arbitroekiko edo epaileekiko, teknikariekiko, kirol-agintariekiko, kirolariekiko edo kirol-jardueretan esku hartzen duen beste edozein pertsonarekiko begirunerik eza erakusten duten ekintzak edo adierazpenak egitea.
- f) Kirol-lehiaketak egitean arbitroei edo epaileei behin eta berriz protesta egitea.
- g) Ikuskapen-lanean ez laguntzea, betiere arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatu ez bada.
- h) Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroari lotutako betebeharrak ez betetzea.

145. artikulua. Ondorioak

Arau-hauste administratibo orok honako ondorio hauek ekarri ahal izango ditu:

- a) Zehapenak ezartzea, hargatik eragotzi gabe beste edozein motatako erantzukizunak.
- b) Eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra.
- c) Urratutako ordena juridikoa berrezartzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea eta arau-haustek eragindako ondorioak

Artículo 144. Infracciones leves

Se considerarán infracciones leves:

- a) Las conductas descritas en el artículo anterior cuando impliquen una gravedad menor en atención a los medios empleados, los resultados producidos, la intencionalidad y cualesquiera otras circunstancias análogas.
- b) La falta de respeto de las espectadoras o de los espectadores, deportistas y personas usuarias de las instalaciones deportivas y de actividad física cuando no produzca una alteración del orden público.
- c) El descuido o abandono en la conservación y cuidado de las instalaciones deportivas y de actividad física y en el mobiliario o equipos.
- d) El incumplimiento leve de las obligaciones de transparencia establecidas en esta ley.
- e) La realización de actos o las manifestaciones de desconsideración hacia árbitras y árbitros o juezas y jueces, técnicas y técnicos, autoridades deportivas, deportistas y cualesquiera otras personas que intervienen en las actividades deportivas.
- f) Las protestas reiteradas a las árbitras y árbitros o juezas y jueces durante la celebración de las competiciones deportivas.
- g) La falta de colaboración con la labor inspectora, siempre que no se haya tipificado como infracción grave o muy grave.
- h) El incumplimiento de las obligaciones relacionadas con el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

Artículo 145. Efectos

Toda infracción administrativa podrá dar lugar a:

- a) La imposición de sanciones, sin perjuicio de las responsabilidades de cualquier otro orden.
- b) La obligación de reparar los daños y perjuicios causados.
- c) La adopción de cuantas medidas se precise, para restablecer el orden jurídico infringido y anular los efectos producidos por la infracción.



deuseztatzea.

146. artikulua. Zehapenak

1. Aurreko artikuluetan deskribatutako arau-hausteak egiteak honako zehapen hauek ekarri ahal izango ditu:
 - a) Isun ekonomikoa.
 - b) Jarduera etetea.
 - c) Administrazio-baimena errebotatzea.
 - d) Kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioak ixtea.
 - e) Dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko eskubidea galtzea.
 - f) Kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioetan sartzeko debekua.
 - g) Kirol-jarduerak antolatzeko gaitasuna galtzea.
2. Arau-hauste arinek 1.000 eurora bitarteko isuna jaso ahal izango dute, astunek 1.001 eurotik 10.000 eurora bitarteko isuna eta oso astunek 10.001 eurotik 100.000 eurora bitarteko isuna.
3. b), d), e), f) eta g) letretan adierazitako zehapen osagarriak, gehienez ere, lau urterako ezarri ahal izango dira arau-hauste oso astunengatik.
4. b), d), e), f) eta g) letretan adierazitako zehapen osagarriak, gehienez ere, bi urterako ezarri ahal izango dira arau-hauste astunengatik.
5. Zehapenen eta sortu ahal izan diren erantzukizunen zenbatekoak administrazioko premiamendu-bidea erabiliz eskatu ahal izango dira.
6. Adingabeen kasuan eta zehapenaren hezkuntza-helburua kontuan hartuta, zehapenen ordezkio neurriak ezarri ahal izango dira, adina eta inguruabar pertsonalak kontuan hartuta.

147. artikulua. Erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak

Artículo 146. Sanciones

1. La comisión de las infracciones descritas en los artículos anteriores podrá ser objeto de las siguientes sanciones:
 - a) Multa económica.
 - b) Suspensión de actividad.
 - c) Revocación de autorización administrativa.
 - d) Clausura de instalaciones deportivas y de actividad física.
 - e) Pérdida del derecho a obtener subvenciones o ayudas públicas.
 - f) Prohibición de acceso a instalaciones deportivas y de actividad física.
 - g) Inhabilitación para organizar actividades deportivas.
2. Las infracciones leves podrán ser sancionadas con multa de hasta 1.000 euros, las graves con multa de 1.001 a 10.000 euros y las muy graves con multas de 10.001 euros a 100.000 euros.
3. Las sanciones accesorias mencionadas en las letras b), d), e), f) y g) podrán imponerse por las infracciones muy graves hasta un máximo de cuatro años.
4. Las sanciones accesorias mencionadas en las letras b), d), e), f) y g) podrán imponerse por las infracciones graves hasta un máximo de dos años.
5. Tanto el importe de las sanciones como el de las responsabilidades a que hubiere lugar podrán ser exigidos por la vía administrativa de apremio.
6. En el caso de personas menores de edad y atendiendo a la finalidad educativa de la sanción, se podrán establecer medidas sustitutivas de las sanciones, atendiendo a su edad y a sus circunstancias personales.

Artículo 147. Circunstancias modificativas de la responsabilidad



- | | |
|--|--|
| <p>1. Administrazio-erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak aringarriak eta astungarriak izan daitezke.</p> <p>2. Inguruabar aringarriak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Arau-haustea egin aurretik probokazio nahikoa gertatu izana.b) Berez damutu izana.c) Errudunak arau-haustearen ondorioak onbideratu edo arindu, biktima asebetetzea edo egitateak borondatez aitortu izana. <p>3. Inguruabar astungarriak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Arau-haustea behin eta berriz egitea, berrerortzea izan gabe.b) Berrerortzea, arau-hausleari azken urtean izaera bereko arau-hauste batengatik zehapen bat ezarri zaionean.c) Lortutako prezioa edo legez kontrako onura.d) Aldez aurretik ohartarazi izana.e) Arau-haustea arrazakeriagatik edota beste edozein diskriminazio motarengatik egitea. <p>4. Gainera, zehapenak ezartzean, honako inguruabar hauek hartuko dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Egitateen izaera.b) Erantzulearen nortasuna.c) Arau-haustearen ondorioak edo eragindako kalteen izaera.d) Erruduntasun-maila edo intentzionalitatea egotea.e) Zehatutako pertsona fisiko edo juridikoaren jardueraren bolumen ekonomikoa.f) Arau-haustean esku hartu duten pertsonen kopuru handiago edo | <p>1. Las circunstancias que modifican la responsabilidad administrativa pueden ser atenuantes y agravantes.</p> <p>2. Son circunstancias atenuantes:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Haber precedido, inmediatamente a la comisión de la infracción, una provocación suficiente.b) El arrepentimiento espontáneo.c) Haber procedido la persona culpable a reparar o disminuir los efectos de la infracción, dar satisfacción a la víctima o confesar los hechos voluntariamente. <p>3. Son circunstancias agravantes:</p> <ul style="list-style-type: none">a) La reiteración infractora cuando no sea constitutiva de reincidencia.b) La reincidencia cuando se haya impuesto a la persona infractora una sanción en el último año por infracción de la misma naturaleza.c) El precio o el beneficio ilícito obtenido.d) La existencia de advertencia previa.e) La comisión de la infracción por motivos racistas o cualquier otro motivo discriminación. <p>4. Además, en la imposición de las sanciones se tendrán en cuenta las siguientes circunstancias:</p> <ul style="list-style-type: none">a) La naturaleza de los hechos.b) La personalidad del responsable o de la responsable.c) Las consecuencias de la infracción o la naturaleza de los perjuicios causados.d) El grado de culpabilidad o la existencia de intencionalidad.e) El volumen económico de la actividad de la persona física o jurídica sancionada.f) El mayor o menor número de personas intervinientes en la infracción. |
|--|--|



txikiagoa.

- g) Ekintzak edo ez-egiteak berriz egitea edo egiten jarraitzea.
- h) Arau-hausleak diziplina-organoekin agertutako lankidetzaren maila.

- g) La reiteración o continuidad de las acciones u omisiones.
- h) El grado de colaboración de la persona infractora con los órganos disciplinarios.

148. artikulua. Zehapenen bateragarritasuna

- 1. Ezein kasutan ez da zehapen bikoitzik ezarriko egitate berberengatik eta babestutako interes berberen arabera.
- 2. Titulu honetan aurreikusitako arau-hausteen ondoriozko zehapenak ezartzeak ez du eragotziko, hala badagokio eta zehapen bakoitzaren oinarria zein den kontuan hartuta, kirol-arloko diziplina-erantzukizunak argitzea.

149. artikulua. Preskripzioa

- 1. Arau-hauste oso astunak hiru urtean preskribatuko dira, astunak urtebetean eta arinak sei hilabetean, eta preskripzio-epea arau-haustea egiten den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Jarduera jarraitu baten ondoriozko arau-hausteeetan, zenbatzen hasteko eguna jarduera amaitzen den eguna edo arau-haustea burutzen duen azken ekintzaren eguna izango da.
- 2. Preskripzio-epea etengo da zehapen-prozedura hasiko dela jakinarazten denean. Prozedura hori hilabetetik gorako epe batean gelditu badago eta arrazoia prozedura hori lotutako pertsona edo erakundeari egotzi ezin bazaio, epea aurrera egingo du berriz.
- 3. Arau-hauste oso astunen ondoriozko zehapenak hiru urtean preskribatuko dira, astunen ondoriozkoak urtebetean eta arinen ondoriozkoak sei hilabetean.

150. artikulua. Kautelazko neurriak

- 1. Zehapen-espedientea hasteko eskumena duten organoek edozein unetan erabaki ditzakete, pertsona eta erakunde interesdunei bost eguneko epe arruntean entzun ondoren eta arrazoitutako erabakiaren bidez, eman daitekeen ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko eta ondasunen eta pertsonen segurtasuna bermatzeko kautelazko neurri egokiak.

Artículo 148. Compatibilidad de sanciones

- 1. En ningún caso se producirá una doble sanción por los mismos hechos y en función de los mismos intereses protegidos.
- 2. La imposición de sanciones por las infracciones previstas en este título no impedirá, en su caso, y atendiendo a su distinto fundamento, la depuración de responsabilidades disciplinarias de índole deportiva.

Artículo 149. Prescripción

- 1. Las infracciones muy graves prescriben a los tres años, las graves al año y las leves a los seis meses, comenzándose a contar el plazo de prescripción el día en que la infracción se hubiera cometido. En las infracciones derivadas de una actividad continuada, la fecha inicial del cómputo será la de la finalización de la actividad o la del último acto con el que la infracción se consuma.
- 2. El plazo de prescripción se interrumpirá en el momento en que se notifique la iniciación del procedimiento sancionador. Si este procedimiento permanece paralizado durante más de un mes, por causa no imputable a la persona o entidad sujeta a dicho procedimiento, volverá a transcurrir el plazo correspondiente.
- 3. Las sanciones por infracciones muy graves prescriben a los tres años, las sanciones por infracciones graves al año, y las sanciones por infracciones leves a los seis meses.

Artículo 150. Medidas cautelares

- 1. Los órganos competentes para incoar el expediente sancionador podrán en cualquier momento, previa audiencia de las personas y entidades interesadas por plazo común de cinco días y mediante acuerdo motivado, acordar las medidas cautelares adecuadas para asegurar la eficacia de la resolución que pudiera recaer y para garantizar la seguridad de bienes y personas.



2. Neurri horiek ez dute zehapen-izaerarik izango, eta honako hauek izan daitezke:
 - a) Fidantzak jartzea.
 - b) Zerbitzuak, jarduerak edo baimenak aldi baterako etetea.
 - c) Kirolerako eta jarduera fisikorako instalazioak aldi baterako ixtea.
 - d) Kirol-erakundeetako karguak etetea.

151. artikulua. Zehatzeko ahala

1. Zehatzeko ahala Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari, lurralde historikoetako foru-entitatei eta udalerriei dagokie, hurrenez hurren, beren eskumenen esparruan.
2. Hautsitzat jotzen den araua eman duen administrazio publikoari dagokio zehatzeko ahala, dela autonomia-erkidegoko mailako erakundea, foru-mailakoa edo udal-mailakoa.
3. Baimena behar duten kirol-jardueren kasu zehatzetan, administrazio publiko eskuduna izango da dagokion baimena eman duena edo eman beharko zukena.

XV. TITULUA KIROL JUSTIZIA

I. KAPITULUA GATAZKAK KONPONTZEA

152. artikulua. Administrazio-gatazkak

Lege honen administrazio-funtzio publikoei lotutako gatazkak ebatziko dira lege honetan aurreikusitako administrazio-errekurtsoen bidez eta, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean hurrenez hurren aurreikusitako administrazio-errekurtsoen eta jurisdikzio-errekurtsoen bidez.

153. artikulua. Gatazka pribatuak

2. Dichas medidas, que no tendrán carácter de sanción, podrán consistir en:
 - a) La prestación de fianzas.
 - b) La suspensión temporal de servicios, actividades o autorizaciones.
 - c) El cierre temporal de instalaciones deportivas y de actividad física.
 - d) La suspensión del ejercicio de cargos en entidades deportivas.

Artículo 151. Potestad sancionadora

1. El ejercicio de la potestad sancionadora corresponderá, en la esfera de sus competencias, a la Administración general de la Comunidad Autónoma, a los órganos forales de los territorios históricos y a los municipios.
2. El ejercicio de la potestad sancionadora corresponderá a la administración pública del nivel institucional, autonómico, foral o municipal, del que emane la norma que se considere infringida.
3. En los supuestos concretos de actividades deportivas sujetas al otorgamiento de autorizaciones la administración pública competente será la que haya emitido o debiera haber emitido la correspondiente autorización.

TÍTULO XV JUSTICIA DEPORTIVA

CAPÍTULO I RESOLUCIÓN DE CONFLICTOS

Artículo 152. Conflictos de carácter administrativo

Los conflictos relativos al ejercicio de las funciones públicas de carácter administrativo de la presente ley se resolverán mediante los recursos administrativos previstos en esta ley y, asimismo, mediante los recursos administrativos y jurisdiccionales previstos, respectivamente, en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

Artículo 153. Conflictos de carácter privado



1. Kirol-federazioen antolamenduari eta funtzionamenduari lotutako gatazkak pribatuak izango dira.
2. Kirol-federazioek beren estatutu- eta erregelamendu-arauetan ezarri beharko dituzte gatazka pribatuak ebazteko judizioz kanpoko sistema pribatuak, hau da, titulu honetako III. kapituluan aurreikusitako arbitraje eta bitartekaritza.

II. KAPITULUA

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEA

154. artikulua. Izaera

1. Kirol Justiziako Euskal Batzordea Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-justiziaren arloko administrazio-organo gorena da.
2. Kirol Justiziako Euskal Batzordea Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailari atxikita dago organikoki, harekiko erabateko independentziaz jardungo du eta bere eskumeneko gaiei buruz erabakiko du azken administrazio-auzaldian.

155. artikulua. Eskumenak

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumenak honako hauek dira:

- a) Kirol-arloko diziplina-ahalaren titularrak diren kirol-organoen erabakien aurka jarritako errekursoak aztertzea eta ebaztea.
- b) Kirol-federazioen hauteskunde-batzordeen erabakien aurka jarritako errekursoak aztertzea eta ebaztea.
- c) Federazioek lehiaketa ofizialen kalifikazioari eta baimenari buruz hartutako erabakien aurkako errekurso oro aztertzea eta ebaztea.
- d) Federazio-lizentziak emateari, ukatzeari, ezerezteari, eteteari eta antzeko ekintzei lotutako errekurso oro aztertzea eta ebaztea.
- e) Federazioen artean beren administrazio-funtzioak betetzean sor daitezkeen gatazkak aztertzea eta ebaztea.

1. Los conflictos referidos a la organización y funcionamiento de las federaciones deportivas tendrán naturaleza privada.
2. Las federaciones deportivas deberán establecer en sus normas estatutarias y reglamentarias los sistemas extrajudiciales de resolución de conflictos de carácter privado, como el arbitraje y mediación, previstos en el capítulo III de este título.

CAPÍTULO II

COMITÉ VASCO DE JUSTICIA DEPORTIVA

Artículo 154. Naturaleza

1. El Comité Vasco de Justicia Deportiva es el órgano administrativo superior en materia de justicia deportiva en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
2. El Comité Vasco de Justicia Deportiva, adscrito orgánicamente al departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma con competencia en materia deportiva, actúa con total independencia de aquel y decide en última instancia administrativa sobre las cuestiones de su competencia.

Artículo 155. Competencias

Son competencias del Comité Vasco de Justicia Deportiva las siguientes:

- a) El conocimiento y resolución de los recursos que se deduzcan contra los acuerdos de los órganos deportivos titulares de la potestad disciplinaria deportiva.
- b) El conocimiento y resolución de los recursos que se deduzcan contra los acuerdos de las juntas electorales de las federaciones deportivas.
- c) El conocimiento y resolución de cualesquiera recursos contra acuerdos federativos relativos a la calificación y autorización de competiciones oficiales.
- d) El conocimiento y resolución de cualesquiera recursos relativos a la emisión, denegación, cancelación, suspensión y actos análogos relativos a las licencias federativas.
- e) El conocimiento y resolución de los conflictos que se puedan suscitar entre las federaciones en el ejercicio de sus funciones de carácter



administrativo.

- f) Aurreko arloen inguruan, batzordeak ofizioz, edo kirol-arloan eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailak eskatuta, lantzeari egoki derizkion gai guztiak aztertzea eta ebaztea.

- f) El conocimiento y resolución de cuantas cuestiones sobre las materias precedentes estime tratar de oficio o a instancia del departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva.

156. artikulua. Izapidetzea eta ebazpenak

1. Kirol Justiziako Euskal Batzordeak bideratzen dituen espedienteak izapidetu eta ebazteko prozedurak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoari jarraituko dio ordezkio izaeraz.
2. Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan baino ezin izango da haien aurkako errekurtsioa jarri.
3. Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenak, hasiera batean, kirol-ekitaldiaren titularra den erakundeak betearaziko ditu, eta erakunde hori arduratuko da benetan betearazten direla ziurtatzeaz. Titularrak egin ezean, batzordeak berak betearaziko ditu ebazpenak.

157. artikulua. Osaera

1. Kirol Justiziako Euskal Batzordea sei kide titularrek osatuko dute, Zuzenbidean lizentziadunak edo gradudunak eta, haiek izendatze aldera, kirol-arloko lege-gaietan duten esperientzia edo prestakuntza espezifikoa baloratuko da. Kide horiek Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailak izendatuko ditu. Kide titularrez gain, sailak ordezkio bi kide izendatuko ditu.
2. Batzordeko kideei indarrean dagoen legerian aurreikusitako abstentzio- edo errekusatzearrazoiak aplikatuko zaizkie.
3. Kirol Justiziako Euskal Batzordeko kideek lehendakari bat eta lehendakariorde bat aukeratu beharko dituzte hura osatzen duten kideen artean. Batzordeko idazkaria Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailak izendatuko du bere funtzionarioen artean.

Artículo 156. Tramitación y resoluciones

1. El procedimiento de tramitación y resolución de los expedientes que conozca el Comité Vasco de Justicia Deportiva se ajustará, con carácter supletorio, a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
2. Las resoluciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva agotan la vía administrativa y solo son recurribles ante la jurisdicción contencioso-administrativa.
3. Las resoluciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva se ejecutarán en primera instancia a través de la correspondiente entidad titular del evento deportivo, que será responsable de su efectivo cumplimiento. En su defecto, será el propio comité quien asuma dicha ejecución.

Artículo 157. Composición

1. El Comité Vasco de Justicia Deportiva estará integrado por seis miembros titulares, con licenciatura o grado en Derecho y, en orden a su designación, se valorará su experiencia o formación específica en materia jurídico-deportiva. Serán designados por el departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva. Además de las miembros y los miembros titulares, el departamento nombrará dos miembros suplentes.
2. Serán aplicables a las personas que conforman el comité las causas de abstención o de recusación previstas en la legislación vigente.
3. Las personas que conforman el Comité Vasco de Justicia Deportiva deberán elegir, de entre ellas, una presidenta o presidente y una vicepresidenta o vicepresidente. La secretaria o el secretario del comité será nombrado por el departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente en materia deportiva de entre sus funcionarios y funcionarias.



4. Batzordeko kideen karguek ez dute ordainsaririk jasoko, eta bertaratzeak direla-eta bidezkoak diren dietak jasotzeko eskubidea baino ez dute sortuko.
5. Nolanahi ere, batzordea osatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarrian eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legean osaera orekatuari buruz ezarritako irizpideari jarraituko zaio.

158. artikulua. Erregelamendu bidezko garapena

Lege hau garatzen duten erregelamenduzko xedapenek zehaztuko dituzte Kirol Justiziako Euskal Batzordearen osaera eta funtzionamendua.

III. KAPITULUA ARBITRAJEA ETA BITARTEKARITZA

159. artikulua. Estatutuen edo erregelamenduen aurreikuspenak

1. Kirol-federazioen estatutuetako edo erregelamenduetako arauak kideen artean planteatzen diren desadostasunak auzibidetik kanpo ebazteko arbitraje- eta bitartekaritza-formulak aurreikusi eta arautu beharko dituzte, hurrenez hurren. Formula horien aplikazioa arbitrajeari buruzko legeria orokorraren eta auzi zibil eta merkataritzako auzietako bitartekaritzari buruzko legeriaren zehaztasunen, baldintzen eta ondorioen arabera egiaztatuko da.
2. Arau horietan, honako alderdi hauek jaso beharko dira:
 - a) Arbitrajearen eta bitartekaritzaren xede izan daitezkeen gaien zerrenda.
 - b) Eraginpean hartutako pertsonen formula horiek onartzeko moduak.
 - c) Formula horiek aplikatzeko prozedura.
 - d) Arbitrajeaz edo bitartekaritza arduratzen diren organoak edo pertsonak eta haiek izendatzeko prozedura.
 - e) Arbitrajea egiten den kasuetan laudoak

4. Los cargos de miembros del comité no serán remunerados, devengando tan sólo las dietas que por razón de las asistencias tuvieran lugar.
